

18/2008 LEGEA, abenduaren 23koa, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzekoa. (Hutsen zuzenketa, EHAA 17 ZK., 2009/01/26)

ZIOEN AZALPENA

I

Euskal Autonomia Erkidegoan gizarteratzearen eta diru-sarrerak bermatzearen arloan indarrean den esparru juridikoa, lehenik, Gizarte Eskubideen Agiriaren abenduaren 27ko 10/2000 Legeak osatzen du –ekainaren 22ko 4/2007 Legeak aldatu zuen–. Bestetik, hasierako lege hori garatu ez denez, oraindik ere neurri handi batean Gizarte Bazterkeriaren aurkako maiatzaren 22ko 12/1998 Legeak osatzen du –azaroaren 10eko 8/2000 eta 9/2000 legeak aldatu zuten lege hori, baita ekainaren 25eko 4/2003 Legeak eta lehen aipatutako ekainaren 22ko 4/2007 Legeak ere–. Azkenik, 12/1998 Legea garatzeko arau hauek sartzan dira esparru horretan: apirilaren 20ko 198/1999 Dekretua, gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrera arautzen duena; apirilaren 20ko 199/1999 Dekretua, gizarte-larrialdietarako laguntzak arautzen dituena; urtarrilaren 11ko 1/2000 Dekretua, gizarteratzeko hitzarmenak arautzen dituena, eta 2001eko otsailaren 14ko Agindua, oinarrizko errentaren titularrentzat eta gizarte-larrialdietarako laguntzen onuradunentzat lanean hasteko pizgarriak ezartzen dituena.

Araudi zabal hori 1998. urtetik aurrera hasi zen garatzen, batez ere 1989. urtean onartutako Pobreziaren aurkako Plan Integralari esker Euskal Autonomia Erkidegoan izandako aurrerapengatik; eta izan duen helburu nagusia gizarte-bazterkeriari aurrea hartzea izan da. Kontuan izan behar da 90eko hamarkadaren amaieran gizarte-bazterkeria Mendebaldeko gizarteek aurrez aurre izan zuten erronka handienetako bat izan zela, dimentsio askoko arazo bihurtuta baitzegoen; gizartea bitan banatzeko arriskua ere ikusten zen, gero eta gehiago hedatzen ari zelako. Euskal administrazio publikoak arazoaren larriaz ohartu ziren, kontua ez baitzen txirotasunari eta prekaritateari ordura arteko formulazio klasikoaren arabera aurre egitea bakarrik –nahiz eta horiek izan arazo agerikoenak–; errealitatea konplexuagoa zen, 1998ko Legearen zioen azalpenean honela definitzen baitzen: «... gizarte-eskubideak gauzatzeko ezintasuna edo gaitasunik eza da, batez ere lan egiteko eskubideaz baliatzeko ezintasuna, baina baita ere hezkuntza eta prestakuntza jasotzeko eskubidea, kultura, osasuna, etxebizitza duina izateko eskubidea edo gizarte-babesa jasotzeko eskubidea». Orduko testu hartan, Europako proposamenetan esaten zenarekin bat etorriz, azpimarratzen zen lanak garrantzi handia zuela gizarteratzeko orduan; izan ere, adierazten zen norbanakoaren eta gizartearen artean etena sortzen zenetan, hori batez ere norbanakoak produkzio-prozesuan ez parte hartzeagatik gertatzen zela, eta honela esaten zen: «Gure gizarte modernoan lana da gizartean eskubide eta betebeharrak eskuratzeko biderik hedatuena eta baita gizarteak pertsonarekiko gauza bera egiteko modua ere. Hori horrela izanik, lan egiteko eskubidea ezinbesteko eskubidea da oso-osoko herritar bihurtzeko, eta erabateko esanahia eskuratzen du, gainera, eskubide politikoen artean. Lan-merkatuan parte hartzen ez bada, edo oso neurri txikian hartzen bada parte, ia nahitaez bazterkeria nagusitzen hasiko da, eta horrek bete-beteko eragina izango du beste gizarte-eskubide batzuetan».

Ikuspegi hori izanda, gizarte-bazterkeriari aurre egiteko oinarrizko tresnetako batzuk sendotu egin ziren, eta tresna horiek izango zuten esparrua ere zehaztu egin zen, gutxika-gutxika babes-maila areagotzeko. Ahaleginak bi jarduera-ildo osagarritara bideratu ziren. Batetik, bazterkeria desagerrarazteko prozesu luzean ezinbestekoak ziren egiturazko aldaketak egiteari ekin zitzaion; eta horren barruan, enpleguaren arloko politikak garatzen hasi ziren, eta, zehazki esanda, langabeziari aurre egiteko ekimenak, lanbide-heziketa sustatzeko politikak -ikasleen

prestakuntza-maila eta -mota lan-merkatuan zeuden premien arabera izateko-, etxebizitza sozial gehiago izateko politikak, eskolan integrazteko ekintzak, eta babes sozialeko prestazioak sendotzea. Bestetik, bazterkeria-prozesu eta -egoeren ondorio sozial larri epe laburrean konponbidea eman nahi zitzaion, eta, horretarako, kaltetuenak ziren gizataldeei oinarritzeko premia materialak behintzat asetzeko moduko bizitza-maila bermatu.

Lan egiteko modu horrek gaurkotasuna izan arren, hori aplikatzeko testuingurua nabarmen aldatu da, neurri handi batean lehenago aipatu ditugun ekintza-ildoei esker; hori hala izanik, gizarte-arloko premietan bilakaera argia izan dela ikusten da, eta beste gertakari batzuk ere agertu dira:

– Bilakaera horren oinarritzeko osagaietako bat Euskal Autonomia Erkidegoko testuinguru sozioekonomikoan izandako aldaketa nabarmenak izan dira. Batetik, langabezia-tasek behera egin dute eta, era berean, okupazio-tasak igoera ikusgarria izan du; horrek ia enplegu beteko egoera lortzea ahalbidetu digu, munduko ekonomia oparotzeko zegoela. Bestetik, etxebizitzaren prezioak oso igoera handia izan du, bai jabetzakoena bai alokairukoena, eta, horren ondorioz, etxebizitza bihurtu da euskal familien arazo nagusietako bat. Esandakoaz gainera, Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatu diren etorkinen kopuruak ere nabarmen egin du gora, eta horiek osatzen dute, guraso bakarreko familien atzetik, txirotasun-arriskuan daudenen bigarren talde handiena.

– Garrantzitsua den beste osagai bat prekaritatearekin eta txirotasunarekin zuzenean zerikusia duten datuetan ikusten den bilakaera da. Datuek erakusten dutenez, luzera begira txirotasun-tasek bilakaera ona izango dute, baina, aldi berean, egonkortzera ere joko dute. Arazo handiena mantentze-txirotasunaren arriskuan daudenean dute, egoera hori konpontzeko errentak hobetu beharra baitaude, eta, horretarako, normalizatutako lanpostu bat eskuratu beharko lukete edo gizarte-prestazioak emateko politika behar beste egokitu beharko litzateke. Era berean, oso txirotasun larriaren tasek behera egin dute, baina, horrekin batera, egoera txarretan bizi diren herritarren bizi-baldintzek ere okerrera egin dute.

Ageri diren arazotako asko azken urteetan txirotasuna jasaten dutenek izandako aldaketarekin daude lotuta, eta aldaketa hori batez ere hiru arazoengatik gertatu da: guraso bakarreko familiek gero eta arazo ekonomiko handiagoak izateagatik, immigrazioagatik, eta lanpostu iraunkorrik ez duten gazteek bizitza independentea lortzeko arazoengatik.

Gizarteratzeko prozesuei dagokienez ere, datuek erakusten dute bilakaera positiboa izan dela. Gizarte-bazterkeria jasateko arriskua duten edo baztertuta dauden pertsonekin egindako segimendu-lanek erakusten dutenez, gutxika-gutxika bada ere, pertsona horiek gizarteratzen ari dira etengabe.

Beraz, eta orokorrean hitz eginda, emaitza positiboa da, eta zalantzarik gabe badago esatea txirotasun-tasak ez igoetzea eta txirotasun-modu larrienak murriztu izana politika publiko egoien ondorio direla, azken urteetan beste bultzada bat hartu dutelako politikok, eta muturreko txirotasun-egoerei eraginkortasunez aurrea hartzea ahalbidetu dutelako; baina, hala ere, bermatu beharra dago sistemaren sendotasuna krisi-egoeretan, horiek baitira herritarren ongizateari gehien eragiten diotenak. Dena den, eta politika publikoen bidez egiten ari diren ahaleginak berrorientatzeko, beharrezkoa da zenbait joera gogoan izatea, bilakaeraren ezaugarri kualitatiboak zein diren ikusteko aukera ematen baitu horrek:

– Txirotasuna emakumeek jasatea nagusiki, eta guraso bakarreko familiek. Txirotasun-moduetakoren bat bost aldiz gehiagotan agertzen da emakume baten ardurapean dauden familietan, eta, gainera, joera horrek azken urteetan zertxobait gora egin duela ikusten da. Era berean, txirotasun-modu bat edo beste sarriago ageri da guraso bakarreko familietan; izan ere, familia-mota horiek dira, batez ere emakume baten ardurapean daudenean, ondorengo ezaugarriak dituztenak

gainontzeko ereduakin alderatuta: langabezia-tasa bereziki handiak, lan-prekarietatea, erreferentziako pertsonen diru-sarrerarik ez izatea, etxebizitza lortzeko arazo larriak, eta diru-sarrera gutxi izateak sortutako arazo larriak.

– Txirotasuna lurralde edo eremu jakin batzuetan agertzea. 2000. urtetik hona, txirotasuna hirietan pilatzeko joera nabari da, eta arriskua dakarten egoerak nagusiki Autonomia Erkidegoko hiru hiriburuak dauden eskualdeetan ageri direla ikusten da.

– Ezkutuko txirotasuna eta emantzipatzeko arazoak. Gazteek emantzipatzeko zailtasun handiak dituzte, arazo ekonomikoen ondorioz, eta etxebizitza lortu ezina da bizileku independentea abiarazteko oztopo nagusia.

– Soldata apalekin zerikusia duen txirotasuna. Nahiz eta Euskal Autonomia Erkidegoa batez besteko soldata handienak dituen autonomia-erkidegoetako bat izan, eta soldaten artean alde txikiena duenetako bat, datuek erakusten dute lana izan baina soldata apalak dituzten pertsonen osatzen dutela Euskal Autonomia Erkidegoan uste izatekoa den gutxieneko ongizate-mailara iristeko arazo handienak dituztenen arteko talde handiena. Hori hala izanik, txirotasunarekin eta ongizaterik ezarekin zerikusia duten arazo handien jatorria lan-arloko behin-behinekotasunari loturik dago, eta hori ez da ikusten enpleguaren ezegonkortasun-tasa handietan bakarrik; horrekin batera, soldata apaleko langile-kopuru handian ere ageri da.

II

Errealitatean bilakaera hori gertatzen ari denez, eredia birformulatu beharra dagoela ikusten da, bi helburu orokor dituela: batetik, bitartekorik egokienak jarri behar dira, sortu diren premia berriei erantzun egokiagoa emateko modua izateko; bestetik, dagoeneko badiren tresnetako batzuk ezartzean hautemandako okerrak konpondu beharko dira. Ikuspegi bikoitz hori izanda, legegileak ondorengo helburu zehatzak lortu nahi ditu:

– Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema indarrean jartzea, sistema autonomo gisa, osotasun koherente eta integratu bat duela. Hainbat kudeaketa-formula egon daitezke; gaur egun gizarte-zerbitzuen eta enplegu-zerbitzuen barruan daude, baina aurrerantzean, egoki iritziz gero, beste jarduera-eremu batzuetan sar litezke, osorik edo zati batean.

– Ereduaren oinarriak jartzea, kontzeptuen, egituraren eta antolaketaren ikuspegitik eredurik onena aukeratzeko eta, horrela, eskubideak baliatuko direla bermatzeko. Oinarri horiek, beren diseinu eta malgutasunari esker, aukera eman behar dute, dauden baliabideen mugak kontuan izanda betiere, eskaintzen den babesa gero eta handiagoa izateko; horretara iristeko, sistemak eskaintzen dituen tresnak bata besteari lotuz aplikatu beharko dira, eskubideak gero eta unibertsalagoak izateko bidean pixkanaka aurrera eginez.

– Irtenbide zehatzekin erantzutea gero eta sarriago ikusten den egoerari, hau da, ematen den prestazioa gutxien irabazten dutenei diru-sarrerak osatzen laguntzeko izatea gero eta gehiago, eta hartzaileak arazo soilik ekonomikoak dituztenak izatea, gizarteratzeko laguntza espezializaturik behar ez dutenak, beraz. Hartzaile izan daitezkeenetan ikusten den bilakaera hori hiru eragileren ondorioa da: batetik, lan-merkatuaren prekarizazioa eta soldata apaleko lanpostuen kopuru gero eta handiagoa; bestetik, prestazioa eskuratu ahal izateko muga ekonomikoa gorago jarri da, eta, hori dela-eta, familia-unitate batzuek hura eskuratzeko aukera eduki dute diru-sarrera batzuk izan arren; azkenik, prestazioa eskuratzeko gehienezko adina ezabatu egin da, eta, horri esker, pentsiodun izan arren bizimodu duina izateko behar den diru-sarrera eta baldintzarik ez duten pertsonak ere balia daitezke prestazioaz. Aldaketa horiek hor daudela gogoan izanda, badi-rudi prestazio-modu bat baino gehiago diseina eta antola daitezkeela eta komenigarriak direla,

eta, zehazki esanda, norberaren diru-sarrerak osatzeko prestazio-moduak aurreikus daitezkeela eta komenigarriak direla, betiere zer-nolako diru-sarrerak diren kontuan izanda –lan-errentak edo pentsioak–; prestazio horiek kudeaketa azkarragoa izan beharko lukete, eta, hala, neurri batean oinarrizko gizarte-zerbitzuetako profesionalen lana arintzeko balioko lukete, eta gizarteratzen lagunduak izateko behar handiena dutenengana zuzendu ahalko lituzkete beren ahaleginak profesional horiek.

– Beharrezko baliabideak jartzea herritar guztiek tratu bera jasotzen dutela bermatzeko; horretarako, gizarteratzeko eta diru-sarrerak bermatzeko dauden tresnak Autonomia Erkidego guztian berdin garatuko direla ziurtatu beharko da, eta gaur egun horien hedaduran ikusten diren ezberdintasunetako batzuk ezabatu egin beharko dira, alde horiek neurri batean baino ezin baitira zuritu, txirotasunak edo langabeziak lurralde historiko batean edo bestean eragin handiagoa duela oinarri hartuta.

– Prestazio ekonomiko osagarrien sistema egonkor bat antolatzea, hain zuzen ere diru-sarrerak bermatzeko errenten onuradunek etxebizitzaren egiturazko gastuekin zerikusia duten gastuei aurre egiteko modua izan dezaten. Hori hala eginda, gizarte-larrialdietarako laguntzak ohiz kanpoko gastuak ordaintzeko erabiltzeko modua egongo litzateke, eta egiturazkoa den arazo bati, aldi batean behintzat, erantzun egonkorra emango litzaioke, gaiari modu integralagoan heltzen zaion artean; modu integralagoan, etxebizitzaren arloko politika publiko baten bidez helduko litzaioke, lotura zuzena baitu halako politikak babes sozialaren helburuekin.

– Gizarteratzeko modurik onena enplegua dela iritzita, lan-merkatuan sartzea erakargarri bihurtuko duen eredu bat ezartzea, nahiz eta soldata apaleko lanpostu baten bidez sartu merkatu horretan. Horrela, bestalde, Europako Enplegu Estrategian gizartearen kohesioa eta laneratzea lortzeko dauden jarraibideak beteko lirateke.

– Gizarteratzea helburu duten zerbitzu espezializatuen garapena sustatzea, eta arlo horretan diharduten eragile guztien lana koordinatzea ere bai, kontuan izan behar baita gizarte-ongizateko beste esparru batzuetan baino are dispersio eta aniztasun handiagoa dagoela hor.

III

Euskal Herrirako Autonomia Estatutuaren abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren 9. artikuluan orokorrean ezarritakoaren arabera, euskal aginte publikoek, beren eskumenen eremuan, hartu beharreko neurriak hartuko dituzte herritarren eta herritarrok osatzen dituzten taldeen askatasuna eta berdintasuna benetakoak izan daitezen, horretarako baldintzak sustatuta eta kendu beharreko oztopoak kenduta; horrekin batera, eta 10. artikuluan esaten denez, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen eskusiboa izango du gizarte-laguntzaren arloan, Konstituzioaren 148.1.20 artikuluan esaten dena oinarri hartuta.

Eskumen horietaz baliatuta, Eusko Legebiltzarrak Gizarte Bazterkeriaren aurkako maiatzaren 22ko 12/1998 Legea onartu zuen, zegokion lurralde-eremuan pertsonaren bazterkeriari nahiz gizarte- edo lan-arloko bazterkeriari aurre egiteko beharrezkoak ziren jarduerak bultzatu eta prestazio ekonomikoak eta gizarte-arloko tresnak arautzeko, eta bizimodu independentea izateko behar beste baliabide pertsonal, sozial edo ekonomiko ez zutenei gizarteratzen laguntzeko. Horren ostean, eta berrikiago, legebiltzar berak, sistema progresiboki denengana iristea lortzeko eta gizarte-arloko premiek izandako bilakaerari politika publikoen bidez hobeto erantzungo zitzaiela bermatzeko, abenduaren 27ko 10/2000 Legea onartu zuen, Gizarte Eskubideen Agiriarena, eta, horri esker, oinarrizko errenta deiturikoa euskal babes-sisteman txertatu zen.

Esparru juridiko hori egituratzea eta sendotzea ahalbidetu duten eskubide berak baliatuz, oraingo lege honen bidez legegileak indarrean diren tresnak berrantolatu nahi ditu, eta horiek guztiak elkarri lotzeko modua hobetu ere bai, osatzeaz gainera, hain zuzen ere beharrianetan izan diren aldaketetara eta gizarteak izandako bilakaerara egokitzeko.

Hori eginda, Eusko Legebiltzarrak 2006ko otsailaren 23ko bileran agindu zuena bete baino ez da egin; izan ere, orduan onartu zuen ebazpenean, Eusko Jaurlaritzari eskatu zion berrius zezala Gizarte Bazterkeriaren aurkako Legeak eta Gizarte Eskubideen Agiriak osatzen zuten lege-esparrua, bi arau horien xedearen eta edukiaren egokitzapen normatiboa eginez. Legegileen agindu hori berriro berretsi zen Lan eta Gizarte Gaietarako Batzordean, 2007ko azaroaren 26an izandako bileran, hain zuzen ere Gizarteratzeko Erakunde arteko II. Plana (2007-2009) eztabaidatu ostean.

Lege honetan jaso den testu berriarekin, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema abiarazteaz gainera, funtsezko bi berrikuntza ere sartu dira egituran:

– Lehen berrikuntzarekin, diru-sarrerak bermatzeko errentaren bidez, ezberdinak diren bi modalitate sartu dira, oinarrizko bi irizpideren arabera: batetik, bizikidetz-unitateak lanetik datorren diru-sarrerarik duen edo ez ikusi behar da, eta, bestetik, modalitate horietako bakoitza gizarteratzeko hitzarmenen bati loturik dagoen ikusi behar da. Hala, hauek dira modalitateak:

– Alde batetik, gizarteratzeko eta gizarte-babeserako oinarrizko errenta. Lan-errentetatik datozen baliabide ekonomiko propiorik ez duten pertsona eta bizikidetz-unitateentzat izango da nagusiki, baldin eta hileroko dituzten diru-sarrerak gizarteratzeko eta gizarte-babeserako oinarrizko errentara iristen ez badira. Prestazio horrekin batera, laguntza espezifikoko batzuk ere emango dira, gizarteratzen eta/edo laneratzen laguntzeko, gizarteratzeko hitzarmen baten barruan, salbu eta dagokion gizarte-zerbitzuak, beharrianen diagnostikoa egin ondoren, besterik irizten badio. Gizarteratzeko eta gizarte-babeserako oinarrizko errenta lanbide arteko gutxieneko soldataren mailara iritsiko da bizikidetz-unitatea pentsiodunek osatua badago eta, maila hartara ez iristea-gatik, beren diru-sarrerak eta egoerak bizimodu duina izateko biderik ematen ez badiete, eta, gainera, une horretan lan-merkatuan sartzeko moduan ez badaude.

– Eta, beste aldetik, laneko diru-sarrerak osatzeko errenta. Laneko errentarik izan arren, hileroko irabaziak gizarteratzeko eta gizarte-babeserako oinarrizko errentaren azpitik geratzen zaizkien pertsonentzat izango da. Prestazio horrekin batera, enplegu-zerbitzuen bidez, laguntza espezifikoko batzuk aplikatuko dira pertsona horien lan-egoera hobetzen laguntzeko, eta, gizarte-zerbitzuak egoki edo beharrezko irizten dionean, gizarteratzen laguntzeko bestelako laguntza batzuk ere bai.

Diru-sarrerak bermatzeko errenta bi modalitatetan banatzearen helburu nagusia sistema kudeatzerakoan azkartasun handiagoarekin aritzea da. Kontuan izan behar da ez direla bestelako prestazio batzuk sortu; orain arte zeuden hainbat egoera, oso desberdinak, antolatu eta argitu egin dira, lehen ez baitzen haien artean bereizkuntzarik egiten oinarrizko errentaren kontzeptuaren barruan.

– Bigarren osagai berritzaileetako bat etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarria da. Duen helburua da premiarik handiena dutenei, hau da, diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen dutenei, etxebizitza eskuratzen laguntzea. Beraz, orain artean gizarte-larrialdietarako laguntzen bidez aurre egindako hainbat beharriari aurrerantzean prestazio honekin egingo zaie aurre, baina alde nabarmen bat egongo da, hemendik aurrera eskubidea izango baita hori jasotzea. Prestazio hau sartuta, gainera, beren ezohiko izaera itzuliko zaie gizarte-larrialdietarako laguntzei.

Diru-sarrerak bermatzeko errenta premia dutenei babesa eta laguntza eskaintzeko da, eta errenta-mota hori ezartzeko eta garatzeko oinarria Euskal Autonomia Erkidegoak gizarte-laguntza

emateko duen eskumenean dago; izan ere, errenta horren bidez aurre egiten zaien egoera guztien ezaugarria da bizikidetzaren unitateak ez duela behar beste diru-sarrera, alde batera utzita nolabaiteko diru-sarrerarik duen ala ez, eta, izanez gero, nondik datozen sarrera horiek. Gizarteratzeko eta gizarte-babeserako oinarrizko errentaren helburua, pentsioen titularrek eta haien ardurapean dauden beste pertsona batzuek osatutako bizikidetzaren unitateei dagokienez, ez da pentsioak osatzea, baizik eta laguntza espezifikoa bat ematea haien diru-sarreraren urritasuna arintzeko. Era berean, laneko diru-sarrerak osatzeko errentaren kasuan, azken helburua ez da hark soldata-plus baten edo langabeziako sorospenez egitekoa betetzea, baizik eta laguntza espezifikoa bat ematea, kasu honetan soldata apalak eragindako diru-sarreraren urritasuna arintzeko.

Etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarriari dagokionez, horrek gizarte-arloko eskumenean du oinarria gaur egun, eta epe jakin batean baino ez du jarraituko Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren barruan: harik eta etxebizitzaren arloko politika publikoetan antzeko neurriak edo bestelako batzuk zehazten diren arte, kaltetuenak eta ahulenak diren gizataldeek etxebizitza eskuratzeko modua izan dezaten.

Eskumenean esparruari dagokionez azken kontu nabarmengarri bat da bai diru-sarrerak bermatzeko errenta eta bai etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarria laguntza subsidiarioak eta, hala badagokio, osagarriak izango direla indarreko legerian aurreikusten diren era guztietako baliabide eta prestazio ekonomikoak dagokienez, horiek titularrari edo haren bizikidetzaren unitateko edozein kideri legezkioketean. Beste modu batean esanda, prestazio horiek azkeneko babes-maila izango dira, eta, ondorioz, ezin izango dira beste prestazio edo laguntza batzuen bidez osatu. Agindu hori eman zuen Eusko Legebiltzarraren Osoko Bilkurak, 2005eko azaroaren 23ko bileran, honako hau adierazi zuenean: «... oinarrizko errenta Eusko Jaurlaritzaren eskumena da. Horren finantzamendua, beraz, beti berari behar zaio izendatu, eta saihestu egin behar da beste erakunde batzuek esleipen osagarriak egitea, esleipen horiek ez baitakarte Euskal Autonomia Erkidegoan prestazio horretarako eskubidea duten herritarrak desberdin tratatuak izatea besterik». Lege honen bidez itun sozial bat lortu nahi da, errenten birbanaketa berma dadin, prestazio batzuk eta besteak koherenteak izan daitezten eta herrian herriko edo lurraldeetako egoera jakinen arabera ezberdintasuna sortuko duen urratsik egin ez dadin.

IV

Legearen egiturari eta edukiei dagokienez, zazpi tituluetako lehenengoa xedapen orokorreki buruzkoa da, eta sistemaren oinarrizko osagaiak definitzen ditu:

– Hasteko, legearen xedea definitzen du. Xedea Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema arautzea da, eta, horren barruan, beharrezko prestazio ekonomikoak eta tresnak izateko eskubidea arautzea, herritar izateak dakartzan eskubide sozialak benetan baliatzeke orduan behar beste baliabide pertsonal, sozial edo ekonomiko ez dutenei laguntzeko, bai bazterkeria-arriskuari aurre egiten, bai bazterkeria pertsonala, soziala eta laborala arintzen, bai gizarteratzea errazten.

– Horren ostean, oinarrizko helburuak aipatzen dira. Batetik, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema sistema autonomo gisa eratu nahi da, eta, hori kudeatzeko, gizarte-zerbitzuek eta bereziki enplegu-zerbitzuek elkarlanean jardungo dute, beste jarduera-eremu publiko batzuetako zerbitzuekin batera. Bestetik, sistema horren funtzionamendurako printzipioak eta egituraren oinarriak jarri nahi dira, eskaintzen duen babesa gero eta zabalagoa izan dadin. Azkenik, sistemaren barruan diren prestazio ekonomikoak eta gizarteratzeko tresnei dagokienez, herritarrek horiek berdintasun- eta ekitate-irizpideen arabera eskuratzeko modua bermatu nahi da, gaur egun lurralde batetik bestera ikusten diren aldeak zuzentzeko bitartekoak jarritz.

– Legearen 3. artikulua sistemaren oinarri eta gidari diren printzipioei buruzkoa da. Giltzarria da sistemaren egituran, haren oinarri filosofiko eta kontzeptuala eta funtsezko jarraibideak zehazten baititu. Gure inguruan dagoeneko finkatuta dauden printzipioetako batzuk kontuan hartzeaz gainera –hala nola, erantzukizun publikoa, unibertsaltasuna, gizarteratzeko politiken zeharkakotasuna, elkartasuna, zerbitzu eta prestazioak eskuratzerakoan edo horiek aplikatzerakoan berdintasunez eta ekitatez aritzea, arreta pertsonalizatu eta integrala eskaintzea, arretaren jarraitutasuna, baliabideen kalitatea eta optimizazioa, euskal administrazio publiko guztien koordinazioa eta inplikazioa, parte hartzea eta genero-ikuspegia integratzea, eta emakumeak laneratzeari lehentasuna ematea–, testuak printzipio berriak jasotzen ditu, ereduak izango dituen ezaugarrientzat oso erabakigarriak:

– Eskubide bikoitzaren printzipioa finkatzea. Eskubide bikoitzaren printzipioa dela-eta, bi eskubide aitortzen dira: bizitzako oinarrizko premiei aurre egiteko baliabide ekonomikoak izateko eskubidea, lanaren bidez edo babes edo laguntza sozialerako dauden bitartekoen bidez baliabide horiek lortzerik ez dagoenean, eta, horrekin batera, laneratzeko eta gizarteratzeko laguntza pertsonalizatua jasotzeko eskubidea, gizarteratzeko hitzarmen batean derrigorrez parte hartuz. Hala jardunda, Administrazioaren eta bazterkeria jasaten duen herritarraren arteko elkarrekikotasunaren printzipioa gauzatuko da, hain zuzen ere Lisboan, Nizan eta Aalborg-en Europako erakundeek egindako gomendioen ildotik; horien arabera, oso lotuak daude oinarrizko errentarako prestazio ekonomikoak eta lan egiteko eskubidea.

Horrela, eskubide bikoitzaren ereduak lotura-mota berria ezartzen du prestazio ekonomikoaren eta gizarteratzeko jardueren artean, eta bi logika ezberdin daudela aitortzen da. Bi eskubide horiek bereizteak dakarrena da prestazio ekonomikoa jasotzeko eskubidea aitortuko zaiela behar beste baliabide ekonomiko ez dutenei, nahiz eta arazo bakarra hori izan, hau da, beren borondatearekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik gutxieneko diru-sarrerak izatera ez iristea; gerta liteke pertsona horiek gizarte-bazterkeriarik ez jasatea eta, horren ondorioz, gizarteratzeko bestelako laguntzen premiarik ez izatea.

– Enpleguaren nagusitasuna gizarteratzeko tresna gisa. Gizarteratzeko oinarrizko eginkizuna aitortzen dio ereduak enpleguari gurea bezalako gizarte batean, eta, hori hala izanik, kaltetuenak diren giza taldeetan langabezia-tasak eta beste talde batzuetan jarduerarik ezaren tasa handiak gutxitu beharra azpimarratzen da. Hori dela-eta, eta zenbait pertsonarentzat laneratzeko helburua oso urruti gelditzen dela aitorturik ere –eta beharrezko zerbitzu eta prestazioak eskuratu beharko dituztela pertsona horiek–, araudi honen atzean, azken batean, ahalik eta pertsona gehienei laneratzen laguntzeko helburu orokorra dago, eta, helburu horrekin bat etorrira, lan-merkatuari gizarteratzen laguntzeko duen gaitasuna aitortu nahi zaio berriz ere.

– Gizarte-arloko politikak aktibatzea eta enplegua errentagarri egitea. Euskal Autonomia Erkidegoan aplikatu izan diren gizarte-arloko politikek –bereziki gizarte-bazterkeriaren aurkakoek– hasiera-hasieratik bere gain hartu duten erronketako bat, hain zuzen, aktibatzea bera izan da, eta hori erakusten du gizarteratzeko eta laneratzeko beharrezko laguntzak Administrazioetik jasotzeko eskubidea aitortzeak.

Azken urteotan gure inguruan aktibatzea bultzatzeko hartutako ohiko neurriekin batera –prestakuntza, orientazioa eta bitartekaritza, enplegu sozial babestua, edo kontratazioa bultzatzeko laguntza, aipagarrienen berri ematearren– eta laguntza-politikak aktibatzekeko helburuaren barruan, arreta handia jarri da laneratzea aukera erakargarria edo errentagarria izan dadin, bai gutxieneko errentak jasotzen dituztenentzat bai lanik gabe dauden pertsonentzat. Areago, esan daiteke ere politika horien garapena dela azken urteetan Mendebaldeko herrialdeetan gizarte-arloko politiketan izandako berrikuntza nagusia -eta hori berresten du, hain zuzen ere, Europako enplegu-politiken

barruan, 2003az geroztik Europar Batasuneko Kontseiluak enplegua erakargarriagoa izan dadin zerga- eta finantza-pizgarriak sustatu izanak-, eta horrek paradigma aldatzea ekarri du, «welfare to work»-etik «welfare in work»-era pasatu baita, lan-merkatuan parte hartzeari loturik dauden prestazio ekonomikoak garatzearen bidez -«in work benefits»-.

Era horretako politikak garatzen badira, eragina positiboa izan daiteke laneratzea bultzatzeko, eta, batez ere, errenta birbanatzearen ikuspegitik edo soldata apalak dituzten langileak babes-tearen ikuspegitik; horrela, enpleguak txirotasunari aurre egiteko tresna gisa duen gaitasuna berreskuratuko luke eta gizarteratzeko lanabes pribilegiatua izango litzateke.

Neurri horiek garatzea badirudi bereziki egokia dela Euskal Autonomia Erkidegoa bezalako testuinguru batean, gero eta tarte txikiagoa baitago oinarrizko errentaren eta lanbide arteko gutxieneko soldataren artean, eta horrek nahasketak eragin litzake prestazio horiek eskatzeko orduan eta lan-merkatuak funtzionatzeko eran. Gainera, lanpostuak ekonomia formalean izatea eskatuko balitz era horretako laguntzak eskuratzeko, agerikoa ez den enpleguaren zati bat azaleratzen ere lagun lezake horrek.

– Printzipio gidariak zehazturik, legeak Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema arreta pertsonalizatuko eta gertutasunezko ereduaren barruan txertatzen du, arretari buruzko ikuspegi komunitarioari dagokion bezala, eta sistemaren osagai nagusiak definitzen ditu: prestazio ekonomikoak, horien barruan eskubidezko prestazio ekonomikoak eta diru-laguntzak direla, eta gizarteratzen eta laneratzen laguntzeko diren tresnak. Azken horien barruan, batetik, gizarteratzeko hitzarmena sartzen da, era bateko eta besteko ekintzak antolatzeke oinarrizko tresna gisa, eta, bestetik, esku hartzeko neurri espezifikoak ere badira, hala nola programa, zerbitzu edo zentroak, babes sozialeko arlo batzuek eta besteek antolatuak, bereziki gizarte-zerbitzuek, enplegu-zerbitzuek, osasun-zerbitzuek eta etxebizitzaren arloko zerbitzuek; neurri horiek guztiak modu konbinatuan aplikatzeko modua egongo da, gizarteratzeko hitzarmen baten barruan.

– Xedapen orokorretan, bukaeran, eskubidea baliatzeko gakoa diren bi osagai arautzen dira; batetik, lege honi dagokionez, etxebizitzatzer zer hartuko den zehazten da, eta, bestetik, bizikidetza-unitatetzatzer zer joko den.

Logikoa denez, bizikidetza-unitatea ereduaren oinarrizko osagaietako bat da, horren definizioa erabakigarria baita prestazio bakoitzak eskainiko duen babes-mailarekin. Emandako definizio berriarekin, orain arte indarrean egon den araudia ezartzerakoan sortutako zailtasun handi batzuk konpondu nahi dira, eta berrikuntza bi alderdi osagarriari esker lortu da:

– Batetik, aldaketa bat egitea proposatzen da, eredia unibertsala izateko bidean aurrera egitea dakarrena, eta, aldaketa horren arabera, ordaindutakoaren arabekoak diren edo horren arabekoak ez diren pentsioen titular guztiak, ekonomikoki beren mende dauden guztiekin batera, bizikidetza-unitatetzatzer hartuko dira.

– Bestetik, kontrol-neurriak jartzen dira, bizikidetza-unitatea osatzeko baldintzak itxuraz formalki bete arren benetan betetzen ez dituztenek prestazioa eskuratu ez dezaten.

II. titulua prestazio ekonomikoak arautzeari buruzkoa da, eta honako bost kapitulu hauetan banaturik dago, hurrenez hurren: prestazio ekonomiko bakoitzak dituen ezaugarriak; baliabide-maila zehaztea; prestazioen araubide ekonomikoa; bateragarritasunak eta bateraezintasunak; eta, azkenik, prozedurari buruzko arau komunak.

– Zer-nolako prestazio ekonomikoak egongo diren eta horien ezaugarriei dagokienez:

– Diru-sarrerak bermatzeko errenta eskubide subjektiboa izango da, eta «aterki» gisako prestazioa; bere barruan, lehenago ere esan denez, bi modalitate egongo dira, era askotako kolektiboek zuzendurikoak eta gizarteratzeko hitzarmenarekiko lotura ezberdina izango dutenak.

Prestazioaren zenbatekoari dagokionez, prestazioaren gehienezko zenbatekoa, gizarteratzeko eta gizarte-babeserako oinarrizko errentaren eta laneko diru-sarrerak osatzeko errentaren modalitateetan, lanbide arteko gutxieneko soldataren % 88 izango da, kide bakarrekoak diren bizikidetzak-unitateen kasuan, eta lanbide arteko gutxieneko soldataren % 125, hiru kidek edo gehiagok osatzen dutenean bizikidetzak-unitatea. Gehienezko kopuru horiek berdinak badira ere bi modalitateetarako, laneko diru-sarrerak osatzeko errentaren kasuan, lanerako bultzagarria sendotze aldera, norberaren edo besteren kontura lan egiteagatik izandako diru-sarreraren ehuneko jakin batzuk ez dira zenbatuko aldi batean. Premia-egoeran dauden pentsiodunek osatutako bizikidetzak-unitateei dagokienez, gizarteratzeko eta gizarte-babeserako oinarrizko errenta ordainduko zaie baldin eta hilero jasotzen dutena lanbide arteko gutxieneko soldata baino gutxiago bada; errenta horren zenbatekoa, gehienez ere, lanbide arteko gutxieneko soldataren % 100 izango da, kide bakarreko bizikidetzak-unitateen kasuan, eta % 135, bizikidetzak-unitatea hiru kidek edo gehiagok osatzen badute.

Gainera, eta legean aurreikusten denez, zehaztu diren gehienezko kopuru horiek beste subsidio ekonomiko batekin osatzeko aukera egongo da, guraso bakarreko bizikidetzak-unitateak diren kasuetan; erregelamendu bidez zehaztuko da zenbatekoa izango den kopuru hori.

Diru-sarrerak bermatzeko errentaren hartzailen egoera era askotakoa izan daitekeenez, eta askotarikotasun hori egoteak modalitate batetik bestera sarritan aldatzea dakarrenez, legeak bide jakin bat zehazten du aukera batetik bestera modu automatikoan aldatzeko, egoeran edo baldintzetan izandako aldaketan arabera; eta hori egiteko ez da beharrezkoa izango modalitate bat azkentzea eta beste batean sartzeko eskatzea, aldaketa nabarmen eta erabakigarri bat gertatzen den bakoitzean.

Bestalde, eta izapideak arinagotzen laguntzeko ere, prestazioaren kopurua zehazteko orduan oinarritzat hartutako egoera ekonomikoan izandako aldaketan ondoriozko egokitzapenak jasotzeko, malgutasunez jokatu da laneko diru-sarrerak osatzeko errentaren kasuan, eta, hala, aipatutako aldaketak erregelamenduz zehazten den tartetik behera daudenean, ez dira aldaketatzat joko. Era berean, aldaketak izaten diren kasuetan, aldaketa eragin duen gertakaria izan eta hurrengo hilaren 1etik aurrera sartuko dira indarrean aldaketa horren ondorioak.

Halaber, prestazioa benetan hartzailak jasoko duela bermatzeko eta, ahal den neurrian, gehiegikeriei edo justifikatu gabeko kroniko bihurtzei aurre egiteko modua izateko, kontrol-neurri zehatz batzuk ezartzen dira:

– Testuan esaten denez, diru-sarrerak bermatzeko errenta gehienez bi urtez jaso ahal izango da, modalitatea edozein delarik ere, baina beste bi urterako berrituko da, prestazioa ematea eragin zuten arrazoiek bere horretan badiraute, eta hura jaso ahal izateko baldintza ekonomikoak eta bestelakoak ere betetzen badira.

– Bestalde, erregelamendu bidez garatzeko utzita, arautzen da diru-sarrerak bermatzeko zenbat errenta jaso ahal izango diren etxebizitza edo bizitoki bakar batean, bi bizikidetzak-unitate edo gehiago elkarrekin bizi direnean.

– Testuan, gainera, prestazioa jasotzeko eskubidea zergatik azkenduko den ere arautzen da, eta, aurreikusten denez, eskubidea azkentzeko arrazoia betebeharrak ez betetzea edo arau-haustek egitea izan bada, titularrak ezin izango du berriz ere diru-sarrerak bermatzeko errenta eskatu,

edozein izanik ere modalitatea, eskubidea azkendu den unetik urtebete igaro arte. Ondorio bera izango luke ondoko ondoko 18 hilabete baino luzeagoko etenaldi batek eragindako eskubide-azkentzeak, edo prestazioak dirauen bi urteko epeetako edozeinetan ez-betetzeagatik hiru etenaldi izateak eragindako azkentzeak.

– Bestalde, etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarria aldizkako prestazio gisa arautzen da, diru-sarrerak bermatzeko errentaren edozein modalitatearen osagarri moduan, eta prestazio horien titularren ohiko etxebizitzak edo bizitokiak eragindako beharrezan aurre egiteko izango da, hau da, alokairu-gastuei aurre egiteko, betiere beharrezan frogatu eta egiaztatu badira. Diru-sarrerak bermatzeko errentarekin gertatzen den moduan, haren osagarri den prestazio hau eskubide subjektiboa izango da, helburu jakin baterako, eta zertarako eman den, horretarako baino ezin izango da erabili. Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza-politiketako plangintza estrategikoan kontuan hartuko da etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarriaren jasotzaileen lehentasuna.

Prestazio honi dagokionez, arauak hainbat muga ezartzen ditu:

– Esate baterako, ezin izango dira eskubidearen titular izan jabetzan edo alokairuan babes publikoko etxebizitza-motaren bat dutenak, eskubidea egitean indarrean dagoen legerian aurreikusitakoaren arabera; eta, era berean, alokairu-gastuei aurre egiteko etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarria ere ezin izango dute jaso etxea jabetzan dutenek.

– Bestalde, titular bat baino gehiago batera gertatzen direnekoa arautzeko orduan, legeak aurreikusten du erregelamendu bidez gehienezko muga bat ezarriko dela etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarria etxebizitza edo bizitoki bereko zenbat bizikidetzaren unitatek eskura dezaketen zehazteko.

– Gizarte-larrialdietarako laguntzen bidez osatzen da prestazio ekonomikoen tresna. Prestazio horiek ez dira aldizkakoak, diru-laguntza gisa ematen dira, eta gizarte-bazterkeria prebenitu, saihestu edo arintzeko behar diren gastu espezifikoak, ohikoei nahiz ezohikoei, aurre egiteko aski baliabide ez dutenei zuzendurik daude.

Kasu honetan ere legeak zenbait muga jartzen ditu, laguntzak eskatu eta jasotzeko modua izateko. Batetik, legean esaten da erregelamendu bidez arautuko dela ohiko etxebizitza edo bizitoki berean gehienez ere zenbat laguntza jaso daitezkeen. Bestetik, ondoko titulartasun-aldietan laguntzak zenbat denboran jaso ahalko diren zehazten da; denbora hori desberdina izango da aurre egin behar zaion gastuaren arabera.

– Baliabide-maila zehaztea arautzean, bi ezaugarri dira nabarmentzekoak: errendimenduak zein diren zehaztean, eta diru-sarrerak bermatzeko errentari dagokionez, diru-sarrera batzuk eta helburu jakin baterako diren zenbait prestazio sozial ez zenbatzeko aukera egongo da, eta, laneko diru-sarrerak osatzeko errentaren kasuan, baita laneko errendimenduaren ehuneko jakin batzuk ez zenbatzeko aukera ere. Bestalde, norbaiten ondarea zein den zehazterakoan, ez da ondareztat hartuko haren ohiko bizileku den etxebizitza edo dena delako bizitokia, non eta ez den aparteko balioa duen etxebizitza bat hark jabetzan duena.

– Jaso behar ez zirela jasotako prestazioek zer-nolako tratamendua izango duten arautzeaz gainera, preskripzio- eta iraungitze-epetarako buruzko xedapenak ere jasotzen ditu prestazioen araubide ekonomikoak. Horrekin batera, eskura diren diru-sarreraren baturak eta jasoko diren laguntza ekonomikoek urteko gehienezko muga batzuk izango dituzte zehaztuta, eta, hala, urte berean diru-sarrerak bermatzeko errenta, etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarria eta gizarte-larrialdietarako laguntza jasotzea egokitzen bazaio titular bati, konbinatuta eta/edo bata bestearen atzetik, horien gehienezko zenbatekoa titular horrena bezalako bizikidetzaren unitate bati

urtean zegokiokeen gizarteratzeko eta gizarte-babeserako oinarritzko errentaren % 200 izango da, eta orobat % 200 gizarte-larrialdietarako laguntzak baino jasotzen ez diren kasuetan.

– Laugarren kapituluaren bateragarritasun eta bateraezintasunei buruzko araubidea ezartzen da, eta II. titulua prozedurari buruzko arau orokorrekin amaitzen da. Esparru horretan, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren barruan diren prestazioak kasu guztietan udaletako gizarte-zerbitzuetan eskatu beharko direla aurreikusten da, eta gizarte-zerbitzu horien eginkizuna izango da, era berean, eskaerok izapidetzea ere. Dena den, eta posible den kasu guztietan, etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarria eta horrek osatzen duen diru-sarrerak bermatzeko errenta aldi berean izapidetzeko ahalegina egin beharko da. Prestazioa eman edo ukatzeari buruz ebaztea foru-aldundien eskumena izango da, eskatu dena diru-sarrerak bermatzeko errenta bada –errenta horren bi modalitateetan– edo etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarria bada; gizarte-larrialdietarako laguntzen kasuan, eskabidea aurkeztu den udalerriko udalarena izango da ebazteko eskumena.

Aurreikusi den prozeduraren arabera, espedienteak izapidetzerakoan lortutako datuak isilpean gorde beharko dituzte euskal administrazio publikoek, eta, horretarako, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan esaten dena bete beharko da. Ondorioa da administrazio publikoek elkarlanean aritzeko betebeharrak orokorra daukatela, eta, hori hala izanik, beharrezkoa dela komunikazioa bideratzeko modua izatea, etengabe eguneratutako informazioa azkar igortzeko eta euskal administrazio publikoen artean zenbait informazio-mota elkarbanatzeko modua edukitzeko, baldin eta arreta eskaintzen zaion pertsona ados badago eta egoki iritzitako segurtasun-neurri guztiak zehazten badira.

III. tituluan gizarteratzeko tresnak arautzen dira, eta horietan ondorengo bereizkuntza egiten da: batetik, gizarteratzeko hitzarmenak daude; bestetik, gizarteratzeko eta laneratzeko programak eta zerbitzuak, eta, horietan, gizarte-babeseko arlo guztietan esku hartzeko dauden neurri espezifikoak biltzen dira, bereziki enplegu-zerbitzu, gizarte-zerbitzu, osasun-zerbitzu eta etxebizitza-zerbitzuetakoak, lehen bietakoak batez ere.

Eredua beste modu batean formulatze honetan, ezinbestekotzat jo da gizarteratzearekin zuzenean loturik dauden tresna batzuei protagonismo handiagoa eskaintzea, nahiz eta ez izan tresna ekonomikoak, eta horrek, nahitaez, euskal administrazio publikoen konpromiso sendoa eskatzen du, esku hartzeko eremu hori garatu eta berritzeko. Hauek lirarteke gai honetan laguntzeko oinarritzko osagaiak: gizarteratzeko hitzarmenak edukiz bete behar dira, eta laneratzeko laguntzera bideratuta egon beharko dute, hala egitea egokia den guztietan; prestakuntza-programak, okupazionalak, lana bilatzekoak eta laneratzeko laguntzeko direnak sendotzea eta askotarikoak izatea bermatu behar da, eta horietan guztietan berrikuntza sustatu eta erabiltzaileen parte-hartze aktiboa bermatuko duten formulak bilatzen saiatu beharko da; era berean, gizarte-zerbitzuek eta enplegu-zerbitzuek lankidetzan eta koordinatuta aritzeko bideak formalizatu beharko dira, bai eta jardun-protokoloak ere. Gizarteratzeko hitzarmenen kudeaketari dagokionez, nahiz eta udalen eginkizuna izan horiek negoziatu eta izenpetzea, beren gizarte- edo enplegu-zerbitzuen bidez, ikusten bada hitzarmenaren edukiak batez ere lan-merkatuan sartzera edo lan-egoera hobetzera zuzenduta daudela, hitzarmen horren aplikazioa eta segimendua enplegu-zerbitzuen esku utziko da.

IV. tituluan Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren plangintza eta garapena arautzen da, eta Autonomia Erkidegoaren esparrurako plangintza-tresna nagusia Gizarteratzeko Euskal Plana dela zehazten da. Euskal administrazio publiko guztiek eta arlo horretan diharduten beste erakunde publiko eta pribatu batzuek hartuko dute parte plana egiten, Gizarteratzeko Erakunde arteko Batzordearen bidez. Plana orokorra izango da, eta, beste batzuen

artean, printzipio hauek bete beharko ditu: lurraldeen arteko oreka eta homogeneousaren printzipioa, eta eskura dauden baliabideak, formalak eta informalak, publikoak eta pribatuak, modu integral, malgu, arrazional eta eraginkorrean erabiltzea eskatzen duen printzipioa. Plan orokor hori foru-aldundiek eta udalek nahiz udalen elkarrekin osatu egingo dute, eta, plana gauzatzeko, beren programak garatu beharko dituzte beren lurraldeetako jarduera-eremuetan. Osagarri modura, plan bereziak prestatu ahalko dira auzo-, udalerrri-, eskualde- edo bestelako geografia-eremuetarako, baldin eta, bereziki degradatuta daudelako eta pobrezia- eta bazterkeria-tasa handiak dituztelako, epe laburrean edo ertainean ekintza integrala behar badute; plan horiek Gizarteratzeko Euskal Planak ezarritako ildoak jarraiki egingo dira.

Esku hartzeko irizpideak Autonomia Erkidego osoan homogeneousak izango direla bermatzeko, balorazioak, diagnostikoak eta banan-banako plangintza egiteko tresna komun batzuk ere aurreikusten dira testuan. Horretarako erreferentzia gisa, «Diagnostikoa eta Esku-hartze Soziala» izeneko baliabide informatikoa jarri da, beharrezanean buruzko informazioa jasotzeko, diagnostiko sozialak egiteko eta banakako diagnostikoak eta gizarteratzeko ibilbide pertsonalizatuak egiteko; dena den, beste tresna tekniko baliozkotu batzuk erabil daitezke, aipatutako tresnarekin batera-garriak baldin badira eta informazioa elkarri helarazteko eta datuak konparatzeko aukera ematen badute.

Azkenik, kalitatearen kanpoko ebaluaziorako eta hobekuntza etengabeko metodo frogatuen aplikazioa arautzen da, beharrezanean erantzutean eta sistema kudeatzeko egituren funtzionamenduan zer disfuntzio edo gabezia dauden zehazteko horien bidez.

V. tituluaren eskumenen araubidea zehazten da, eta, horren arabera, Eusko Jaurlaritzak eskumen hauek ditu: arauak egitea; sistema planifikatzea; orokorrean, Gizarteratzeko Euskal Plana gauzatzeko behar beste baliabide eta bitarteko bideratu eta finantzatzea, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren Legean sartuko diren sailen programen bidez; diagnostikoa egiteko nahiz banan-banako plangintzarako tresna tekniko komunak diseinatu eta ezartzea, gainerako euskal administrazio publikoekin koordinaturik eta lankidetzan. Horiekin batera, zuzeneko ekintza jasotzen da; orobat, gizarteratzeko hitzarmenek jendeari laneratzen laguntzeko izan ditzaizketen edukiak, enplegu-zerbitzuen bidez, aplikatzeko eginkizuna. Eusko Jaurlaritzari esleitzen zaio, gainera, egoki irizten diren kasuetarako, gizarteratzen eta laneratzen laguntzeko prozesuen ezarpena ebaluatzeko eskumena; ebaluazio horren barruan, banakoen kasuak berrikusi ahalko ditu, egokitzat jotzen duenean, eta, horrela, bere eskumen-mailan, lege honetan aurreikusitako prestazio ekonomikoaren titularrak eta hartzaileak kontrolatzeko eginkizuna bete ahalko du.

Bestalde, foru-aldundiek eta udalek betearazteko eginkizuna izango dute nagusiki, bai Gizarteratzeko Euskal Plana aplikatzeko programak bakoitzak bere lurralde-eremuan egin eta garatuz, bai prestazio ekonomikoak kudeatuz, gorago zehaztutako moduan; udalen eginkizuna, berriz, gizarteratzeko hitzarmenak negoziatu eta egitea izango da, baina horien edukiak batez ere lan-merkatuan sartzerako edo enplegua hobetzerako zuzenduta badaude, edukiak zehazteko eta segimendua egiteko ardura enplegu-zerbitzuen esku utziko da. Era berean, administrazio publiko eskudunei dagokien prestazio ekonomikoaren titularrak eta onuradunen gaineko kontrol-eginkizuna, bakoitzak bere eskumen-mailan diharduela.

Finantziarioari dagokionez, euskal administrazio publikoek, bakoitzak bere aurrekontuetan, beren eskumenak aurrera eramateko beharrezkoak dituzten kopuruak esleituta eduki beharko dituztela ezartzen da. Eusko Jaurlaritzaz denaz bezainbatean, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan beharrezko baliabide ekonomikoak esleituta utzi beharko ditu urtero, hain zuzen ere lege honen bidez araututako prestazio ekonomikoak finantzatzeko.

VI. tituluan sailen arteko nahiz administrazioen arteko koordinazioa eta lankidetzaren arautzen dira, baita parte hartzeko formulak eta bideak ere. Lehenengoari dagokionez, Gizarteratzeko Erakunde arteko Batzordea eratzen da, euskal administrazio publikoen lankidetzarako organo goren gisa, erakundeen arteko koordinazioa bermatzeko. Eginkizunen artean, berriz, hauek izango ditu: legea garatzeko irizpideak proposatzea; Gizarteratzeko Euskal Planaren proposamena prestatzea; diagnostikoak eta banakako planifikazioak egiteko euskal administrazio publikoek aplikatu beharreko tresna komunak adostea; kudeaketaren kalitatea kontrolatzeko txosten bat egitea, bost urtean behin, lege honetan xedatutakoa aplikatzeko eta gauzatzeko hiru instituzio-mailak esku hartzeak sor ditzakeen disfuntzioak zein diren antzemateko. Gizarteratzearen arloan Eusko Jaurlaritzaren barruan egingo diren jarduerak barnetik koordinatzeko, Gizarteratzeko Sail arteko Batzordea eratzen da, koordinazio-organoa gisa.

Aholku-ematea eta parte-hartzea bideratzeko, Gizarteratzeko Euskal Kontseilua eratzen da, eta gizarteratzeko eta diru-sarrerak bermatzeko eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari atxikita egongo da. Bertan ordezkaturik egongo dira Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak eta udalak; orobat sindikatuak, enpresaburuen elkarteak eta erabiltzaileenak, gizarte-ekintzako hirugarren sektorekoak, baldin eta gizarteratze-gaietan esku hartzen badute, eta gizarteratze-arloan lan egiten duten profesionalenak. Beraren eginkizun nagusien artean hauek daude: nahitaezko eta alde zuzeneko txostena egitea gizarteratzeari eta diru-sarrerak bermatzeari buruzko lege-aurreproiektuez, gizarteratzeari eta diru-sarrerak bermatzeari buruzko dekretuez eta gizarteratzeari eta diru-sarrerak bermatzeari buruzko plan orokor edo sektorialekin –Euskal Autonomia Erkidegoa bada horien jardueraren eremua–, eta bereziki Gizarteratzeko Euskal Planaz.

Legearen azken tituluan arau-hauste eta zehapenei buruzko araubidea zehazten da. Horren bidez, bazterkeriaren aurka egiteko neurriak ezartzerakoan justizia soziala eta baliabide publikoak erantzukizunez erabiltzea eskatzen duten printzipioak betetzen direla bermatu behar da, eta, hori dela-eta, zehapenak zehaztu dira iruzurrak gertatzen direnetarako.

Bukaeran, aldi batean indarreko araudia aplikatuko dela zehazteaz gainera, lege hau erregelamendu bidez garatzen ez den artean hala gertatuko baita, xedapen osagarri batzuk aurreikusitakoak dira, zenbait kontu zehatz arautzeko, hala nola zehapenen zenbatekoak eguneratzea, edo legea ezarriko dela ziurtatzeko nahiz legearen erregelamenduzko garapena osatzeko agindu batzuk.

I. TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.– Xedea eta eremua

Lege honen xedea da Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema arautzea, eta, horren barruan, beharrezko prestazio ekonomikoak eta tresnak izateko eskubidea arautzea, herritar izateak dakartzan eskubide sozialak benetan baliatzeko orduan behar beste baliabide pertsonal, sozial edo ekonomiko ez dutenei laguntzeko, bai bazterkeria-arriskuari aurre egiten, bai bazterkeria pertsonala, soziala eta laborala arintzen, bai gizarteratzea errazten.

2. artikulua.– Helburuak

Hauek dira lege honen bidez lortu nahi diren helburu nagusiak:

a) Diru Sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistema eratzea, sistema autonomo gisa, zeinen kudeaketan parte hartzen baitu Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, lankidetzan arituz beste administrazio publiko batzuekin.

b) Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren funtzionamendurako printzipioak eta egituraren oinarriak jartzea; oinarri horien dinamismo eta malgutasunari esker, eskainitako babesak gero eta zabalagoa izan behar du, ekonomia-, gizarte- eta lan-arloko hainbat tresna elkarri lotuta aplikatzearen ondorioz, guztiek ere gizarteratzea helburu dutela.

c) Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren barruan diren prestazio ekonomikoak eta gizarteratzeko eta laneratzeko tresnak eskuratzeko aukera izango dutela bermatzea herritarrei, betiere berdintasun- eta ekitate-irizpideak betez, eta Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremu osoan era homogeenoa beteko dela ziurtatzeko beharrezko neurriak hartuta.

d) Lan-merkatutarako sarbidea bermatzea diru-sarrerak bermatzeko prestazioa jasotzen duten pertsona enplegarriei.

3. artikulua.– Oinarrizko printzipioak.

Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak printzipio hauek beteko ditu:

a) Eskubide bikoitza. Printzipio hori dela-eta, bi eskubide aitortzen zaizkie pertsonari: bizitzako oinarrizko premiei aurre egiteko behar beste baliabide ekonomiko eskuratzeko eskubidea, baita gizarteratzeko eta laneratzeko laguntza pertsonalizatuak izateko eskubidea ere.

b) Erantzukizun publikoa. Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren barruan dauden prestazio ekonomikoak diruz hornitzea eta gizarteratzeko nahiz laneratzeko tresnak jartzea administrazio publikoen erantzukizuna izango da, bakoitzak bere eskumenen barruan diharduela.

c) Unibertsaltasuna. Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak unibertsala izan nahi du, eta, sistema horren barruan, euskal administrazio publikoek, bakoitzak bere eskumen-eremuan diharduela, baldintzak betetzen dituzten guztiek lege honetako prestazio ekonomikoak jasotzeko edo gizarteratzeko gainerako neurriez baliatzeko aukera dutela bermatu beharko dute.

d) Berdintasuna eta ekitatea zerbitzu eta prestazioak eskuratu eta aplikatzeko. Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren barruan, prestazio ekonomikoak eta gizarteratze- nahiz laneratzeko tresnak eskuratzeko aukera bermatu behar dute euskal administrazio publikoek. Lan horretan, ekitatez jokatu behar dute, baldintza pertsonalak edo sozialak direla-eta inongo bazterkeriarik egin gabe; eta aukera hori Erkidegoko lurralde osoan homogeenoa izango dela ziurtatuko dute, hau da, laguntza jasoko duena bizi den udalerria edo lurralde historikoa ezin izango da baldintzagarria izan zerbitzuak edo prestazioak emateko edo aplikatzeko, eta ez udalek ez lurralde historikoen ez dute ahalmenik izango lege honetan xedatzen diren prestazioen gehigarri ekonomikoak arautu eta aplikatzeko; nolana ere, ahulenei laguntzeko ekintza positiboko neurriak aplikatzeko aukera izango dute.

e) Elkartasuna. Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak herritar guztien lankidetzara sustatuko du ongizate orokorra bermatzeko behar diren baliabideak sor daitezen, eta errenten birbanaketa hobetzeko neurriak ezarriko ditu gizarte-kohesioa sustatzeko.

f) Gizarteratze-politikaren zeharkakotasuna. Diru-sarrerak eta enplegua bermatzeko neurriak gizarteratzeko tresnatzat jo eta neurri nagusitasunaren alde egitea ez da oztopo izango, inondik ere, helburu hori bera daukaten bestelako politika edo sistema sektorialekin ere berealdiko ekarpena egiten dutela onartzeko, hala nola gizarte-zerbitzuekin, osasungintza, hezkuntza eta etxebizitzak.

g) Gizarte-arloko politikak aktibatzea eta enplegua errentagarri egitea. Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak, prestakuntza-, orientazio- eta laneko bitartekaritza-neurriak, babestutako gizarte-enplegua edo kontratuak egiteko laguntzak ez ezik, formula jakin batzuk ere ezarriko ditu, lan-merkatuan sartzeari aukera erakargarriagoa eta errentagarriagoa izan dadin diru-sarrerak bermatzeko prestazio ekonomikoak jasotze hutsa baino.

h) Baliabideen kalitatea eta optimizazioa. Antolatuko diren neurriak aplikatzerakoan, hiru irizpide bete behar dira ezinbestean: baliabideek kalitatekoak izan behar dute, ahal den probetxu handiena atera behar zaie eta prozedurak etengabe hobetu behar dira. Horretarako, balorazio-tresna komunak ezarriko dira, eta tresna horiek aukera eman behar dute informazioa elkarri pasatzeko eta datuak konparatzeko; orobat, emaitzen segimendua, ebaluazioa eta fiskalizazioa egiteko aukera eman behar dute, gizarte-bazterkeriaren kontrako politikaren aplikazioa justua eta arduratsua izateko bidea sendotu baitaiteke ekintza horien bidez.

i) Euskal administrazio guztien koordinazioa eta inplikazioa. Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren barruan, euskal administrazio publikoek koordinatuta eta elkarlanean jardungo dute, erakundeen arteko adostasuna lortu behar baita, herritarrek beren eskubideak baliatzea bermatzeko neurri egokienak errazago har daitezten.

j) Arreta pertsonalizatu eta integrala eta arretaren jarraitutasuna. Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak arreta pertsonalizatua eman behar du, pertsona eta/edo bizikidetzaren bakoitzaren premia berezietara egokitua eta haien egoeraren diagnosi integralan oinarritua. Halaber, arreta jarraitua izango dela bermatu behar du.

k) Parte-hartzea. Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren barruan, euskal administrazio publikoek parte-hartzea sustatu eta bultzatuko dute gizarteratzeko eta/edo laneratzeko prozesuetan; bai erabiltzaileen beren parte-hartzea, baita, orokorrean, gizarte-erakundeena eta herritar guztiena ere. Horretarako, gizarteratze- nahiz laneratze-prozesuetan lan egiten duten irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko erakundeak ere gizarteratze-kolaboratzailetzat hartuko dira, hala nahi izanez gero; erregelamendu bidez ezarriko diren baldintzetan, betiere.

l) Genero-ikuspegia sartzeari. Gainerako euskal politika publikoekiko koherentziaz, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak orokorrean ezberdintasunak desagerrarazten eta emakumeen eta gizonen berdintasuna bultzatzen lagunduko du, eta, bereziki, pobrezia emakumeengan gizonengan baino eragin handiagoa izan ez dezan prebentzioa egiten eta eragin handiago hori arintzen.

4. artikulua.– Arreta-eredua

Ekintza-tresnak diseinatu eta planifikatzerakoan eta esku-hartzeak egitean, oro har, arreta pertsonalizatu eta hurbilaren eredua erabiliko du Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak, arretaren ikuspuntu komunitarioa landuz uneoro. Ildo horretan, lehentasuna emango die prebentzio-ekintzei; egoki eta posible den guztietan, arreta pertsona bakoitzari bere ohiko lekuetan eman dakien saiaturik da; esku-hartzeak beti pertsonaren edo bizikidetzaren unitatearen premien arabera izango direla bermatuko du, eta, halaber, esku-hartze horiek integralak izango direla eta arreta-ibilbideei jarraipena emango zaiela ziurtatuko du.

5. artikulua.– Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren oinarriko osagaiak

Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak bi osagai funtsezko izango ditu:

a) Prestazio ekonomikoak.

b) Gizarteratzen eta laneratzen laguntzeko tresnak.

6. artikulua.– Prestazio ekonomikoak

1.– Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren barruan jasotako prestazio ekonomikoen sailkapena hau da:

1) Eskubidezko prestazio ekonomikoak.

2) Diru-laguntzak.

2.– Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren barruan jasotako eskubidezko prestazio ekonomikoak hauek dira:

1) Diru-sarrerak bermatzeko errenta. Bi modalitate ditu, bizikidetz-unitatean diru-sarrerarik baden ala ez den kontuan hartuta, eta, sarrerarik baden kasuetan, nondik jasotzen diren kontuan hartuta:

a) Gizarteratzeko eta gizarte-babeserako oinarritzko errenta.

b) Laneko diru-sarrerak osatzeko errenta.

2) Etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarria. Diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularren etxebizitzarekin zerikusia duten premiei aurre egiteko emango da, 2.1 paragrafoan aurreikusitako bi modalitateetako edozein jasotzen dutela ere.

3.– Diru-laguntzen barruan gizarte-larrialdietarako laguntzak ere sartzen dira, hau da, gizarte-bazterkeria prebenitzeko, saihesteko edo arintzeko behar diren gastu espezifikoei, ohikoei nahiz ezohikoei, aurre egiteko nahiko baliabiderik ez duten pertsonentzako laguntzak.

Gizarte-larrialdietarako laguntzak eman ahal izateko, gizarte-zerbitzuek benetako eta urgentziazko premia-egoera dagoela egiaztatu beharko dute beti; gainera, diru-laguntzak direnez, egiaztatu beharko da Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan badagoela kreditu jakin bat horretarako esleituta. Hala ere, prestazio horren eskariari erantzuteko behar besteko zenbatekoak esleituko dira urtero Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan.

4.– Artikulu honetan jasotako laguntza ekonomikoak eskuratu ahal izateko baldintzak eta prestazio batzuen eta besteen arteko bateragarritasunen eta bateraezintasunen araubidea lege honetako II. tituluan aurreikusitakoaren arabera arautuko dira.

7. artikulua.– Gizarteratzen eta laneratzen laguntzeko tresnak.

Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren barruan, hauexek izango dira gizarteratzen eta laneratzen laguntzeko tresnak:

a) Inklusio aktiborako hitzarmena. Gizarteratzeko eta laneratzeko behar diren era bateko eta besteko ekintzen multzoa antolatzeke oinarritzko tresna izango da, laneratzeko formazioari eta pretaerari garrantzi berezia emanda ekintza horietan.

b) Esku hartzeko berariazko neurriak. Gizarte-babeseko hainbat alorretako programa, zerbitzu edo zentroak izan daitezke, bereziki gizarte-zerbitzuek, osasun-zerbitzuek, hezkuntza-zerbitzuek eta etxebizitza-zerbitzuek era autonomoan antolatu eta definitutakoak, eta, konbinatuta, gizarteratzeko hitzarmenean aplika daitezkeenak.

Nolanahi ere, ekintza konbinatu horietarako eta behar den zerbitzuetara bideratzeko, erregelamendu bidez ezarri eta diseinatutako protokoloak izango dira.

8. artikulua.– Titularrak, hartzaileak eta jasotzaileak

1.– Lege honetan araututako eskubidezko prestazio ekonomikoen edota, hala badagokio, gizarteratzeko tresnen titularrak hauek izango dira: prestazioa noren izenean izapidetu eta onartu den, horietatik, prestaziorako edo gizarteratzeko hitzarmenerako izango duten beroriek.

2.– Eskubidezko prestazio ekonomikoen eta gizarteratzeko hitzarmenen hartzaileak hauek izango dira: titularraren bizikidetz-unitateko kideak.

Diru-laguntzen kasuan, laguntza noren izenean izapidetu eta nori onartu zaion, horixe izango da onuraduna.

3.– Orokorrean, lege honetan araututako eskubidezko prestazio ekonomikoen jasotzaileak, hain justu ere, prestazioen titularrak berak izango dira. Diru-laguntzen kasuan, jasotzaileak, orokorrean, laguntza horien onuradunak berak izango dira.

Aurrekoa gorabehera, eta erregelamendu bidez zehaztuko diren kasuetan eta moduan, esku-mena duen organoak aukera izango du prestazioa bizikidetz-unitateko beste bati ordain dakiola agintzeko. Nolanahi ere, aurrekoa bi kasu hauetan aplikatuko da: batetik, titularra –edo onuraduna, diru-laguntzak badira– legez ezgai dela ezartzen bada, eta, bestetik, titularrak –edo onuradunak, diru-laguntzak badira– ez badu prestazioa erabili oinarritzko premiak asetzeko, bere obligazioa hori izanik ere.

Aurreko lerrokadan aurreikusitako bi kasuetan, bizikidetz-unitatean jarduteko gaitasuna duten pertsonen artean egokientzat jotzen denari emango zaio prestazioa; hortaz, ez da derrigorra izango prestazioa pertsonarik zaharrenari ematea. Adingabeen kasuan edo legezko ezgaituen kasuan, pertsona horien tutoretza edo ordezkari legala daukanari emango zaio prestazioa.

Salbuespen gisa, espedientean objektiboki justifikatutako arrazoiengatik eta erregelamendu bidez ezarriko diren baldintzen barruan, titularra ez den eta haren bizikidetz-unitatekoa ez den beste norbaiti eman ahalko zaio prestazioa, jasotzailetzat joaz; halakoetan, irabazi-asmorik ez duten gizarte-zerbitzuetako erakundeetako pertsonak izango dute lehentasuna, eta prestazioen titularraren edo onuradunaren eskubide eta obligazio berberak izango dituzte.

Edonola ere, prestazioa titularra edo onuraduna ez den bati ordaintzeak ez du esan nahi, inondik ere, kasuan kasuko prestazioaren titulartasuna aldatzen denik.

9. artikulua.– Bizikidetz-unitateak

1.– Lege honen ondorioetarako, honako pertsona edo talde hauek izango dira bizikidetz-unitateak:

a) Etxebizitza edo bizitoki batean bakarrik bizi direnak; sailkapen horretatik kanpo geratuko dira, bakarrik bizi arren, ezkontzaren edo antzeko harreman iraunkor baten bidez beste bati lotuta daudenak, non eta ez dabiltzan banantzeko edo dibortziazeko izapideak egiten edo non eta ez den erregelamendu bidez zehaztuko den bestelako salbuespenezko egoerarik gertatzen.

b) Etxebizitza edo bizitoki berean elkarrekin bizi diren bi pertsona edo gehiago, elkarren artean batuta daudenean ezkontzaren edo antzeko harreman iraunkor baten bidez, adopzioaren bidez, laugarren mailarainoko odol-ahaidetasunaren edo bigarren mailarainoko ezkontza-ahaidetasunaren bidez, edo familia-harrerako harreman iraunkor baten edo adopzio aurreko edo tutoretzapeko harreman baten bidez.

c) Egiaztatzeko moduko premia larriko egoeretan, b) idatz-zatian aurreikusitako lotura horietako edozeinen bidez lotuta ez dauden beste batzuekin etxebizitza edo bizitoki berean bizi diren pertsonetako bakoitza. Erregelamendu bidez zehaztuko dira halako egoerak.

2.– Salbuespen gisa, are artikuluko honetako 1.b paragrafoan aurreikusitako loturetakoren bat daukaten pertsonen helbidean integratzen direnean ere, bizikidetzaren unitate hartuko dira honako hauek:

a) Zahartzaro, baliaezintasun edo alarguntasuneko ordaindutakoaren arabera diren edo horren arabera ez diren pentsioen onuradunak, baita haien ezkontidea edo haiekin ezkontzaren antzeko harreman iraunkor baten bidez batutako pertsona eta ekonomikoki haien mende dauden pertsonak ere.

b) Etxeko tratu txarren biktima izanda, beren ohiko helbidea utzi duten pertsonak, baita haien seme-alabak ere, horrelakorik izanez gero.

c) Beren kontura adingabeak dituzten pertsonak.

d) Beren ohiko etxebizitza utzi behar izan duten pertsona bakarrak, dela banantze edo dibortzio baten ondorioz edo nahiko baliabide ekonomikorik ez izateagatik, dela gizarte-zerbitzuek muturrekotzat jotako egoeraren batengatik.

Eusko Jaurlaritzak, gizartearen bilakaerari eta, bereziki, familia-egiturako ereduaren bilakaerari erantzunez, beste salbuespen batzuk ere zehaztu ahalko ditu, aldi baterako harrerako formulak barne direla.

3.– 2. paragrafoan aurreikusitako kasuetan, etxebizitzan edo bizitokian bizi diren gainerako pertsonak, are 1.b paragrafoan aurreikusitako loturetako baten bidez aipatutako pertsonekin harremana dutenak, beste bizikidetzaren unitate bateko kidetzat joko dira.

4.– Lege honen ondorioetarako, artikuluko honetan aipatzen diren bizikidetzaren egiazkoa edo bizikidetzaren eza aztergai izan beharko ditu administrazio eskudunak, kasuaren arabera beharrezkoa denean.

10. artikulua.– Etxebizitza edo bizitokia

1.– Lege honen ondorioetarako, etxebizitza edo bizitokitzat joko da beregainki eta agintaritza edo araubide komun baten pean egon gabe bizi nahi duen pertsona batek ohiko bizilekutzat erabiltzen duen esparru fisikoa, edo modu horretan bertan elkarrekin bizi nahi duten pertsona batzuek ohiko bizilekutzat darabilten esparru fisikoa.

2.– Era berean, etxebizitza edo bizitoki beregainkiat jo ahal izango dira beste zati batzuk, erregelamendu bidez zehaztuko diren bizileku kolektiboko esparru fisikoetatik aurreko artikuluan aipatutako bizikidetzaren unitateek beregainki erabiltzen dituzten zatiak, hain zuzen ere.

II. TITULUA

PRESTAZIO EKONOMIKOAK

I. KAPITULUA

PRESTAZIO EKONOMIKOEN EZAUGARRIAK

1. ATALA

DIRU SARRERAK BERMATZEKO ERRENTA

11. artikulua.– Definizioa.

Diru-sarrerak bermatzeko errenta aldizkako eta eskubide subjektiboko prestazio ekonomiko bat da, oinarrizko premiei lotutako gastuei zein gizarteratzeko edo laneratzeko prozesu baten ondorio diren gastuei aurre egiteko diru-sarrera nahikorik ez daukan bizikidetz-unitate batean integratutako kideei zuzendua.

12. artikulua.– Eskubide subjektiboa

Diru-sarrerak bermatzeko errenta eskubide subjektibo gisa eratzten da, aplikatzekoa den modalitatean prestazioa eskuratzeko berariaz araututako baldintzak betetzen dituzten pertsona guztientzako eskubide subjektibo gisa.

13. artikulua.– Ezaugarriak

1.– Diru-sarrerak bermatzeko errenta subsidiarioa eta, hala badagokio, osagarria izango da indarreko legerian aurreikusten diren era guztietako baliabide eta prestazio ekonomikoei dagokienez, horiek titularrari edo haren bizikidetz-unitateko edozein kideri legozkioketean. Aurrekoarekin bat etorritz, diru-sarrerak bermatzeko errenta ezin izango da osatu, haren ezein modalitatetan, izaera bereko beste prestazio edo laguntza batzuen bidez.

2.– Transferiezina izango da, eta, horrenbestez:

- a) Ez da obligazio-berme gisa eskaintzerik egongo.
- b) Ez da lagatzerik egongo, ez osorik, ezta partzialki ere.
- c) Ez da konpentsatzerik edo deskontatzerik egongo, jaso behar ez ziren prestazioak itzultzeko izan ezik.
- d) Ez da atxikitzerik edo bahitzerik egongo, aplikatzekoak diren Estatuko lege orokorretan aurreikusitako kasuetan eta mugekin izan ezik.

14. artikulua.– Modalitateak

Diru-sarrerak bermatzeko errentak 6. artikuluko 2.1 paragrafoan aurreikusitako bi modalitateak izango ditu:

- a) Gizarteratzeko eta gizarte-babeserako oinarrizko errenta prestazio ekonomikoa da, aldizkakoa, laneko errentetatik datorren diru-sarrerarik ez daukaten pertsonen zuzendua, baldin eta hilerio jasotzen dutena ez bada iristen gizarteratzeko eta gizarte-babeserako oinarrizko errentaren

zenbatekora, eta, beraz, ez bada nahikoa beren gastuei aurre egiteko, ez oinarrizko premietako gastuei ez gizarteratzeko eta/edo laneratzeko prozesu baten ondorio diren gastuei.

b) Laneko diru-sarrerak osatzeko errenta prestazio ekonomikoa da, aldizkakoa, zenbait bizikidetz-unitateren diru-sarreraren maila osatzera zuzendua. Bizikidetz-unitate horietan, lane-tik datozen diru-sarrerak eduki arren, hilerio jasotzen dutena ez da iristen gizarteratzeko eta gizarte-babeserako oinarrizko errentaren zenbatekora, eta, beraz, ez da nahikoa beren gastuei aurre egiteko, ez bizirik irauteko oinarrizko premietako gastuei eta ez gizarteratzeko eta/edo lan-egoera hobetzeko prozesu baten ondorio diren gastuei. Errentaren zenbatekoa zehazterakoan, prestazio hori, aldi batean, lanerako bultzagarriaren bidez osatuko da, 20.2.b) artikuluan aurreikusitako moduan.

15. artikulua.– Gizarteratze aktiborako hitzarmenarekin duen lotura.

1.– Diru-sarrerak bermatzeko errenta emateko, edozein modalitatetan, gizarteratze aktiborako hitzarmen bat egingo da errentaren titularrarekin, III. tituluaren I. kapituluaren aurreikusitako baldintzetan, errazago laneratu eta gizarteratu dadin. Ez da gizarteratze aktiborako hitzarmenik sinatu beharko baldin eta bizikidetz-unitateko pertsona guztiek erretiro-pentsioa, ezintasun iraunkor absolutuko edo baliaezintasun handiko pensioa edo kotizazio gabeko baliaezintasun-pentsioa jasotzen badute.

2.– Titularrak edo haren bizikidetz-unitateko beste kideren batek laneratzeko jardueraz gain, gizarte, etxebizitza edo hezkuntzako zerbitzuek eman beharreko gizarteratze-jarduketak eskatzen baditu, gizarteratze aktiborako hitzarmenean berariaz jasoko da titularrak sistema desberdinek diseinatutako gizarteratze-jarduketak betetzeko konpromisoa hartzen duela eta jarduketa horietan sartzeko eskubidea duela.

16. artikulua.– Eskubidearen titularrak

Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidearen titular izan ahalko dira, lege honetan errentaren modalitateetako bakoitzerako aurreikusten diren baldintzetan, honako baldintza hauek biltzen dituztenak:

a) Bizikidetz-unitate bat osatzea. Erregelamendu bidez zehaztuko da unitateak zenbat denbora lehenagotik eratua behar duen eta zer salbuespen egon daitezkeen.

b) Eskabidea aurkezteko unean, Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan erroldatuta egotea eta benetan bertan bizitzea, eta eskabidea egin baino urtebete lehenagotik, gutxienez, Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan erroldatuta egon izana eta benetan bertan bizi izana.

Aurretiazko gutxieneko epea betetzen bada, baina hiru urtean erroldatuta egotera iristen ez bada, gutxienez bost urteko jarduera laboral ordaindua egiaztatu beharko da, bizitza laboralaren agiri bidez, salbu eta pensio publiko bat jasotzen duten edo etxean tratu txarren biktima izan diren pertsonen kasuan.

Gutxieneko epe hori bete ezean, eskatzaileak aurreko hamar urteen barruan bost urtez jarraian Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan erroldatuta egona eta bertan benetan bizi izana izan beharko du.

c) Nahiko baliabiderik ez edukitzea. Horrelako baliabiderik ez daukatela joko da honako baldintza hauek guztiak betetzen direnean:

– Bizikidetz-unitateko kide-kopuruaren arabera legokiokeen gizarteratzeko eta gizarte-babeserako oinarrizko errentaren hileko zenbatekoaren azpitik dauden diru-sarrerak edukitzea hilean.

– Ondasun higiezinik ez edukitzea, ohiko etxebizitza izan ezik, betiere etxebizitza horrek aparteko baliorik ez badu, erregelamendu bidez zehaztuko den moduan.

– Dauzkaten dirua eta baloreak gehienez ere honenbestekoak izatea: batere baliabiderik ez luketen kasuan bizikidetzaren unitateko kideen kopuru osoaren arabera legokiekeen diru-sarrerak bermatzeko errentaren urteko zenbatekoa halako lau.

d) 23 urtetik gorakoa izatea.

Baldintza hori betetzetik salbuetsita egongo dira 18 urtetik gorakoak, gainerako baldintza guztiak betetzen badituzte eta premia bereziko egoeran badaude, Eusko Jaurlaritzak erregelamendu bidez zehazten duenaren arabera. Halaber, honako hauek salbuetsi egingo dira beti:

– Baliaezintasuneko pentsioa jasotzen dutenak.

– Aitarik eta amarik gabeko umezurtzak.

– Adingabeak zein ahalmen-urritasunen bat duten adindunak edo mendekotasuna onartuta duten adindunak ekonomikoki beren ardurapean dituztenak.

– Etxeko tratu txarren biktima izan direnak.

– Ezkontuta edo ezkontzaren antzeko harreman iraunkor baten bidez beste pertsona batekin loturik daudenak gutxienez sei hilabete lehenagotik.

e) Etengabe ez jasotzea funts publikoekin finantzaturako egoitza-zerbitzu, gizarte-zerbitzu, osasun-zerbitzu edo zerbitzu soziosanitarioko prestaziorik.

f) Laneko diru-sarrerak, kontratu laboral bidez justifikatuak, izanez gero, ez egotea lanaldi laburtuan edo antzeko beste egoera batean, salbu eta erregelamendu bidez ezarriko diren salbuespeneko kasuetan.

17. artikulua.– Titular bat baino gehiago batera gertatzea

1.– Bizikidetzaren unitate berean titular izan daitezkeen kide bat baino gehiago baldin badago, bati bakarrik eman ahal izango zaio diru-sarrerak bermatzeko errenta, edozein modalitatean, betiere prestazioaren modalitatearen arabera ezarritako zenbateko-mugen barruan. Kasu horretan, dagokion diagnostikoa egin ondoren, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak erabakiko du nori eman prestazioa, dagokien kasuetan udalen gizarte-zerbitzuekin lankidetzan eta haien iritzia kontuan harturik.

2.– Etxebizitza edo bizitoki berean hainbat bizikidetzaren unitate badira eta beren artean ez badute 9.1.b artikuluan aurreikusitako loturarik, bizikidetzaren unitate guztiek eskuratu ahaliko dute titular-tasuna, baldin eta ezarritako baldintzak betetzen badituzte, eta, betiere, etxebizitza edo bizitoki berean gehienez jaso daitezkeen laguntzen kopuruari dagokionez erregelamendu bidez ezarriko diren mugen barruan.

18. artikulua.– Modalitatea aldatzea

Titularraren egoerako aldaketa batengatik diru-sarrerak bermatzeko errentaren modalitate batek bestera pasatu behar bada, automatikoki egingo da aldaketa, lehenengo modalitatea bertan behera utzi eta bigarrenean sartzeko berriazko izapiderik egin beharrik gabe.

19. artikulua.– Titularren betebeharrak

1.– Diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularrek prestazio ekonomiko hori jasotzeko eskubidea baliatzen dutenean, modalitatea edozein dela ere, honako betebeharrak izango dituzte:

a) Prestazio ekonomikoa bizikidetzaren unitateko kide guztien oinarritzko premiei aurre egitera bideratzea, eta, hala badagokio, haien gizarteratze- eta/edo laneratze-prozesuak eragindako gastuak ordaintzea.

b) Titularrari edo bizikidetzaren unitateko edozein kideri legokiokeen eskubide edo prestazio ekonomiko oro baliatzea, prestazioak irauten duen aldi osoan.

c) Eskura dituzten baliabideak erantzukizunez kudeatzea, egoera ekonomikoa edo bazterkeria-egoera larriagoa bihurtu ez dadin.

d) Haien ardurapean dauden adingabeak eskolatzea eta eskolara benetan joango direla bermatzea.

e) Eskean ez ibiltzea, bizikidetzaren unitateko gainerako kideei ez uztea eskean ibiltzen eta ez behartzea horretara.

f) Lege honetan ezarritakoaren arabera prestazioa jasotzeko eskubidea aldatzea, etetea edo azkentzea ekar dezaketen gertaerak jakinaraztea, erregelamendu bidez ezarriko den epean.

g) Titularren ohiko bizilekuaren helbideari dagokionez edozein aldaketa egonez gero, horren berri ematea, erregelamendu bidez ezarriko den epean.

h) Ez zegozkien prestazioen zenbatekorik edo behar baino zenbateko handiagorik jasoz gero, zenbateko hori itzultzea.

i) Administrazioaren aurrean agertzea eta harekin lankidetzan aritzea, hori eskatzen bazaie; nolahi ere, kontuan izango dira gizarteratzeko hitzarmenean aurreikusitako kasu bereziak.

i bis) Titularra eta haren bizikidetzaren unitateko kideak lanerako adinean daudenean, gizarteratze-erantzat lan egiteko prest egotea Administrazioak lurraldeko boluntariora-erakundearen bitartez modu ezohikoan eskatzen dienean. Salbuespena izango dira honako pertsona hauek:

- Erabateko balioezintasuneko pentsioen titularrak direnak.
- Ikasketak akademiko arautuak egiten ari diren 23 urtez beherakoak.
- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren iritziz gizarteratze-erantzat lan egiteko egoeran ez daudenak.

j) Diru-sarrerak bermatzeko errentaren xedetik eta helburutik sortzen diren betebeharrak guztiak eta erregelamendu bidez ezarriko direnak.

2.– Gizarteratzeko eta gizarteratze-babeserako oinarritzko errentaren titularrek, 1. paragrafoan jasotako gain, beste betebeharrak izango dituzte:

a) Administrazioarekin gizarteratzeko hitzarmena negoziatu eta sinatzea eta hitzarmen hori betetzea, lege honen III. tituluaren I. kapituluaren ezarritako moduan. Betebeharrak horretatik salbuetsita egongo dira lan-merkatuan sartu ezin diren pertsonen bakarrik osatutako bizikidetzaren unitateak, baina gizarteratzeko laguntza espezifikoak izan ahalko dituzte, baldin eta dagokion gizarteratze-zerbitzuak eragindako beharrezko diagnostikoa hala zehazten bada.

b) Titularra eta haren bizikidetzaren unitateko kideak lanerako adinean daudenean, enplegurako prest egotea. Salbuespena izango dira honako pertsona hauek:

– Ezintasun iraunkor absolutuko, baliaezintasun handiko edo kotizazio gabeko baliaezintasuneko pentsioa jasotzen badute.

– 23 urte baino gutxiago badituzte eta ikasketa akademiko arautuak egiten ari badira.

– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren iritziz, dagokien kasuetan udalen gizarte-zerbitzuekin lankidetzan eta haien iritzia kontuan harturik, epe laburrean edo ertainean lan-merkatura sartzeko egoeran ez badaude.

Lanerako prest egoteak barne hartzen du etengabe izena emanda egotea enplegu-eskatzaile gisa, indarreko legediaren arabera egokia den enplegu bati uko ez egitea, enplegutik ez behin betiko ez aldi baterako borondatezko bazarik hartzea, eta lan-eszedentziarik ez hartzea justifikatutako arrazoi oso estremorik izan gabe.

3.– Laneko diru-sarrerak osatzeko errentaren titularrek, 1. paragrafoan aurreikusitakoez gain, beste betebeharrak ere izango dute: enplegua hobetzeko gizarteratze-hitzarmena negoziatzea, sinatzea eta betetzea, lege honen III. tituluko I. kapituluaren aurreikusitako moduan. Ondorioz, ezin izango dute borondatezko bazarik hartu enpleguan, ez behin betikorik ez aldi baterakorik, ez eta lan-eszedentziaz baliatu ere, justifikatutako arrazoi larririk ez badago.

20. artikulua.– Zenbatekoa finkatzea

1.– Gizarteratzeko eta gizarte-babeserako oinarriko errentaren kasuan:

a) Bizikidetzaren unitate bakoitzari aplikatu dakiokeen zenbatekoa finkatzeko, titularraz gain, unitateak osatzen duten kide guztiak hartuko dira kontuan.

b) Bizikidetzaren unitate bakoitzari aplikatu dakiokeen prestazioaren hileko zenbatekoa honela kalkulatu da: eskatzailearena bezalako bizikidetzaren unitateentzako prestazioaren bidez bermatutako gutxieneko diru-sarreraren eta eskatzailearen bizikidetzaren unitateak eskura dituen diru-sarreraren arteko diferentziaren arabera.

Ondorio horietarako, bermatutako gutxieneko diru-sarrerak portzentaje gisa definituko dira, eskabidea egin zen unean indarrean zegoen lanbide arteko gutxieneko soldata oinarri hartuta. Hauek dira portzentajeak:

– Pertsona bakarreko bizikidetzaren unitateentzat, lanbide arteko gutxieneko soldataren % 88.

– Bi pertsonako bizikidetzaren unitateentzat, lanbide arteko gutxieneko soldataren % 113.

– Hiru edo pertsona gehiagoko bizikidetzaren unitateentzat, lanbide arteko gutxieneko soldataren % 125.

Bermatutako gutxieneko diru-sarreraren zenbatekoa ezin izango da izan, inola ere, lanbide arteko gutxieneko soldataren % 125 baino handiagoa.

Bizikidetzaren unitateak eskura dituen diru-sarrerak zein diren zehazteko, kide guztien errendimenduak hartuko dira kontuan, titulu honetako II. kapituluaren aurreikusitako moduan.

c) 9.2.a artikuluan definitzen den motako bizikidetzaren unitateentzat, bermatutako gutxieneko diru-sarreraren zenbatekoak kalkulatzeko portzentajeak hauek dira:

– Pertsona bakarreko bizikidetzaren unitateentzat, lanbide arteko gutxieneko soldataren % 100.

- Bi pertsonako bizikidetza-unitateentzat, lanbide arteko gutxieneko soldataren % 125.
- Hiru edo pertsona gehiagoko bizikidetza-unitateentzat, lanbide arteko gutxieneko soldataren % 135.

Berमतutako gutxieneko diru-sarreraren zenbatekoa ezin izango da izan, inola ere, lanbide arteko gutxieneko soldataren % 135 baino handiagoa.

Bizikidetza-unitateak eskura dituen diru-sarrerak zein diren zehazteko, kide guztien errendimenduak hartuko dira kontuan, titulu honetako II. kapituluaren aurreikusitako moduan.

d) Guraso bakarreko bizikidetza-unitateek gizarteratzeko eta gizarte-babeserako oinarrizko errenta osa dezaten, subsidio ekonomiko osagarri bat ezartzen da, eta horren zenbatekoa erregelamendu bidez finkatuko da. Ondorio horietarako, guraso bakarreko bizikidetza-unitatea hau da: ama edo aita bat, ezkongabea edo ezkontzaren antzeko harremanik ez duena eta bere ardura-pean seme edo alaba bat, edo gehiago, duena.

2.– Laneko diru-sarrerak osatzeko errentaren kasuan:

a) Laneko diru-sarrerak osatzeko errentari dagokionez, bizikidetza-unitate bakoitzari aplikatu dakiokeen zenbatekoa finkatzeko, titularrak gain, bizikidetza-unitatea osatzen duten kide guztiak hartuko dira kontuan.

b) Bizikidetza-unitate bakoitzari aplikatu dakiokeen laneko diru-sarrerak osatzeko errentaren hileko zenbatekoa honela kalkulatu da: eskatzailearena bezalako bizikidetza-unitateentzako prestazioaren bidez berमतutako gutxieneko diru-sarreraren eta eskatzailearen bizikidetza-unitateak eskura dituen diru-sarreraren arteko diferentziaren arabera.

Ondorio horietarako, berमतutako gutxieneko diru-sarrerak portzentaje gisa definituko dira, eskabidea egin zen unean indarrean zegoen lanbide arteko gutxieneko soldata oinarri hartuta. Hauek dira portzentajeak:

- Pertsona bakarreko bizikidetza-unitateentzat, lanbide arteko gutxieneko soldataren % 88.
- Bi pertsonako bizikidetza-unitateentzat, lanbide arteko gutxieneko soldataren % 113.
- Hiru edo pertsona gehiagoko bizikidetza-unitateentzat, lanbide arteko gutxieneko soldataren % 125.

Berमतutako gutxieneko diru-sarreraren zenbatekoa ezin izango da izan, inola ere, lanbide arteko gutxieneko soldataren % 125 baino handiagoa.

Bizikidetza-unitateak eskura dituen diru-sarrerak zein diren zehazteko, kide guztien errendimenduak hartuko dira kontuan, kapitulu honen 2. atalean aurreikusitako moduan.

Lanerako bultzagarria sendoagoa izan dadin, eskatzailearen edo haren bizikidetza-unitateko beste kide batzuen norberaren konturako edo besteren konturako diru-sarreraren portzentaje jakin batzuk ez dira zenbatuko. Lanerako bultzagarri hori aldi baterakoa izango da, erregelamendu bidez zehaztuko den moduan, salbu enplegu-zerbitzuek luzatzea gomendatzen badute berariazko irizpen baten bidez.

c) Guraso bakarreko bizikidetza-unitateek laneko diru-sarrerak osatzeko errenta osa dezaten, subsidio ekonomiko osagarri bat ezartzen da, eta horren zenbatekoa erregelamendu bidez finkatuko da. Ondorio horietarako, guraso bakarreko bizikidetza-unitatea hau da: ama edo aita bat,

ezkongabea edo ezkontzaren antzeko harremanik ez duena, eta bere ardurapean seme edo alaba bat, edo gehiago, duena.

21. artikulua.– Gehienezko zenbatekoak

1.– Aurreko artikuluan azaldutako diru-mugak gehienezkotzat joko dira beti, eta Eusko Legebiltzarrak baino ezin izango ditu aldatu.

2.– Kontuan hartuta prestazioa subsidiarioa eta osagarria dela, zenbateko horiek ezin izango dira osatu izaera bereko beste laguntza edo prestazio batzuen bidez; halakorik egonez gero, diru-sarreretat hartuko dira prestazioaren zenbatekoaren kalkulurako. Aurrekoa bosgarren xedapen iragankorrean jasotakoaren kalterik gabe ulertu beharko da.

22. artikulua.– Sorraraztea eta ordaintzea

Diru-sarrerak bermatzeko errenta, edozein izanik ere modalitatea, eskabidea aurkezten den egunaren biharamunetik aurrera sorraraziko da.

23. artikulua.– Eskubidearen iraupena

1.– Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea, errentaren modalitatea edozein izanik ere, aitortuta gelditzen da errenta hori ematea eragin zuten arrazoiek bere horretan dirauten bitartean eta lege honetan jasotzen diren betebeharrak betetzen diren bitartean. Bi urterako emango da, eta bi urterik behin berritu ahalko da, baldin eta arrazoi horiek bere horretan badiraute eta prestazioa eskuratzeko baldintzak -ekonomikoak edo beste izaera batekoak- betetzen jarraitzen bada.

2.– Prestazioaren ordainketa ez eteteko, hura ematea eragin zuten arrazoiek bere horretan dirautu bitartean, eskabidea berritzeko prozesua prestazioa azkendu baino hiru hilabete lehenago egiten hasi beharko da. Aurrekoaren ondorioetarako, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak titularrei jakinaraziko die, kasu bakoitzean dagokion egunean, eskabidea tramitatzen hasi behar dutela berritzeko.

3.– Aurrekoa hala izanik ere, lege honen erregelamenduzko garapenean zehaztuko da zein kolektibori luzatuko zaien automatikoki prestazioa eskabidea berritu beharrik gabe. Horien artean sartuko dira gizarteratzeko eta gizarte-babeseko oinarritzko errentaren titular direnak, baldin eta bizi-kidetzaren unitateko kide guztiek erretiro-pentsioa edo ezintasun iraunkor absolutuko, baliaezintasun handiko edo kotizazio gabeko baliaezintasuneko pensioa jasotzen badute, edo Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren iritziz, dagokien kasuetan udalen gizarte-zerbitzuekin lankidetzan eta haien iritzia kontuan harturik, epe laburrean edo ertainean lan-merkatura sartzeko egoeran ez badaude.

24. artikulua.– Aldiroko berrikuspenak.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak berrikuspena egingo du hiru hilabetero prestazioaren kontrol telematikora gehituz doazen eskakizunei dagokienez; nolana ere, egokitzat jotzen den behar adina berrikuspen egin ahalko ditu, prestazioa ematea eragin duten kausek bere horretan dirauten egiaztatze aldera.

Berrikuste– eta gainbegiratze-lanak egiteko behar-beharrezkoak diren datuak eta txostenak eskatu ahal izango dizkie Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren barruan lankide diren gainerako administrazioei eta erakundeei.

25. artikulua.– Zenbatekoa aldatzea

1.– Diru-sarrerak bermatzeko errentaren zenbatekoa aldatzeko arrazoi izango da, errenta horren modalitatea edozein izanik ere, bizikidetzaren unitateko kideen kopurua aldatu izana edo prestazioa kalkulatzeko oinarritzat hartutako baliabideak aldatu izana.

Aurrekoa gorabehera, laneko diru-sarrerak osatzeko errentaren kasuan, prestazioaren zenbatekoa kalkulatzeko oinarritzat hartutako baliabideetan izandako aldaketak ez dira kontuan hartuko, baldin eta hasieran ezarritako kopuruaren portzentaje jakin baten barruan sartzen badira. Portzentaje hori erregelamendu bidez ezarriko da.

2.– Zenbatekoa aldatzeko prozedura erregelamendu bidez zehaztuko da, eta prozedura horretan jaso behar da, hain zuzen ere, aldaketa eragin duen gertaera izan eta hurrengo hilaren 1etik aurrera aplikatuko direla aldaketaren ondorioak.

26. artikulua.– Eskubidea etetea

1.– Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea eten egingo da, edozein izanik ere errenta horren modalitatea, arrazoi hauengatik:

a) Eskubidea aitortzeko eskatzen diren baldintzetakoren bat aldi batean galtzea.

b) Titularrak edo haren bizikidetzaren unitateko kideren batek prestazioa eskuratzean bere gain hartutako betebeharren bat aldi batean ez betetzea. Bereziki,

– Dagokion gizarte-zerbitzuak gizarteratzeko hitzarmena egin behar dela iritzi arren, hitzarmen bat negoziatzeari edo sinatzeari uko egitea.

– Indarrean dagoen gizarteratzeko hitzarmen baten barruan hartutako konpromisoak ez betetzea.

– Aplikatzekoa denean, laneratzeko prest ez egotea, enplegu-eskatzaile gisa izena emanda ez egotea edo enplegu bat errefusatzea.

– Aplikatzekoa denean, diru-sarreraren maila hobetzea ekarriko luketen enplegu-baldintzen aldaketak errefusatzea.

c) Arau-hauste bat baino gehiago batera gertatzea, lege honen 104. artikuluan aurreikusten den moduan.

2.– Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea eteteak prestazioaren ordainketa etetea ekarriko du, eskubidea eteten den dataren hurrengo hilabeteko lehenengo egunetik hasita, eta mantenduko da hori eragin duten inguruabarrek irauten duten bitartean, baina inoiz ez hamabi hilabetetik gorako aldi jarraitu batean, zeina pasa ondoren prestazioa jasotzeko eskubidea iraungi egingo baita.

3.– Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea etetea eragin zuten arrazoiak desagertzen direnean, prestazioa sorrarazteko baldintzak une horretan badauden ala ez egiaztatuko da, ofizioz edo interesdunak eskatuta, eta, baldin badaude, prestazioaren zenbatekoa ezarriko da. Prestazioa hura eteteko arrazoiak desagertzen diren egunaren biharamunetik aurrera sorraraziko da.

27. artikulua.– Kautelaz etetea

Organo eskudunak prestazioaren ordainketa kautelaz etetea erabaki ahalko du, baldin eta bizikidetzaren unitatean zantzen batzuk detektatzen badira prestazioa jasotzeko eskubidea aitortzeko

edo mantentzeko eskatutako baldintzetakoren bat galdu dela adierazten dutenak; eta gehienez ere hiru hilabeteko epean, prestazioa kautelaz eten denetik kontatzen hasita, ebatziko du prestazioa jasotzeko eskubidea mantentzea, etetea edo azkentzea. Baldin eta prestazioa mantentzea ebazten bada, prestazioa etenda egon den bitartean jaso ez dituen zenbatekoak jasotzeko eskubidea aitortuko zaio prestazioaren titularrari.

28. artikulua.– Eskubidea iraungitzea.

1.– Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea, edozein modalitatetan, ondorengo arrazoiengatik iraungiko da:

- a) Prestazioaren titularra hiltzea, pertsona bakarreko bizikidetzaren unitateak direnean.
- b) Prestazioaren bi urteko indarraldia amaitzea, Administrazioak hala eskatu ondoren berritzea eskatzen ez bada.
- c) Behin betiko galtzea eskubidea aitortzeko exijitutako eskakizunetako bat.
- d) Etete-egoera bat hamabi hilabetetik gorako denbora jarraituan mantentzea.
- e) Ez betetzeagatiko bi eten egotea prestazioa indarrean dagoen bi urteko aldian.
- f) Titularrak uko egitea.
- g) Zigor-prozedura batek hala ebaztea.
- h) Ez betetzea lege honetako 19.1.b artikuluan ezarritako betekizuna.
- i) Aplikatzeko modukoa denean, behin uko egitea, arrazoi justifikaturik gabe, indarreko lege-diaren arabera egokia den enplegu bati edo diru-sarrerak handitzea ekar lezakeen lan-baldintzen hobekuntza bati.

2.– Prestazioaren titularra hiltzen den kasuan, bizikidetzaren unitateak pertsona bakarrekoak ez baldin badira, prestaziorako eskubidea ez da iraungiko, baizik eta titularraren senar-emaztea edo titularrari ezkontzaren antzeko etengabeko harreman batekin lotutako pertsona prestazio ekonomikoaren titulartasunean subrogatuko da, espediente berririk hasi behar izan gabe, eta halako pertsonarik ez baldin badago, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak egokientzat jotzen duten bizikidetzaren unitateko kidea subrogatuko da.

3.– Prestazioa iraungiko balitz betebeharrak ez betetzeari edo hutsak egiteari lotutako kausengatik, titularrak ez du izango aukerarik diru-sarrerak bermatzeko errenta, bere ezein modalitatetan, berriro eskatzeko urtebetean, iraungitze-datatik zenbatzen hasita. Ondorio berbera eratorriko da artikuluko honetako 1.d eta 1.e idatz-zatietan jasotako etete-kasuei lotutako iraungitze batetik.

4.– Prestaziorako irispidea urgentziatzeko prozeduraz eta lehentasunez tramitatuko da, hilabetetik gorakoa ezin izan daitekeen epe batean, baldin eta ordura arte titularra zen pertsonari zegokion diru-sarrerak bermatzeko errentarako eskubidea iraungitzeak edo mantentzeak ageriko kalteak ekartzen badizkie familia-unitateko gainontzeko kideei.

2. ATALA

ETXEBIZITZAKO GASTUETARAKO PRESTAZIO OSAGARRIA

29. artikulua.– Definizioa

1.– Etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarria prestazio ekonomikoa da, aldizkakoa, eta diru-sarrerak bermatzeko errentaren osagarri gisa eratzen da, edozein izanik ere errenta horren modalitatea, prestazio horien titularren ohiko etxebizitza edo bizitokiarekin zerikusia duten premiei aurre egiteko helburuaz.

2.– Ondorio horietarako, etxebizitzarekin zerikusia duten premiatzat joko dira ohiko etxebizitza edo bizitokiaren alokairu-gastuak.

30. artikulua.– Eskubide subjektiboa

Etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarria eskubide subjektiboa da, eta prestazio hori lorzeko berariaz araututako baldintzak betetzen dituzten guztientzat da.

31. artikulua.– Ezaugarriak

1.– Etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarria ezin izango da erabili ematean jarritako helbururako baino.

2.– Subsidiarioa eta, hala badagokio, osagarria izango da ohiko etxebizitza edo bizitokia eduki eta mantentzearekin zerikusia duten eta indarreko legerian aurreikusten diren era guztietako baliabide eta prestazio ekonomikoei dagokienez, horiek titularrari edo haren bizikidetzta-unitateko edozein kideri legezkioketean.

3.– Transferiezina izango da, eta, horrenbestez:

- a) Ez da obligazio-berme gisa eskaintzerik egongo.
- b) Ez da lagatzerik egongo, ez osorik, ezta partzialki ere.
- c) Ez da konpentsatzerik edo deskontatzerik egongo, jaso behar ez ziren prestazioak itzultzeko izan ezik.
- d) Ez da atxikitzerik edo bahitzerik egongo, aplikatzekoak diren Estatuko lege orokorretan aurreikusitako kasuetan eta mugekin izan ezik.

32. artikulua.– Eskubidearen titularrak

1.– Etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarriaren titularra izateko, baldintza hauek bete behar dira:

- a) Diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularra izatea, bi modalitateetako edozeinetan.
- b) Titularrak lege honen 29. artikuluan jasotzen diren ohiko etxebizitza edo bizitokiko aldizkako gastuei aurre egiteko premia izatea.
- c) Etxebizitza Sailaren Etxebide zerbitzuan alokairuko etxebizitza baten eskatzaile gisa izena emanda edo izena emateko eskaera eginda egotea. Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza-politiketako plangintza estrategikoan kontuan hartuko da etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarriaren jasotzaileen lehentasuna.

2.– Ezin izango dira etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarriaren titularrak izan, alokairu-gastuei aurre egiteko, etxebizitza bat alokairuan edo jabetzan dutenak, baldin eta etxebizitza hori babes publikokoa bada eskabidea egitean indarrean dagoen legerian aurreikusitakoaren arabera.

3.– Ezin izango dira etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarriaren titularrak izan, alokairu-gastuetarako, dagoeneko etxebizitza bat jabetzan dutenak, salbu banantzeagatik edo dibortzioagatik beren ohiko etxebizitza edo bizitokia utzi behar izan duten pertsonak, edo erregelamendu bidez zehaztuko diren beste arrazoiren batzuegatik, hala nola kaleratuak izateagatik, utzi behar izan dutenak.

33. artikulua.– Titular bat baino gehiago batera gertatzea

1.– Baldin eta etxebizitza edo bizitoki berean bi bizikidetzaren unitate edo gehiago bizi badira, beren artean ahaidetasun-loturak dituztela 9.2 a) eta b) artikuluan ezarritakoaren arabera, unitate bati bakarrik eman ahalko zaio etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarria. Horrela gertatuz gero, prestazioa aurrena eskatu duenari emango zaio.

2.– Baldin eta etxebizitza edo bizitoki berean bi bizikidetzaren unitate edo gehiago bizi badira, beren artean inolako ahaidetasun-loturarik izan gabe 9.1.c artikuluan aurreikusitakoaren arabera, unitate horiek guztiek, ezarritako baldintzak betez gero, etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarria lortu ahalko dute; mugak erregelamendu bidez ezarriko dira, bai etxebizitza edo bizitoki bakoitzeko jaso daitezkeen gehienezko laguntza-kopuruari dagokionez, baita kasu horietan prestazio bakoitzeko eman daitezkeen gehienezko zenbatekoei dagokienez ere.

34. artikulua.– Titularren betebeharrak

Etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarriaren titularrak obligazio hauek izango ditu:

- a) Prestazioa zein helburutarako eman den, horrexetarako baino ez erabiltzea.
- b) Eskabidea egin aurretik, baita prestazioa jaso bitartean ere, legokiokeen eskubide edo prestazio ekonomiko oro baliatzea.
- c) Prestazioa eskuratzeko baldintzak betetzeari dagokionez, gerora izandako gertaerak jakinaraztea, erregelamendu bidez ezarriko den epean.
- d) Titularren ohiko bizilekuaren helbideari dagokionez edozein aldaketa egonez gero, horren berri ematea, erregelamendu bidez ezarriko den epean.
- e) Ez zegozkien prestazioen zenbatekorik edo behar baino zenbateko handiagorik jasoz gero, zenbateko hori itzultzea.
- f) Administrazioaren aurrean agertzea eta harekin lankidetzan aritzea, hori eskatzen bazaie.
- g) Dagokion modalitatean, diru-sarrerak bermatzeko errentaren titular gisa dituen betebeharrak betetzea.
- h) Etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarriaren xedetik eta helburutik sortzen diren betebeharrak guztiak eta erregelamendu bidez ezarriko direnak.

35. artikulua.– Zenbatekoa finkatzea

1.– Oro har, lege honen 29.2 artikuluan aurreikusitako gastu-kontzeptu bakoitzari dagokion gehienezko zenbatekoa erregelamendu bidez ezarriko da.

2.– Aurreikusitako gastu-kontzeptu bakoitzeko eskatzaile bakoitzari aplika dakioken gehie-
nezko zenbatekoa laguntzaren helburu ziren kontzeptuetan eginiko gastuek mugatuko dute.
Gastuok behar bezala egiaztatu beharko dira.

36. artikulua.– Prestazioa ematea.

Etxebizitzako prestazio osagarria eman aurretik Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak beti
egiaztatuko du ea eskatzailea benetan laguntza-premian dagoen 29.2 artikuluan aurreikusitako
etxebizitza-gastuei dagokienez.

37. artikulua.– Sorraraztea eta ordaintzea

1.– Etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarriari dagokionez, haren titularra izateko eska-
bidea aurkezten den egunaren biharamunetik aurrera sorraraziko da prestazioa. Egun horretatik
aurrera titular hori ezin izango da gizarte-larrialdietarako laguntzen onuradun izan, 58.3 artikuluan
aurreikusitakoa gertatu ezean.

2.– Etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarria hilabetea amaitu eta gero ordainduko da,
prestazio horrek osatzen duen diru-sarrerak bermatzeko errentarekin batera, azken horren moda-
litatea edozein izanda ere.

38. artikulua.– Eskubidearen iraupena

Etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarria jasotzeko eskubidearen aitortzea mantendu
egingo da prestazio hori emateko arrazoiek bere horretan dirauten bitartean, eta, horrez gain,
titularrek bete beharreko baldintzak betetzen badituzte eta diru-sarrerak bermatzeko errentaren
titularrak izaten jarraitzen badute, edozein izanik ere errenta horren modalitatea.

39. artikulua.– Aldian-aldian berrikustea

Organo eskudunak ofizioz egingo ditu aldizkako berrikuspenak, prestazioa ematea eragin zuten
arrazoiek bere horretan dirauten egiaztatuz, eta, ondorio horietarako, eskubidearen titularrei,
modalitatea edozein izanik ere, Administrazioaren aurrean ager daitezela eta harekin lankidetzan
jardun dezatela eskatu ahalko die.

40. artikulua.– Zenbatekoa aldatzea

1.– Etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarriaren zenbatekoa aldatzeko arrazoi izango
da prestazioarekin aurre egin nahi zaien gastuen zenbatekoak aldatu izana edo ezartzen diren
mugak aldatu izana.

Aurrekoa gorabehera, prestazioaren zenbatekoa kalkulatzeko oinarritzat hartutako baliabidee-
tan izandako aldaketak ez dira kontuan hartuko, baldin eta hasieran ezarritako zenbatekoaren
portzentaje baten barruan badaude. Portzentaje hori erregelamendu bidez ezarriko da.

2.– Zenbatekoa aldatzeko prozedura erregelamendu bidez ezarriko da, eta prozedura horretan
jaso beharko da, hain zuzen ere, aldaketa eragin duen gertaera izan eta hurrengo hilaren 1etik
aurrera aplikatuko direla aldaketaren ondorioak.

41. artikulua.– Eskubidea etetea

1.– Etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarria jasotzeko eskubidea eten egingo da prestazio
horrek osatzen duen diru-sarrerak bermatzeko errenta eteten den unean, errentaren modalitatea
edozein izanda ere.

2.– Horrez gain, nahiz eta osatzen duen prestazioa eten ez, ondorengo kasuetan ere eten egingo da:

a) Ohiko etxebizitza edo bizitokiaren alokairu-gastuak behar bezala egiaztatu ezean.

b) Arau-hauste bat baino gehiago batera gertatzea, lege honen 104. artikuluan aurreikusten den moduan.

c) Titularrak 34. artikuluan jasotako baldintza edo betebeharren bat bete ezean.

3.– Eusko Jaurlaritzak erregelamendu bidez zehaztuko ditu 2. paragrafoan jasotako xedapenen inguruan aplika daitezkeen salbuespenak.

4.– Etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarria jasotzeko eskubidea etetearekin batera, utzi egingo zaio prestazioa ordaintzeari, eta horrelaxe jarraituko da ordainketa etetea ekarri duen egoerak bere horretan dirauen bitartean. Etenaldia ez da inoiz ondoz ondoko 18 hilabete baino luzeagoa izango; behin epe hori igaroz gero, prestazioa jasotzeko eskubidea azkendu egingo da.

5.– Artikulu honetan aurreikusitako etete-kasuetan, ez da egongo gizarte-larrialdietako laguntzetarako inolako espedienterik izapidetzerik, ez etendako etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarriaren titularrak eskatuta, ezta haren bizikidetzaren unitateko beste edozein kidek eskatuta ere, etxebizitzarekin zerikusia duten eta legen honen 44.2.a artikuluan jasota dauden gastuetako ezeini dagokionez.

6.– Etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarria jasotzeko eskubidea etetea eragin zuten arrazoiak desagertzen direnean, prestazioa sorrarazteko baldintzak une horretan badauden ala ez egiaztatuko da, eta, baldin badaude, prestazioaren zenbatekoa ezarriko da. Prestazioa hura eteteko arrazoiak desagertu eta hurrengo hilaren lehen egunetik aurrera sorraraziko da.

42. artikulua.– Kautelaz etetea

Organo eskudunak prestazioaren ordainketa kautelaz etetea erabaki ahalko du, baldin eta zantzuren batzuk detektatzen badira prestazioa jasotzeko eskubidea aitortzeko edo mantentzeko eskatutako baldintzetakoren bat galdu dela adierazten dutenak, eta hiru hilabeteko epean ebatziko du prestazioa jasotzeko eskubidea mantentzea, etetea edo azkentzea. Nolanahi ere, diru-sarrerak bermatzeko errenta kautelaz eteteak berekin ekarriko du etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarria etetea. Baldin eta prestazioa mantentzea ebatzen bada, prestazioa etenda egon den bitartean jaso ez dituen zenbatekoak jasotzeko eskubidea aitortuko zaio prestazioaren titularrari.

43. artikulua.– Eskubidea azkentzea

1.– Etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarria jasotzeko eskubidea azkendu egingo da arrazoi hauengatik:

a) Etxebizitza bat alokairu sozialean erabiltzeko bermea ematea sektore publikoak.

b) Prestazio honek osatzen duen diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea azkentzea, edozein izanik ere errenta horren modalitatea.

c) Titularra hiltzea, pertsona bakarreko bizikidetzaren unitateen kasuan.

d) Eskubidea aitortzeko eskatzen diren baldintzetakoren bat betiko galtzea.

e) Ohiko etxebizitza edo bizitokia alokatzeko gastuei aurre egiteko premia desagertzea.

f) Etenaldiak ondoz ondoko 18 hilabete baino gehiago irautea.

g) Prestazioaren bi urteko indarraldian hiru etenaldi izatea.

h) Zehapen-prozeduraren batek horixe ebaztea.

i) Ohiko etxebizitza edukitzearekin eta mantentzearekin zerikusia duten eta prestazioaren titularrari edo haren bizikidetzaren unitateko edozein kideri zor zaizkion eskubide eta gizarte-prestazio ekonomikoak baliatzeko betebeharra ez betetzea.

j) Titularrak prestazioari uko egitea.

2.– Prestazioaren titularra hiltzen bada, bizikidetzaren unitateak pertsona bakarrekoak ez diren kasuetan prestazioa jasotzeko eskubidea ez da azkenduko, baizik eta zendutakoaren ezkontidea edo harekin ezkontzaren antzeko harreman iraunkor baten bidez batuta zegoen pertsona subrogatuko da prestazio ekonomikoaren titulartasunean beste espediente bati hasiera eman beharrik gabe, eta horrelako pertsonarik egon ezean, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren iritziz bizikidetzaren unitateko kiderik egokiena dena.

3.– Etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarria jasotzeko eskubidea azkendu edo mantenduz gero, horrek kalte nabarmenak ekartzen badizkie ordura arte eskubidearen titularra izan denaren bizikidetzaren unitateko gainerako kideei, urgentziaz eta lehentasunez egingo dira prestazioa eskuratzeko izapideak.

3. ATALA

GIZARTE LARRIALDIETARAKO LAGUNTZAK

44. artikulua.– Definizioa eta ezaugarriak

1.– Gizarte-larrialdietarako laguntzak diru-laguntzak dira, aldi-aldi emango ez direnak, eta haien hartzaileak hauek izango dira: gizarte-bazterkeria prebenitzeko, saihesteko edo arintzeko beharrezko diren gastu espezifikoak, ohikoei nahiz ezohikoei, aurre egiteko behar beste baliabide ez duten pertsonak.

2.– Aipatutako baliabidetzat joko dira, nolahi ere, ondorengo gastuak:

a) Ohiko etxebizitza edo bizitokia eduki eta mantendu ahal izateko beharrezko diren gastuak, ondorengo guztiak barne:

– Alokairu-gastuak.

– Gizarte-larrialdian egon aurretik etxebizitza edo bizitokia erostearen ondorioz hartutako kredituen interesek eta amortizazioak eragindako gastuak.

– Energia-, ur-, estolderia- eta zabor-gastuak, baita ondasun higiezinaren gaineko zergari dagozkionak ere, ondasunak landa- zein hiri-eremuak izan.

– Ohiko etxebizitzan edo bizitokian bizi ahal izateko eta bertan oinarritako osagaiak edukitzeko beharrezko gastuak.

b) Bizikidetzaren unitateko kide baten edo gehiagoren oinarritako beharrei dagozkien gastuak, hala nola janztekoari, hezkuntza eta prestakuntzari eta osasun-arretari dagozkienak, sistema publikoek gastu horiei aurre egiten ez dietenean.

c) Aurretiko zorpetzearen gastuak, a) eta b) idatz-zatietan aipatutako gastu-kontzepturen batek edo bizitzako oinarritako premiei aurre egiteko gastuak sortuak.

45. artikulua.– Ezaugarriak

1.– Gizarte-larrialdietarako laguntzak helburu jakin baterako dira; beraz, helburu horretarako baino ezin dira erabili.

2.– Subsidiarioak eta, hala badagokio, osagarriak izango dira indarreko legerian aurreikusten diren ekonomia-erakundeak era guztietako gizarte-baliabide eta -prestazioei dagokienez, horiek onuradunari edo haren bizikidetzaren unitateko edozein kideri legezkoekin, bai eta ohiko etxebizitza edo bizitoki berean bizi diren beste pertsona batzuei legezkoekin ere.

3.– Transferiezinak izango dira, eta, horrenbestez:

a) Ez da obligazio-berme gisa eskaintzerik egongo.

b) Ez da lagatzerik egongo, ez osorik, ezta partzialki ere.

c) Ez da konpentsatzerik edo deskontatzerik egongo, jaso behar ez ziren prestazioak itzultzeko izan ezik.

d) Ez da atxikitzerik edo bahitzerik egongo, aplikatzekoak diren Estatuko lege orokorretan aurreikusitako kasuetan eta mugekin izan ezik.

4.– Gizarte-larrialdietarako laguntzek diru-laguntza izaera edukiko dute eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan helburu horretarako nahikoa kreditu dagoen neurrian emango dira. Nolanahi ere, laguntza horiei erantzuteko adinako diru-kopuruak izendatuko dituzte urtero Euskadiko administrazio publikoek.

46. artikulua.– Gizarte-larrialdietarako laguntzen onuradunak

Ondoko baldintzak betetzen dituztenak izan daitezke, lege honetan aurreikusitako moduan, gizarte-larrialdietarako laguntzen onuradunak:

a) Laguntza zein udalerritan eskatu den, bertan erroldatuta egotea eta benetan bizitzea, eta Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan benetan bizitzea gutxienez eskabidea aurkeztu baino sei hilabete lehenagotik, bigarren xedapen gehigarrian aurreikusitako moduan.

Gutxieneko epe hori bete ezean, eskatzaileak Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan erroldatuta egona eta bertan benetan bizia izan beharko du bost urtez, etenik gabe, aurreko hamar urteen barruan.

b) Bizikidetzaren unitate bat osatzea. Erregelamendu bidez zehaztuko da unitateak zenbat denbora lehenagotik eratua behar duen.

c) Ez izatea etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarriaren hartzaileak, lege honen 58.3 artikuluan adierazitako kasuetan salbu.

d) 18 urte izatea. Gutxieneko adin-muga horretatik salbu daude gazteago izanik ondorengo egoeraren batean daudenak, baldin eta gainerako baldintzak betetzen badituzte:

– Beste adingabe batzuk zein ahalmen-urritasunen bat duten adindunak edo mendekotasuna onartuta duten adindunak ekonomikoki beren ardurapean izatea.

– Aitarik eta amarik gabeko umezurtzak.

– Ezkontuta edo ezkontzaren antzeko harreman iraunkor baten bidez beste pertsona batekin loturik egotea gutxienez sei hilabete lehenagotik.

– Etxeko tratu txarraren biktimak izatea.

e) Lege honen 44.2 artikuluan jasotako berariazko gastuei aurre egiteko behar beste baliabide ez izatea, baldin eta horiek haien bizikidetzaren unitateko kideei eragiten badiete; hala, ez dagoela behar beste baliabide ulertuko da ondoren azaltzen diren baldintzak betetzen direnean:

– Azken urtean edo prestazioen bidez aurre egin nahi zaien gastuek hartzen duten edo hartuko duten denboraldian, errendimenduak, titulu honetako II. kapituluaren ezarritakoaren arabera zehaztuak, ez izatea etxebizitza-unitateko kideen kopuruaren arabera legokiokeen gizarteratzeko eta gizarte-babeserako oinarrizko errentaren gehienezko zenbatekoaren % 150 baino handiagoak. Hori horrela izanik ere, eta erregelamendu bidez zehaztuko diren kasuetan, beste pertsona batzuen errendimenduak ere aintzat hartu ahalko dira, hain zuzen ere eskatzailearekin etxebizitza edo bizitoki berean bizi eta prestazioen onuradun izan litezkeen gainerako pertsonen errendimenduak.

– Lege honen 9.2 artikuluan eta garapen-erregelamenduetan aurreikusitakoaren arabera bizikidetzaren unitateetatik jo daitezkeen pertsonen kasuan, eta horiek etxebizitza edo bizitoki berean beste pertsona batzuekin bizi direnean eta horiekin 9.1.b artikuluan aurreikusitako loturaren bat dutenean, pertsona horiek guztiek dagokion denboraldirako batera dituzten errendimendu propioak txikiagoak izatea gizarteratzeko eta gizarte-babeserako oinarrizko errentaren gehienezko zenbatekoa halako hiru baino, kontuan izanda ezen oinarrizko errenta hori, batere baliabiderik ez luketen kasuan, beren artean artikuluko horretan aipatzen diren loturak dituzten pertsonen kopuru osoaren arabera legokiokeena dela.

f) Ondarea ez izatea gizarteratzeko eta gizarte-babeserako oinarrizko errentaren urteko zenbatekoa halako lau baino balio handiagokoa, kontuan izanda ezen oinarrizko errenta hori, batere baliabiderik ez luketen kasuan, beren artean aipatu diren loturak dituzten pertsonen kopuru osoaren arabera legokiokeena dela. Ondarearen balioa titulu honetako II. kapituluaren araututakoaren arabera zehaztuko da.

g) Gizarte-larrialdietarako laguntzak alokairu-gastuei aurre egiteko erabiltzen direnean, Etxebizitza Sailaren Etxebide zerbitzuan etxebizitza-eskatzaile gisa izena emanda egotea.

47. artikulua.– Onuradun bat baino gehiago batera gertatzea

Baldin eta etxebizitza edo bizitoki berean bizikidetzaren unitate bat baino gehiago badaude, haien artean 9.1.b artikuluan aurreikusitako loturarik egon gabe, unitate horiek guztiek izango dute, ezarritako baldintzak betetzeko, gizarte-larrialdietarako laguntzak lortzea; mugak erregelamendu bidez ezarriko dira, bai etxebizitza edo bizitoki bakoitzeko jaso daitezkeen gehienezko laguntza-kopuruari dagokionez, baita kasu horietan laguntza bakoitzeko eman daitezkeen gehienezko zenbatekoari dagokienez ere.

48. artikulua.– Onuradunen betebeharrak

Gizarte-larrialdietarako laguntzen onuradunek betebeharrak hauek izango dituzte:

- a) Prestazioak zein helburutarako eman diren, horrexetarako baino ez erabiltzea.
- b) Eskabidea egin aurretik, baita laguntzak jasotzen dituzten bitartean ere, legokiokeen esku-bide edo prestazio ekonomiko oro baliatzea.
- c) Prestazioa eskuratzeko baldintzak betetzeari dagokionez, gerora izandako aldaketak jakinaraztea, erregelamendu bidez ezarriko den epean.
- d) Onuradunaren ohiko bizilekuari dagokionez edozein aldaketa egonez gero, horren berri ematea, erregelamendu bidez ezarriko den epean.

e) Ez zegozkien prestazioen zenbatekorik edo behar baino zenbateko handiagorik jasoz gero, zenbateko hori itzultzea.

f) Administrazioaren aurrean agertzea eta harekin lankidetzan aritzea, hori eskatzen bazaie.

g) Gizarte-larrialdietarako laguntzen xedetik eta helburutik sortzen diren betebeharrak guztiak eta erregelamendu bidez ezarriko direnak.

49. artikulua.– Zenbatekoa finkatzea

1.– Oro har, erregelamendu bidez ezarriko dira lege honen 44.2 artikuluan aurreikusitako berariazko gastu bakoitzerako gehienezko zenbatekoak, gizarte-larrialdietarako laguntza gisa, eta ez da egongo, inola ere, horiek gainditzerik.

2.– Lege honen 44.2 artikuluan aurreikusitako berariazko gastu bakoitzeko eskatzaile bakoitzari aplikatu beharreko zenbatekoa finkatzeko, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

a) Eskatzaile bakoitzari aplikatu beharreko gehienezko zenbatekoa, aurreikusitako berariazko gastu bakoitzeko, honako hauek kontuan hartuta kalkulatu da:

– Eskatzailearen eta haren bizikidetzaren unitateko gainerako kideen baliabide-maila, baita, hala badagokio, laguntzen onuradun izan litezkeen gainerako pertsonena ere.

– Egindako edo egitekoak diren berariazko gastuen zenbatekoa.

– Artikulu honen 1. paragrafoan aipatzen diren gehienezko zenbatekoak.

b) Aplikatzekoa den gehienezko zenbatekoa honako hauen arabera finkatuko da:

– Aurrekontuko baliabideak.

– Gizarte-zerbitzuek ondorengoak egiaztatzen dituzten balorazioa: gastua benetan beharrezkoa den eta laguntza-premia duten pertsonak gizarteratzen laguntzeko garrantzitsua den edo lehentasunezkoa den.

3.– Bizikidetzaren unitate bakoitzak gizarte-larrialdietarako laguntza gisa ondoz ondoko aldietan jaso ahalko duen gehienezko zenbatekoa erregelamendu bidez ezarriko da.

Laguntzak ohiko etxebizitza edo bizitokia erosteko hartutako kredituen interesek eta amortizazioak eragindako gastuetarako erabiltzen direnean, ezingo dira zenbatekoan, ezta urte-kopuruan ere, erregelamendu bidez ezarriko dena baino handiagoak izan.

Muga horiek ez zaizkie aplikatuko zahartzaroko pentsioen titularrei.

50. artikulua.– Laguntzak ematea eta ordaintzea

1.– Gizarte-larrialdietarako laguntzak eman aurretik, gizarte-zerbitzuek beti egiaztatu beharko dute benetako premia-egoera dagoela; era berean, egiaztatu beharko da badagoela helburu horretarako esleitutako kreditua.

2.– Gizarte-larrialdietarako laguntzak haiek onartzen dituen ebazpenean aurreikusitako moduan ordainduko dira, eta ebazpena eman duen organoak egingo du ordainketa.

3.– Gizarte-zerbitzuek ezarritakoaren arabera, prestazioak zatika edo denak batera ordaindu ahalko dira. Prestazioak emateko ebazpenean, organo eskudunak zehaztuko du nola egingo den zehazki ordainketa, eta epe bat ezarriko du egindako gastuen fakturak edo dagozkien frogagiriak

aurkezteko. Fakturak edo frogagiriak aipatutako epean aurkezten ez badira, laguntzak itzultzeko prozedurari ekingo zaio, hala badagokio.

51. artikulua.– Aldian-aldian berrikustea

Organo eskudunak berrikuspenak egingo ditu, sei hilabetero, prestazioa ematea eragin duten arazoiek bere horretan dirauten egiaztatzeko. Ondorio horretarako, laguntzen onuradunei Administrazioaren aurrean ager daitezela eta lagun diezaiotela eskatu ahalko zaie.

II. KAPITULUA

BALIABIDE MAILA ZEHAZTEA

52. artikulua.– Baliabide orokorrak zehaztea

Lege honetan jasotako prestazioen ondorioetarako, eskatzailearen eta haren bizikidetz-unitateko gainerako kideen baliabideak zehazteko, baita, horrela dagokionean, 9.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera prestazioen onura har dezaketen gainerako pertsonenak zehazteko ere, pertsona horien denen baliabide guztiak hartuko dira kontuan.

53. artikulua.– Errendimenduak zehaztea

1.– Errendimenduak zenbatzerakoan, norberaren konturako edo besteren konturako lanetik, ondaretik, pentsioetatik edo beste edozein titulutatik datozenak hartuko dira kontuan.

2.– Diru-sarrerak bermatzeko errentaren edozein modalitatetan, errendimenduak zenbatzerakoan ez dira sartuko eskatzaileari, haren bizikidetz-unitateko gainerako kideei edo, hala badagokio, 9.2 artikuluan aurreikusitako gainerako pertsonen dagozkien diru-sarrera eta gizarte-prestazio jakin batzuk, helburu jakin baterako emandakoak, erregelamendu bidez zehaztuko den moduan.

Gainera, errentaren modalitatea laneko diru-sarrerak osatzeko errenta denean, eta lanerako bultzagarria sendoagoa izan dadin, zenbaketa horretatik kanpo utziko dira eskatzailearen eta haren bizikidetz-unitateko beste kide batzuen lanetik datozen diru-sarreraren portzentaje jakin batzuk, lana norberaren konturakoa zein besteren konturakoa izan. Lanerako bultzagarri hori aldi baterakoa izango da, erregelamendu bidez zehaztuko den moduan, salbu enplegu-zerbitzuek luzatzea gomendatzen badute berariazko irizpen baten bidez.

3.– Errendimenduak hilean zenbatzen direnean, zenbaketa eskaera egin den hilean egingo da. Zenbaketa hilabete bat baino gehiago igaro ostean egiten denean, igarotako aldiko hilabete guztiak hartuko dira kontuan.

54. artikulua.– Ondarea zehaztea

1.– Bizikidetz-unitateak zer ondare duen zehazteko, ondasun higigarri eta ondasun higiezin guztiak hartuko dira kontuan, betiere haien gaineko jabetza-, edukitza- edo gozamen-titulukoak badu.

2.– Bizikidetz-unitatearen ondarearen balorazioa egiterakoan, kanpoan utziko da unitatearen ohiko bizileku den etxebizitza edo bizitokia, salbu eta jabetzako etxebizitza bada eta 600.000 eurotik gorako balioa badu, erregelamendu bidez ezarriko den moduan. Nolanahi ere, halakoetan, ondasun horrek aparteko balioa duenentz zehazteko, etxebizitza erabiliaren batez besteko prezioa hartu beharko da kontuan, adierazle ofizialak baliatuta eta erregelamendu bidez ezarriko den moduan.

3.– Era berean, ondarearen baloraziotik kanpo geratuko da familiaren ostilamendua, salbu eta hartan 120.000 eurotik gorako balioko ondasunak badaude.

III. KAPITULUA

PRESTAZIOEN ARAUBIDE EKONOMIKOA

55. artikulua.– Jaso behar ez zirela jasotako prestazioak

1.– Lege honetan aurreikusitako edozein prestazio eman duten administrazioek kobratu egin beharko dituzte jaso behar ez zirela jasotako prestazioak.

2.– Jaso behar ez zirela jasotako prestazioak itzultzean, aurreko paragrafoan aurreikusitako moduan, itzultitako zenbatekoak hasieran aplikatu ziren helburu bererako erabili beharko dira, eza-riko den prozeduraren arabera.

56. artikulua.– Preskripzioa eta iraungipena

1.– Jaso behar ez zirela jasotako zenbatekoak itzultzeko betebeharrari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren eskubideei eta obligazioei aplikatu beharreko araudiaren araberakoa izango da betebeharraren preskripzioa.

2.– Prestazioak oroharreko prezioan eta denak batera jasotzeko eskubidea urtebetara iraungiko da, interesdunari prestazioa onartu zaiola behar bezala jakinarazi zaion egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

3.– Aldizkako prestazioak direnean, hilabete-sari bakoitza jasotzeko eskubidea prestazioaren muga-egunetik urtebetara iraungiko da.

57. artikulua.– Prestazio eta laguntza ekonomikoen zenbateko orokorra

1.– Gehienezko muga bat ezartzen da bizikidetzaren diru-sarreraren konputagarrien eta diru-sarrerak bermatzeko errenta gisa –edozein izanik ere modalitatea–, etxebizitzako gastue-tarako prestazio osagarri gisa eta gizarte-larrialdietarako laguntza gisa bizikidetzaren unitate berari eman ahal zaizkion prestazio eta laguntza ekonomikoen baturaren urteko guztizko zenbatekoaren zat. Muga hori titularrarena bezalako bizikidetzaren unitate bati urtean zegokiokeen diru-sarrerak bermatzeko errentaren modalitatearen gehienezko zenbatekoaren % 200 izango da.

2.– Gizarte-larrialdietarako laguntzen onuradunen kasuan, baldin eta betetzen ari den urtean ez badira diru-sarrerak bermatzeko errentaren ezein modalitatearen titularrak izan, etxebizitzaren unitate horren diru-sarrera konputagarrien guztizkoaren eta urte horretan gizarte-larrialdietarako laguntza gisa onartu zaion guztizkoaren baturak ezin izango du, inola ere, kopuru hau gainditu: titularrarena bezalako bizikidetzaren unitate bati urtean zegokiokeen gizarteratzeko eta gizarte-babeserako oinarriko errentaren gehienezko zenbatekoaren % 200.

3.– Ohiko etxebizitza edo bizitokia erosteko hartutako kredituen interesek eta amortizazioak eragindako gastuei aurre egiteko bizikidetzaren unitate batek jaso ahalko duen gehienezko zenbatekoak ezin izango du erregelamendu bidez ezarritakoa gainditu.

IV. KAPITULUA

BATERAGARRITASUNAK ETA BATERAEZINTASUNAK

58. artikulua.– Bateriaezintasunak eta bateragarritasunak

1.– Diru-sarrerak bermatzeko errentaren bi modalitateak bateraezinak dira elkarren artean.

2.– Diru-sarrerak bermatzeko errenta, edozein izanik ere modalitatea, bateragarria izango da etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarriarekin, baina ez, ordea, alokairu-gastuei aurre egiteko aurreikusten diren gizarte-larrialdietarako laguntzekin.

3.– Etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarria bateraezina izango da lege honen 44. artikuluko 2.a idatz-zatian aipatutako etxebizitza-gastuekin zerikusia duten gainerako gizarte-larrialdietarako laguntzekin. Bateragarria izango da, ordea, gizarte-larrialdietarako laguntzen beste kontzeptuekin, erregelamendu bidez zehaztuko den moduan.

V. KAPITULUA

PROZEDURAKO ARAU KOMUNAK

59. artikulua.– Eskabidea.

1.– Diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzako prestazio osagarria, lege honetan zuzenbidezko prestazio ekonomiko gisa erregulatua, jaso ahal izateko, interesatuak eskabidea egin beharko du lehenago, Eusko Jaurlaritzari zuzenduta, eta erroldatuta dagoen eta benetan bizi den udalerriri dagokion Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren bulegoan aurkeztuko du. Bulego horretan, izapideak egiteko behar dituen informazio eta orientabide guztiak emango zaizkio eskatzaileari.

2.– Gizarte-larrialdietarako laguntzak jaso ahal izateko, interesatuak eskabidea egin beharko du erroldatuta dagoen eta benetan bizi den udalerriko udalari zuzenduta, eta dagokion gizarte-zerbitzuetan aurkeztuko du. Zerbitzu horietan, izapideak egiteko behar dituen informazio eta orientabide guztiak emango zaizkio eskatzaileari.

3.– Eskaerarekin batera, beharrezko diren agiriak aurkeztu beharko dituzte eskatzaileek, lege honetan eta berau garatzeko arauetan ezarritako eskakizunak betetzen dituztela justifikatzeko.

Ez da beharrezkoa izango Administrazioaren esku dagoen eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak eskuratu dezakeen dokumentazioa eranstea, eta ondorioz, beste administrazio eta entitate publiko batzuei eskatu ahal izango dizkie ezinbesteko diren datu eta txosten guztiak. Hori guztia betiere errespetatuz izaera pertsonaleko datuak babesteko legediko datu-kalitatearen printzipioa.

60. artikulua.– Tramitazioa.

1.– Diru-sarrerak bermatzeko errentaren edo etxebizitzako prestazio osagarriaren espedienteak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak izapidetuko ditu. Hark egiaztatuko du aurkeztutako eskabidearen edukia, eta alde horretatik, beharrezko datu eta txostenak eskatu ahal izango dizkie beste administrazio batzuei edo entitate publiko zein pribatuei, edo eskatzaileari berari.

Aurreko paragrafoan aipatutako datuak eta txostenak izan beharko dira, soilik, ezinbestekotzat jotzen direnak eskatzaileak lege honetan ezarritako eskakizunak betetzen dituela egiaztatzeko. Hori guztia betiere errespetatuz izaera pertsonaleko datuak babesteko legediko datu-kalitatearen printzipioa.

2.– Ahal den guztietan, ahalegina egingo da aldi berean tramitatzeko etxebizitzako prestazio osagarria eta prestazio horrek osatzen duen diru-sarrerak bermatzeko errenta.

Aldi berean tramitatzerik egongo ez balitz, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, ekonomia administratiboaren printzipioa aplikatze aldera, diru-sarrerak bermatzeko errenta tramitatzerakoan aurkeztutako agirietara eta egindako egiaztapenetara joko du, eta etxebizitzako prestazio osagarria emateari buruzko dokumentazio espezifiko baina ez du eskatuko.

3.– Diru-sarrerak bermatzearen eta gizarteratzearen arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak hiru hilabetero emango dio informazioa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren bitartez, etxebizitza arloko eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari etxebizitzako prestazio osagarria jasotzen duten pertsoneri buruz, Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza-politikek kontuan izan dezaten, bere jarduketa guztietan, etxebizitzako prestazio osagarria jasotzen duten pertsonen sarrera-lehentasuna dutela.

4.– Gizarte-larrialdietarako laguntzen espedientearen tramitazioa eskabidea egin den udalerriko udalak egingo du. Udalak egiaztatu egingo du aurkeztutako eskabidearen edukia, eta hartarako beharrezko datu eta txostenak eskatu ahalko dizkie beste administrazio edo entitate publiko eta pribatu batzuei, edo eskatzaileari berari. Nolanahi ere, Eusko Jaurlaritzak kontrol, jarraipen eta ikuskapeneko jarduketak egin beharko ditu geroago.

Aurreko paragrafoan aipatutako datuak eta txostenak izango dira, soilik, eskatzaileak lege honetan ezarritako eskakizunak betetzen dituela egiaztatzeko ezinbestekotzat jotzen direnak. Hori guztia betiere errespetatuz izaera pertsonaleko datuak babesteko legediko datu-kalitatearen printzipioa.

61. artikulua.– Baliabide eta prestazio ekonomikoak egiaztatzea.

1.– Diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzako prestazio osagarriaren kasuan, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak egiaztatuko du eskatzailearen eta haren bizikidetz-unitateko kideen eskubide izan daitezkeen izaera ekonomikoko baliabide eta prestazio sozialak oso-osorik baliatu edo eskatu direla. Gizarte-larrialdietarako laguntzen kasuan, egiaztapen hori eskabidea aurkeztu den udalerriko udalak egingo du.

2.– Baldin eta eskatzailea edo haren bizikidetz-unitateko kideak izaera ekonomikoko eskubide batzuen hartzekodun badira eta ez badituzte baliatu edo eskatu, mantenu-eskubidea barne ezkontzako bizikidetz egiazki bukatu dela egiaztatzen den kasuetan, orduan Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak diru-sarrerak bermatzeko errenta edo etxebizitzako prestazio osagarria eskatu denean, edo udalak gizarte-larrialdietarako laguntza eskatu denean, eskatzaileari eskatuko diote ezen, espedientearen instrukzioa amaitu aurretik, bere eskubideak baliatu edo eskatu ditzala indarrean dauden legeetan ezarritakoaren arabera.

Prestazioetako edozeinen titularrek obligazio berbera izango dute, baldin eta eskubide horiek prestazioa eman eta gero sortuak direnean.

3.– Eskatzaileak ez badu betetzen aurreko paragrafoan aipatutako obligazioa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak diru-sarrerak bermatzeko errenta edo etxebizitzako prestazio osagarria eskatu denean, edo udalak gizarte-larrialdietarako laguntza eskatu denean, espediente berrikusi, aldatu, bertan behera utzi edo artxibatu egingo dute.

62. artikulua.– Ebazpena, ebazteko epea eta administrazioaren isiltasuna.

1.– Diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzako prestazio osagarriaren kasuan, eskabidea onartzeko edo ukatzeko ebazpena ematea Eusko Jaurlaritzari dagokio, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren bitartez, eta gizarte-larrialdietako laguntzen kasuan, eskabidea egin zaion udalerriko udalari.

2.– Ebazpena emateko organo eskudunak prestazioa onartzeko edo ukatzeko ebazpena gehenez ere bi hilabeteko epean emango du, dagokion eskabidea aurkezten denetik kontatzen hasita. Epea amaitzen bada berriazko ebazpenik eman gabe, eskatutakoa diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzako prestazio osagarria badira, eman egin direla ulertuko da, eta gizarte-larrialdietarako laguntzak eskatu badira, berriz, ukatu egin direla.

3.– Aurreko paragrafoan aipatutako epeak eten egingo dira baldin eta eskatzaileari egotzi dakiokeen arrazoiren batengatik prozedura eteten bada.

63. artikulua.– Isilpekotasuna

Euskal administrazio publikoek bermatuko dute organismo eskudunek espedienteak izapidetze-rakoan lortutako datuak isilpean gordeko dituztela, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan aurreikusitako moduan.

Aurrekoa horrela izanik ere, ulertu beharko da administrazio publikoek, herritarrak hobeto artatuko badituzte, beren artean lankidetzan aritu beharra dutela, eta, ildo horretatik, komeni dela komunikazio-bideak ezartzea, horiei esker informazioa emateko sistema arina eta etengabe eguneratua egon dadin eta euskal administrazio publikoek informazio-mota jakin batzuk parteka ditzaten, betiere pertsona artatuaren oniritzia jaso ondoren eta beharrezkotzat jotzen diren segurtasuneko dispositibo guztiak aplikatuz.

64. artikulua.– Errekurtsoak eta kexak

1.– Prestazioa ukatzen duten ebazpenek idatziak eta ondo motibatutak izan beharko dute beti, eta dagozkien administrazio- eta jurisdikzio-errekurtsoak aurkeztu ahalko dira haien kontra.

2.– Aurreko paragrafoan aurreikusitakoa horrela izanik ere, interesdunek kexa arrazoitua aurkeztu ahalko diote gizarteratzeari eta diru-sarrerak bermatzeari buruzko gaietan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari.

III. TITULUA

GIZARTERATZEKO ETA LANERATZEKO TRESNAK

I. KAPITULUA

GIZARTERATZE AKTIBORAKO HITZARMENAK

65. artikulua.– Definizioa eta ezaugarriak.

1.– Lege honen ondorioetarako, gizarteratze aktiborako hitzarmenak definitzen dira programa-dokumentu gisa, zeinetan parte-hartzaileek ezartzen baitituzte izaera sozial edota laboreko ekintza espezifiko batzuk, beharrezkoak direnak titularra eta bizikidetzaren unitateko gainerako kideak baztertuta geratzeko arriskutik edo baztertuta egotetik prebenitzeko eta horiek errazago laneratzeko eta gizarteratzeko.

2.– Gizarteratze aktiborako hitzarmenak dira dokumentu batzuk zeinek diseinatzen baitute gizarteratze-prozesu edo -ibilbide pertsonalizatu bat, titularraren edo, hala badagokio, haren bizikidetzaren unitateko beste kide batzuen beharrezanetara egokitua, eta zeinek eragiten baitie parte-hartzaileei konpromiso bat obligazioak dakartzana.

3.– Gizarteratze aktiborako hitzarmenek lanpostu bat lortu ahal izatera edo lan-egoera hobetu ahal izatera bideratutako egintzak jasoko dituzte, erregelamenduz ezarritakoaren arabera; egintza horiek, bereziki, prestakuntza aurrekoak, prestakuntzakoak, lana topatzekoak eta lan-bitartekari-tzakoak izango dira.

4.– Baldin eta titularrak edo haren bizikidetzaren unitateko beste kide batzuek, laneratzera zuzendutako jarduketaz gain, behar badituzte gizarteratzera zuzendutako jarduketa batzuk, gizarte, etxebizitza, osasun edo hezkuntzako zerbitzuen sistemak artatu beharrekoak, edo baldin eta bideragarria ez bada pertsona horiek epe motz eta ertainean parte hartzea laneratzera zuzenean bideratutako jardueretan, kasu horietan gizarteratze aktiborako hitzarmenaren edukietan sartuko da ezen titularrak konpromisoa hartzen duela sistema batzuek eta besteek diseinatutako gizarteratze-jarduketak betetzeko.

66. artikulua.– Esku hartzen duten aldeak.

1.– Gizarteratze aktiborako hitzarmenetan esku hartuko duten aldeak dira, alde batetik, Eusko Jaurlaritza Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren bitartez, dagokien kasuetan udalen gizarte-zerbitzuekin lankidetzan eta haien iritzia kontuan harturik, eta bestetik, bazterketako arriskuan edo egoeran izateagatik hitzarmen horien hartzaile izan daitezkeen pertsonak.

2.– Honako hauekin sinatuko dira gizarteratze aktiborako hitzarmenak:

a) Diru-sarrerak bermatzeko errenta, edozein modalitatetan, jasotzeko eskabidea egiten eta hartarako eskakizunak betetzen dituzten pertsonekin, baldin eta titularrak edo haren bizikidetzaren unitateko kideren bat lan egiteko adinean badago eta ezintasun iraunkor absolutuko, baliaezintasun handiko edo kotizazio gabeko baliaezintasuneko pentsioa jasotzen ez badu.

b) Diru-sarrerak bermatzeko errentaren edozein modalitatetaren titular edo onuradun izan ez arren, laneratzera zuzendutako esku-hartze edo jarduketa espezifikoaren bat behar dutenekin, baldin eta hala eskatzen badute. Kasu honetan, onuraduna langabezia-prestazio baten titularrak edo inolako diru-prestaziorik jasotzen ez dutenak izan daitezke.

3.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak bizikidetzaren unitateko beste kide batzuk ere sartu ahal izango ditu gizarteratze aktiborako hitzarmenean jasotzaile gisa, baldin eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren iritziz beharrezkoa bada.

67. artikulua.– Prozedura hastea.

1.– Gizarteratze aktiborako hitzarmen bat egiteko eta sinatzeko prozesua ofizioz hasiko da 66.2 artikulua a) idatz-zatian jasotako kasu guztietan.

2.– Lege honetako 66.2 artikulua b) idatz-zatiko kasuan dauden pertsonak, laneratzeko laguntza espezifiko behar badute, gizarteratze aktiborako hitzarmen bat egiteko eskatu ahal izango dute eta eskabidea aurkeztu erroldatuta dauden eta benetan bizi diren udalerrinari dagokion Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren bulegoan. Eskabidearekin batera, lege honetan eta berau garatzeko arauetan kasu bakoitzerako ezartzen diren eskakizunak betetzen direla justifikatzeko beharrezko diren agirian aurkeztu beharko dira.

68. artikulua.– Beharrianen diagnostikoa eta gizarteratze aktiborako hitzarmena egitea.

1.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak diagnostikoa egingo du gizarteratze aktiborako hitzarmenen jasotzaile izango diren pertsonen eta, hala badagokio, haien bizikidetzaren unitatean sartutako kideen laneratze-beharrizanei buruz.

2.– Aurreko paragrafoan aipatutako diagnostikoan oinarrituta, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak dagokion gizarteratze aktiborako hitzarmena diseinatuko du, modu pertsonalizatuan, non zehaztuko baitira esku hartzen duten aldeek laneratzeari begira hartzen dituzten konpromiso guztiak.

3.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari egokituko zaio gizarteratze aktiborako hitzarmenaren proposamena egitea, hitzarmena sinatu aurretik haren edukia negoziatzea, bertan jasotako ekin-tzak koordinatzea eta bere aplikazioaren jarraipena egitea.

4.– Lege honetako 65.2 artikuluan aurreikusitako kasuetan, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren iritziz titularrak edo haren bizikidetzaren unitateko beste kideren batek laneratzeko jarduketaz gain, gizarte, etxebizitza edo hezkuntzako zerbitzuek eman beharreko gizarteratze-jarduketak eskatzen baditu, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak berariaz jasoko du gizarteratze aktiborako hitzarmenean titularrak sistema desberdinek diseinatutako gizarteratze-jarduketak betetzeko konpromisoa hartzen duela eta jarduketa horietarako eskubidea duela.

5.– Bere jarraipen-funtzioak betetze aldera, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko langileak koordinatu ahal izango dira beste jarduketa-eremu batzuetako profesionalekin, bereziki gizarte, osasun, hezkuntza eta etxebizitzako zerbitzu-entitateekin, bai diagnostiko eta orientazio kontuetan, bai esku-hartzeari dagokionez. Era berean, ekimen sozialeko entitateen partaidetza ere eduki ahal izango dute.

69. artikulua.– Esku hartzen duten aldeek betebeharrak.

1.– Gizarteratze aktiborako hitzarmenetan esku hartzen duten aldeek obligazio hauek izango dituzte:

a) Hitzartu diren jarduketak garatzeko posibilitatean eragina izan dezaketen gertatutako aldatketak jakinaraztea.

b) Sinatutako gizarteratze aktiborako hitzarmenaren gaitik eta helburutik ondorioztatzen diren jarduketa guztiak egitea.

c) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari dagokionez, bere oinarriko betebeharra izango da momentu bakoitzean zerbitzu irisgarri eta egokituen eskaintza bermatu ahal izatea, hitzarmenean maila konkretu eta indibidualean negoziatutako eta sinatutako konpromisoak bete ahal izateko. Horretarako, beharrezkoak diren baliabideak ziurtatuko dira, bai giza baliabideak eta baita tresneriari dagokionez ere.

2.– Nolanahi ere, eta gizarteratze aktiborako hitzarmena sinatzean hartutako konpromisoak gorabehera, konpromiso horiek garatzeak ezin izango du inoiz oztopatu ez hitzarmenaren hartzaileek enplegu bat lortzea, ezta hitzarmenean aurreikusi gabeko prestakuntza-prozesuren batean sartzeari ere, nahiz eta halakorik gertatuz gero hitzarmena berrikusi beharko den.

3.– Gizarteratze aktiborako hitzarmenetan jasotako jarduketak eta esku-hartzeak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak antolatu eta abiaraziko ditu. Horretarako, bere programa eta zerbitzuez gain, beste administrazio publiko batzuek eta erakunde publiko zein pribatuek laneratzeari begira garatutako programak eta zerbitzuak ere erabili ahal izango ditu. 65.4 artikuluan aipatutako kasuei

dagokienez, gizarteratzera bideratutako jarduketak beste sistema batzuetan kokatuta badaude, sistema horiei dagokie jarduketok garatzea.

69 bis artikulua.– Berrikuspena, aldaketa eta aldi bateko etendura.

1.– Gizarteratze aktiborako hitzarmenean hilero ebaluazio bat egingo da. Ebaluazio horren arabera, edo alderdiek, haietako batek eskatuta, adosten dutenean, edo ezinbesteko zirkunstantziek aginduta, aldatu gabe edo bere aplikazioa eten gabe berrikusiko da gizarteratze aktiborako hitzarmenaren edukia.

2.– Ezinezkoa denean titularrak gizarteratze aktiborako hitzarmena betetzea, eten egingo da aldi baterako hitzarmenak eragindako konpromisoak betetzeko derrigortasuna, harik eta ezintasun-egoera desagertu edo aldatu arte.

70. artikulua.– Ebazpena, ebazteko epea eta Administrazioaren isiltasuna.

1.– Eusko Jaurlaritzak emango du, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren bitartez, gizarteratze aktiborako hitzarmena sinatzea edo ez sinatzea erabakitzen duen ebazpena.

2.– Ebazpena emateko eskumena duen organoak bi hilabeteko gehienezko epean eman eta jakinaraziko du ukatze-ebazpena, edo sinatuko du dagokion hitzarmena, epe hori eskabidea dagoen erregistroan sartu den egunetik kontatzen hasita.

3.– Aurreko paragrafoan aipatzen den epea amaituta, ez baldin bada luzamenduzko berariazko ebazpenik eman eta jakinarazi, edo ez baldin bada gizarteratze aktiborako hitzarmena sinatu, soilik onuradunaren ardurapekoak ez diren kausengatik, emandakotzat joko da hitzarmen-eskaera.

Aurreko paragrafoan aipatzen den epea amaituta, ez baldin bada luzamenduzko berariazko ebazpenik eman eta jakinarazi, edo ez baldin bada gizarteratze aktiborako hitzarmena sinatu, soilik onuradunaren erantzukizunagatik, hitzarmen-eskaera ukatutzat joko da.

71. artikulua.– Berrikustea, aldatzea eta aldi batez etetea

1.– Gizarteratzeko hitzarmenean zehaztuko da zer maiztasunekin egingo den hitzarmenaren aplikazioaren ebaluazioa. Ebaluazio horren arabera edo parte hartzen duten aldeek hala adosten dutelako, alde horietariko batek aurrez eskatuta, edo ezinbestegatik, hitzarmenaren edukia berrikusi eta aldatu egin ahalko da edo haren aplikazioa eten.

2.– Egoera bereziki larrien kasuan, titularrak hitzarmenetik sortzen diren konpromisoak betetzetik ez badu, aldi baterako eten egin ahalko zaio konpromiso horiek bete beharra, harik eta horretarako bidea eman duen egoera desagertu edo aldatu arte.

72. artikulua.– Hitzarmena suntsiarazteko arrazoiak

Honako hauek izango dira gizarteratzeko hitzarmena suntsiarazteko arrazoiak:

- a) Hitzarmenean aurreikusitako gizarteratzeko helburuak lortzea.
- b) Onuradunak, berari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla medio, hitzemandako jarduerak ez egitea.
- c) Parte hartzen duten aldeek hitzarmena suntsiarazteko akordioa lortzea.
- d) Hitzarmenarentzat jarritako epea betetzea, salbu eta luzatzea adostu bada.
- e) Ordenamendu juridikoan aurreikusitako gainerako arrazoiak.

73. artikulua.– Isilpekotasuna

Euskal administrazio publikoek berrmatuko dute organismo eskudunek espedienteak izapidetze-rakoan lortutako datuak isilean gordeko dituztela, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan aurreikusitako moduan.

Aurrekoa horrela izanik ere, ulertu beharko da administrazio publikoek, herritarrak hobeto arta-tuko badituzte, beren artean lankidetzan aritu beharra dutela, eta, ildo horretatik, komeni dela komunikazio-bideak ezartzea, horiei esker informazioa emateko sistema arina eta etengabe eguneratua egon dadin eta euskal administrazio publikoek informazio-mota jakin batzuk parteka ditzaten, betiere pertsona artatuaren oniritzia jaso ondoren eta beharrezkotzat jotzen diren segur-tasuneko dispositibo guztiak aplikatuz.

74. artikulua.– Errekurtsoak eta kexak

1.– Ebazpenek prestazioa ukatzen badute, dagozkion administrazio- eta jurisdikzio-errekur-tsoak aurkeztu ahalko dira ebazpenen kontra.

2.– Aurreko paragrafoan aurreikusitakoa horrela izanik ere, interesdunek kexa arrazoitua aur-keztu ahalko diote gizarteratzeari eta diru-sarrerak berrmatzeari buruzko gaietan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari.

II. KAPITULUA

GIZARTERATZEKO ETA LANERATZEKO PROGRAMAK ETA ZERBITZUAK

75. artikulua.– Gizarteratzen eta laneratzen laguntzeko esku-hartze motak.

Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Berrmatzeko Euskal Sistemaren barruan, baztertuta geratzeko arriskuan edo baztertuta daudenak gizarteratzeko eta laneratzeke, beharrezkoa da, batetik, pro-gramak, zerbitzuak edo zentroak ezartzea enpleguaren arloan, laneratzeke jarduerak antolatuta ahal izateke gizarteratze aktiborako hitzarmenen esparruan, eta bestetik, programak, zerbitzuak edo zentroak ezartzea gizarte-babesaren beste arlo batzuetan, bereziki gizarte-zerbitzuetan, osasun-zerbitzuetan, hezkuntza-sisteman eta etxebizitza-zerbitzuetan.

76. artikulua.– Gizarteratzen laguntzeko gizarte-zerbitzuak

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak eta Diru Sarrerak Berrmatzeko Euskal Sistemak koordinatu egin beharko dituzte planifikatzeko dituzten lanabesak eta horien barruko jarduerak. Era berean, erregelamendu bidez zehaztuko dira sistema batzuek eta besteek batera jarduteke protokolo guz-tiak, aipatutako bi sistemek osasun-, hezkuntza- eta etxebizitza-arloekin batera jarduteke bereziki.

77. artikulua.– Gizarteratzen laguntzea helburu duten lan-merkatuan sartzeko eta enplegua lor-tzeko programak eta zerbitzuak

1.– Euskal administrazio publikoek, prestakuntza- eta enplegu-gaietan dituzten eskumenen ere-muan, lan-merkatuan sartzen laguntzeko neurriak jarri beharko dituzte pertsona edo talde jakin batzuentzat, hain zuzen ere beren ezaugarriengatik lan-merkatuan baldintza berberetan sartzerik ez dutenentzat edo hala sartzeko zailtasunak dituztenentzat. Neurri horien artean hauek egon daitezke:

- a) Lanerako prestakuntza.
- b) Laneko bitartekotza.

- c) Lan-merkatuan sartzeko laguntza eta babesak.
- d) Enplegu lagundua.
- e) Laneratzeko enpresak sortzeko eta mantentzeko laguntza.
- f) Baztertuta geratzeko arriskuan edo baztertuta daudenentzako enplegu-zentro bereziak irekitzeko laguntza.
- g) Lan-merkatu arruntean baztertuta dauden pertsonen kontratazioa bultzatzea.
- h) Kontratu publikoetan klausula sozial batzuk sartzeko, baztertuta edo lan-merkatuan sartzeko bidean daudenak kontratatzen dituzten erakundeei lehentasuna ematen dietenak.
- i) Familia eta lana uztartzeko politiken esparruko laguntza-neurriak.
- j) Lan-merkatuan sartzeko laguntzeko finantziario-tresnak sustatzea.

2.– Aurreko paragrafoan aurreikusitako neurriak arautzean eta ezartzean, prestakuntza- eta enplegu-arloetan eskudunak diren euskal administrazio publikoek beren aurreikuspen eta jarduerak koordinatu egin beharko dituzte Gizarteratzeko Euskal Planaren dauden Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren aurreikuspen eta jarduerekin. Koordinazio horren helburua da bermatzea jarduera guztiak eraginkorrak izango direla, baliabideak arrazionaltasunez erabiliko direla eta baztertuta daudenei laguntzen jarraituko dela, gizarteratzeko hitzarmenetan diseinatutako ibilbide pertsonalizatuaren barruan.

78. artikulua.– Beste jarduera-eremu batzuetarako gizarteratzeko programak eta zerbitzuak

Gizarteratzea gizarte-babeseko sistemek eta politika publikoek partekatzen duten helburua izanik, helburu hori lortzeko zuzendutako neurriak jarri beharko dira, haien oinarritzko jarduera-eremu guztietan, batez ere hezkuntza-, gizarte- eta osasun-zerbitzuetan eta etxebizitza-politika publikoko zerbitzuetan.

IV. TITULUA

GIZARTERATZEKO ETA DIRU SARRERAK BERMATZEKO EUSKAL SISTEMAREN PLANIFIKAZIOA ETA GARAPENA

79. artikulua.– Xedapen orokorrak

1.– Euskal administrazio publikoek era antolatuan eta koordinaturik planifikatu beharko dituzte helburuak eta horiek lortzeko beharrezkoak diren tresnak, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren barruan, Autonomia Erkidegoko lurralde osoan lehentasunezko jarduera-ardatz komunak ezartzeko eta babes-maila homogeenak sustatzeko.

2.– Aurreko paragrafoan aipatutako planifikazioa Gizarteratzeko Euskal Planaren bitartez gauzatuko da Autonomia Erkidegoaren eremuan, eta planifikazioa egitean euskal administrazio publiko guztiek, baita sektorean esku hartzen duten erakunde publikoek eta pribatuek ere, zuzenean parte hartuko dutela bermatu beharko da.

Gizarteratzeko Euskal Plana gauzatzeko, foru-aldundiek eta udalek edo udalen elkarteek beren programak garatuko dituzte beren lurraldeetako jarduera-eremuetan.

3.– Plan bereziak prestatu ahaliko dira auzo-, udalerr-, eskualde- edo bestelako geografia-eremuetarako, baldin eta, bereziki degradatuta daudelako eta pobrezia- eta bazterkeria-tasa handiak

dituztelako, epe laburrean edo ertainean ekintza integrala behar badute. Plan horiek Gizarteratzeko Euskal Planak ezarritako ildoetara jarraiki egingo dira.

80. artikulua.– Planifikazio-printzipioak

Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema egituratzerakoan, haren diseinua eta funtzionamendua planifikazio-printzipio hauek kontuan hartuta egokituko dira:

a) Gizarteratzeko eta laneratzeko tresnak denborari eta geografia-eremuari dagokienez planifikatzea, hurbiltasuneko irizpidea bereziki kontuan hartuta, eta gizarte-babeseko beste arlo batzuetan dauden jardura-plan autonomikoetan jasotako aurreikuspenekin koordinaturik, batez ere gizarte-zerbitzuetan, enpleguan, hezkuntzan, etxebizitzan eta osasunean daudenekin.

b) Lurraldeen arteko oreka eta homogeneotasuna. Horretarako, zerbitzuak geografikoki nola banatu erabakitzean Euskal Autonomia Erkidegoko biztanle guztiek zerbitzuak baliatzeko aukera berberak izango dituztela bermatuko da.

c) Eskura dauden baliabide guztiak, formalak eta informalak, publikoak eta pribatuak, modu integral, malgu, arrazional eta eraginkorrean erabiltzea, esku-hartzeak koordinatzeko eta sarean lan egiteko formula eragintsuetan oinarrituta.

d) Aurrekontu orokorretan, nahikoa izango den urte anitzeko aurrekontu-zuzkidura jartzea.

81. artikulua.– Gizarteratzeko Euskal Plana

1.– Gizarteratzeko Euskal Planak era koordinatu eta globalean jasoko ditu administrazio eskudunen jardura orientatu behar duten esku hartzeko eta jarduteko ildo eta jarraibideak, baztertuta daudenak gizarteratzea lor dadin. Plana bost urtekoa izango da.

2.– Gizarteratzeko Erakunde arteko Batzordeak prestatuko du planaren proposamena eta Eusko Jaurlaritzari dagokio onartzea, Gizarteratzeko Euskal Kontseiluak nahitaezko txostena egin ondoren. Plana onartu eta gero, Jaurlaritzak Eusko Legebiltzarrari bidali beharko dio, komunikazio gisa, eztabaida dezan.

3.– Gizarteratzeko Euskal Planak honako ezaugarri hauek izango ditu:

a) Gizarteratzeko eta laneratzeko beharrezkoen diagnostikoan eta haien eboluzioaren pronostikoan oinarrituko da.

b) Helburuak, ardatz estrategikoak eta horietako bakoitzeko ekintzak definituko ditu, gartzeko eta lortzeko epeak ezarriko ditu eta horretarako erakunde edo organo eskudunak zein diren zehaztuko.

c) Plana bera modu sistematiko eta jarraituan ebaluatzeko mekanismoak ezarriko ditu.

Planarekin batera, dagokion memoria ekonomikoa egingo da, eta han zehaztuko da zein aurreikuspen ekonomiko aldatu beharko diren urtero, helburuen ebaluazio sistematikoaren eta planaren aplikazioaren segimenduaren arabera.

4.– Euskal administrazio publikoek Gizarteratzeko Euskal Planaren eta erakunde eta sail arteko beste plan batzuen arteko koherentzia eta sinergiak bultzatuko dituzte, batez ere plan horren eta gizarte-zerbitzuetako eta enplegu, hezkuntza, etxebizitza, osasun eta arreta soziosanitarioko planen artekoak.

82. artikulua.– Gizarteratzeko programak

Gizarteratzeko Euskal Plana euskal administrazio publikoek, bakoitzak bere eskumen-eremuan, egiten eta garatzen dituzten programen bitartez gauzatuko da.

83. artikulua.– Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren tresna tekniko komunak

1.– Gizarteratze-arloan esku hartzeko irizpideak homogeneousak izango direla bermatzearen, euskal administrazio publikoek tresna komunak erabiliko dituzte balorazioak eta diagnostikoak egiteko, baita esku-hartze pertsonalizatuertarako ere.

2.– Horretarako, euskal administrazio publikoek «Diagnostikoa eta Esku-hartze Soziala» ize-neko baliabide informatikoa erabiliko dute beharizanei buruzko informazioa jasotzeko, beren lurralde-eremuan diagnostiko sozialak egiteko eta banakako diagnostikoak eta gizarteratzeko ibilbide pertsonalizatuak egiteko. Horren ordezt beste tresna tekniko baliozkotu batzuk erabil ditzakete, horrela informazioa elkarri helaraztea eta datuak konparatzea errazteko.

3.– Aurreko paragrafoan aurreikusitako jarduerak gauzatzekoan, informazioa ustiatzeari dagokionez, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak lankidetzan eta koordinaturik jardungo du babes sozialeko beste sistema eta politika publiko batzuekin, estatistika bidezko informazioa eraginkortasun handiagoz ezagutzeko, ustiatzeko eta zabaltzeko, arreta-sarreraren magnitude nagusien ezagupen osoa lortze aldera.

84. artikulua.– Eskainitako arretaren kalitatea hobetzea, profesionalak prestatzea eta ikertzea

1.– Kalitateko arreta eta arretarako estandarren hobekuntza bermatzeko, gizarteratze-gaietan eskudunak diren euskal administrazio publikoek kalitatearen kanpoko ebaluaziorako eta hobekuntza etengabeko metodo frogatuak aplikatu daitezkeen sustatuko dute, beharizanei erantzutean eta Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema kudeatzeko egituren funtzionamenduan zer disfuntzio edo gabezia dauden zehazteko.

2.– Euskal administrazio publikoek beren artean koordinatuko dira Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren parte hartzen duten eragile eta profesional guztien prestakuntza sustatzeko eta planifikatzeko, bereziki gizarteratze eta laneratzean, esku-hartze sozialean eta familia-heziketan eta kulturen arteko bitartekotzan espezializatutako figura profesionalena.

3.– Euskal administrazio publikoek, beren eskumeneren eremuan, gizarteratze-arloko ikerketa sustatuko dute eta ikertzeko eta ebaluatzeko lehentasunezko ardatzak zehaztuko dituzte, babes sozialeko eta esku-hartze politika publikoen eraginkortasuna erraztu eta berrikuntzari etekin gehiago ateratzearren.

4.– Euskal administrazio publikoek beharrezko diren bitartekoak antolatuko dituzte Euskal Autonomia Erkidegoan, beste autonomia-erkidego batzuetan eta Europako beste herrialde batzuetan garatutako jardunbide egokiak zein diren zehazteko eta horien segimendua egiteko.

V. TITULUA

ESKUMENEN ETA FINANTZIAZIOAREN ARAUBIDEA

I. KAPITULUA

ESKUMENEN ARAUBIDEA

85. artikulua.– Xedapen orokorrak.

1.– Eusko Jaurlaritzaren eskumena da diru-sarrerak bermatzeari eta gizarteratzeari dagokionez lege honetan eta berau garatzeko arauetan ezartzen zaizkion arau-garapena eta zuzeneko ekintza.

Lege honen ondorioetarako, zuzeneko ekintzatzat jotzen da, lege honetan Eusko Jaurlaritzari esleitzen zaizkion gauzatze-ahalez gain, beren interes orokorra dela-eta, beren izaera eta ezaugarriak direla-eta, edo izan dezaketen erabiltzaile-kopurua dela-eta, edo autonomia-erkidego mailan ematen direlako lor daitezkeen eskala-ekonomiak direla-eta Euskal Autonomia Erkidego osoan modu bateratuan eman behar diren programa, prestazio eta zerbitzuen gauzatze-eskumena edukitzea.

Eskakizunak betetzen direla arrazoitu egin beharko da eta hala adierazi Eusko Jaurlaritzaren dekretu bidez, Gizarteratzeko Erakunde arteko Batzordearen nahitaezko eta aldeko txostena jaso ondoren.

2.– Udalei dagokie diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko arauak gauzatzea, lege honetan eta berau garatzeko araudian ezarritakoaren arabera.

86. artikulua.– Eusko Jaurlaritzaren eskumenak.

1.– Eusko Jaurlaritzari dagokio, diru-sarrerak bermatzearen eta gizarteratzearen esparruan eskuduna den sailaren bitartez, ondorengo eginkizun hauek gauzatzea:

a) Lege hau garatzeko arauak egitea eta onartzea.

b) Sistemaren prestazioak jasotzen dituzten pertsonen lan-aktibazioa.

c) Gizarteratzeko Euskal Plana gauatzeko behar beste baliabide eta bitarteko prestatzea oro har, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorraren lege-aurreproiektuan urtero sartuko diren sailen programen bidez.

d) Diagnostikoa egiteko eta esku-hartze planifikatu eta pertsonalizatua egiteko baliabide tekniko komunak diseinatzea eta ezartzea, gainerako euskal administrazioekin koordinaturik eta lankidetzan.

e) Lege honetan gizarteratzera eta laneratzera zuzendutako prestazio ekonomikoei eta gainerako baliabideei buruz estatistikak planifikatzea eta diseinatzea, baita estatistika horiek egitea eta mantentzea ere, estatistika-arauen arabera eta gainerako euskal administrazioekin koordinaturik eta lankidetzan.

f) Lege honetan eta lege hau garatzeko arauetan ezarritakoaren arabera Eusko Jaurlaritzaren zuzeneko ekintzakoak diren programak, prestazioak eta zerbitzuak gauzatzea.

g) Diru-sarrerak bermatzeko errenta, edozein modalitatetan, eta etxebizitzako prestazio osagarria jasotzeko eskabideak hartzea.

h) Diru-sarrerak bermatzeko errentaren edozein modalitateri eta etxebizitzako prestazio osagarriari buruzko espedienteak tramitatzea; diru-sarrerak bermatzeko errenta, edozein modalitatetan, eta etxebizitzako prestazio osagarria onartzea, ukatzea, berrikustea, aldatzea, etetea eta azkentzea.

i) Diru-sarrerak bermatzeko errenta, edozein modalitatetan, edo etxebizitzako prestazio osagarria hilero ordaintzea.

j) Gizarteratze aktiborako hitzarmenak egitea, proposatzea, negoziatzea eta sinatzea.

k) Gizarte-larrialdietarako laguntzak ikuskatzea.

l) Gizarteratzeko eta laneratzeko prozesuen inplementazioa ebaluatzea. Ebaluazio horren barruan, Eusko Jaurlaritzak banakako kasuak berrikusi ahalko ditu egokitzat jotzen duenean, eta, horrela, bere eskumen-mailan lege honetan aurreikusitako prestazio ekonomikoen eta programen titularrak eta hartzaileak kontrolatzeko eginkizuna bete ahalko du.

m) Gizarteratzeko esku-hartze eta jarduketa komunitarioak sustatzea, prestatzea eta garatzea, udalekin eta mankomunitateekin batera.

n) Gizarteratzeko Sail arteko Batzordea abian jartzea, eta haren lanen garapena bultzatzea.

ñ) Gizarteratzeko Erakunde arteko Batzordea eratzea.

o) Gizarteratzeko Euskal Kontseilua eratzea.

p) Gizarteratze Aktiborako Euskal Plana onartzea eta plan hori Eusko Legebiltzarrari bidaltzea komunikazio gisa, eztabaidatu dezan.

q) Bere eskumenen barruan, zehapen-ahala gauzatzea, lege honetan eta berau garatzen duten arauetan jasotako eran.

r) Diru-sarrerak bermatzeko errentaren edozein modalitateren titular eta onuradunen jarraipen etengabea eta kontrola egitea, baita etxebizitza-gastuetarako prestazio osagarriaren eta gizarte-larrialdietarako laguntzen titular eta onuradunena ere.

s) Bere eskumenen barruan, zehapen-ahala gauzatzea, lege honetan eta lege hau garatuko duten arauetan jasotako eran.

t) Euskal administrazioen artean bideraketa- eta koordinazio-protokoloak ezarri eta egitea, gizarteratzeko eta laneratzeko beharrak dituzten pertsoneri erantzun arin eta azkarra emateko.

2.– Eusko Jaurlaritzak, diru-sarrerak bermatzearen eta gizarteratzearen esparruan eskuduna den sailaren bitartez, Gizarteratze Aktiboko Euskal Plana bost urterik behin ebaluatuko du, eta ebaluazio hori Eusko Legebiltzarrari helaraziko dio.

87. artikulua.– Foru-aldundien eskumenak.

Lurralde historiko bakoitzeko foru-aldundiari dagozkio ondorengo eginkizunak, gizarteratze-arloan dituen eskumenen eremuaren barruan:

a) Gizarteratze Aktiborako Euskal Plana gauzatzean onartzen diren gizarteratzeko foru-programak prestatzea eta garatzea.

b) Foru-departamentuak koordinatzea, gizarteratze- eta laneratze-beharrizanei gizarte-babesa-ren arlo desberdinetan erantzuna eman diezaieketen zerbitzu eta zentroen sarea diseinatzeko eta garatzeko.

88. artikulua.– Udalen eskumenak.

Euskal Autonomia Erkidegoko udalei dagokie ondorengo eginkizun hauek betetzea:

a) Hala badagokio, Gizarteratze Aktiborako Euskal Plana gauzatzeko onartzen diren gizartera-tzeko udal-egitarauak prestatzea eta garatzea.

b) Udal-departamentuak koordinatzea, gizarteratze- eta laneratze-beharrizanei gizarte-babesa-ren arlo desberdinetan erantzuna eman diezaieketen zerbitzu eta zentroen sarea diseinatzeko eta garatzeko.

c) Gizarteratzeko esku-hartze eta jarduera komunitarioak sustatzea, prestatzea eta garatzea.

d) Gizarte-larrialdietarako laguntzen eskabideak jasotzea eta tramitatzea eta laguntza horiek onartzea eta ukatzea eta, hala badagokio, dagozkien ordainketak egitea.

e) Bere eskumenen esparruan, gizarte-larrialdietarako diru-laguntzen titularrei eta onuradunei segimendu jarraitua eta kontrola egitea.

f) Bere eskumenen barruan, zehapen-ahala gauzatzea, lege honetan eta berau garatzen duten arauetan jasotako eran.

89. artikulua.– Eskumenak eskuordetzea

Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren erantzukizunak dituzten admi-nistrazio publikoek elkarri eskuordetu ahalko dizkiote lege honetan esleitzen zaizkien eginkizunak.

II. KAPITULUA

FINANTZIAZIOA

90. artikulua.– Finantziazio-iturriak

Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren finantza-iturriak hauek izango dira:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak.

b) Lurralde historikoetako aurrekontu orokorrak.

c) Udalen aurrekontuak.

d) Horretara zuzendutako beste edozein ekarpen ekonomiko, betiere ordenamendu juridikoaren babesa badu.

91. artikulua.– Finantziazioa

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan behar beste baliabide ekonomiko esleituko da, urtero, lege honetan araututako prestazio ekonomikoen zenbatekoak finantzatzeko eta lege honen arabera Eusko Jaurlaritzari dagozkion eskumenak gauzatzeko.

2.– Foru-aldundiek eta udalek, bakoitzak bere aurrekontuetan, behar beste baliabide ekonomiko esleituko dute, urtero, lege honetan aurreikusitako eskumenak gauzatzeko.

92. artikulua.– Finantzen arloko lankidetzak.

1.– Euskal administrazio publikoen beren arteko eta beste entitate publiko batzuekiko elkarlana lankidetzak-hitzarmenez bitartez edo indarreko legedian araututako beste edozein moduren bitartez bideratuko da, elkarlan hori ezarritako helburuak betetzera baldintzatzeko eta kasuan-kasuan egokitzat jotzen diren finantza-kontrolako neurrietara atxikitzeko.

2.– Gizarteratze aktiborako hitzarmenen esparruan antolatzen diren programak, zerbitzuak edo zentroak zerbitzu horiek erregulatzen dituen araudi espezifikoan aurreikusitakoaren arabera finantzatuko dira.

VI. TITULUA

SAILEN ARTEKO NAHIZ ADMINISTRAZIOEN ARTEKO KOORDINAZIOA ETA LANKIDETZA, ETA PARTE HARTZEA

I. KAPITULUA

SAILEN ARTEKO NAHIZ ADMINISTRAZIOEN ARTEKO KOORDINAZIOA ETA LANKIDETZA

93. artikulua.– Administrazio publikoek lankidetzan eta koordinaturik jarduteko duten betebeharrak

1.– Euskal administrazio publikoek lankidetzan eta koordinaturik jardun beharko dute, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren funtzionamenduan eraginkortasun eta eragimenik handiena bermatzeko.

2.– Lankidetzak eta koordinazio horiek bideratze aldera, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak erakunde hauek izango ditu, haien bidez bere funtzionamendua antolatzeko:

a) Gizarteratzeko Erakunde arteko Batzordea.

b) Gizarteratzeko Sail arteko Batzordea.

94. artikulua.– Gizarteratzeko Erakunde arteko Batzordea

1.– Gizarteratzeko Erakunde arteko Batzordea euskal administrazio publikoen arteko lankidetzarako organo goren gisa eratzen da, lege honetatik sortzen diren jardueretan erakundeen arteko koordinazioa bermatzeko.

2.– Gizarteratzeko Erakunde arteko Batzordea erregelamendu bidez zehaztuko diren kideek osatuko dute.

3.– Batzordeak segimendua egiteko azpibatzerak eratu ahalko ditu, beharrezkotzat edo komenigarritzat jotzen duenean, eta haien jarduera-eremua unean uneko beharren arabera zehaztu ahalko da, bai geografia-zona jakin baterako, baita prestazio- edo jarduera-mota jakin baterako ere.

95. artikulua.– Gizarteratzeko Erakunde arteko Batzordearen eginkizunak

Gizarteratzeko Erakunde arteko Batzordeari honako eginkizun hauek betetzea dagokio:

a) Lege hau garatzeko, aplikatzeko eta, hala badagokio, berrikusteko arauak egiteko irizpideak proposatzea.

b) Nahitaez txostena egitea lege honen 85. artikuluan aurreikusitako ekintza zuzeneko adierazpenerako baldintzak betetzeari buruz. Hartzen diren erabakietan, Administrazio publikoaren ordezkari dagokionez –Erkidegoko, foru-lurraldeetako edo udaletakoarena–, eragindako eta/edo betebeharrak jasotako administrazio-mailaren ordezkariaren aldeko botoa beharko da.

c) Baztertuta geratzeko arriskuan edo baztertuta dauden pertsonen oinarrizko premiak detektatzea eta aztertzea, horiei aurre egiteko garatu beharreko jarduera-ildoak proposatzeko.

d) Gizarteratzeko Euskal Planaren proposamena prestatzea.

e) Lurralde- eta toki-eremuko planen eta programen gainean aholku ematea, baita gizarteratze-gaietan eragina duten foru- eta toki-arauen gainean ere.

f) Gizarteratze-gaietan erantzukizuna duten euskal administrazio publiko guztiek informatua izatea gai horien inguruan onartzen dituzten plan eta programen segimendu eta ebaluazioari buruz, baita gizarteratze-gaietan eragina duten arauen aplikazioari buruz ere.

g) Lege honen xedea lortzera zuzendutako estrategia, jarraibide eta jarduera nagusiak adostea.

h) Diagnostikoak eta banakako planifikazioak egiteko euskal administrazio publikoek aplikatu beharreko tresna tekniko komunak adostea.

i) Euskal administrazio publikoei lege honetan aurreikusitako gaietan beren jarduerak koordinatzeko beharrezko diren neurriak har ditzaten proposatzea, jarduera horiek garatzeko behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak aztertuta bereziki.

j) Kudeaketaren kalitatea kontrolatzeko txosten bat egitea bost urterik behin, lege honetan xedatutakoa aplikatzeko eta gauzatzeko hiru instituzio-mailek esku hartzeak sor ditzakeen disfunczioak zein diren antzemateko, eta, hala badagokio, xedatutakoa eraginkortasunez betetzeko eta garatzeko behar diren jarduerak proposatzea.

k) Eusko Jaurlaritzak udalei gizarte-larrialdietarako laguntzak banatzeko erabili beharreko irizpideak aztertzea, eta, hala badagokio, irizpideok berrikustea proposatzea.

l) Batzorde honek egiten dituen txosten eta dokumentu guztiak Eusko Legebiltzarrari bidali beharko zaizkio.

m) Ordenamendu juridikoak agintzen dizkion gainerako eginkizunak.

96. artikulua.– Gizarteratzeko Sail arteko Batzordea

1.– Gizarteratzeko Sail arteko Batzordea Eusko Jaurlaritzak gizarteratze-gaietan egiten dituen jarduerak koordinatzeko organo gisa eratzen da, eta gizarteratzeko eta diru-sarrerak bermatzeko eskumena duen sailari atxikita egongo da.

2.– Batzorde hori erregelamendu bidez zehaztuko diren kideek osatuko dute.

3.– Gizarteratzeko Sail arteko Batzordearen eginkizunak hauek dira:

a) Bazterkeriaren aurka borrokatzeko esku-hartze eta jarduera espezifikoak identifikatzea eta errolatzea, baita baztertuta daudenak pertsona bezala osatu, gizarteratu eta laneratu daitezen sustatzeko aplikatu daitezkeen esku-hartze eta jarduera orokorrak ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorraren eskumen-eremuan.

b) Baztertuta dauden pertsonak aipatutako esku-hartze eta jardueraz baliatu ahalko direla bermatzeko printzipio orokorrak proposatzea, eta, hala badagokio, esku-hartze edo jarduera orokor bakoitzean aurreikusten diren laguntza edo jardueretatik baztertuentzat bereizi beharreko gutxieneko proportzioari buruzko proposamenak ezartzea.

c) Sailen arteko gizarteratze-gaietako esku-hartzeak eta jarduerak koordinatzeko proposamenak ezartzea, eta, hala badagokio, zenbait sailetan batera eragiten duten jarduerari buruzko finantza-kargak sailen artean banatzeko irizpideei dagozkienak ere bai.

d) Bazterkeriaren kontra borrokatzeko esku-hartzeen edo jardueren aplikazioa aztertzea, eta, hala badagokio, bazterkeria-egoerek planteatzen dituzten arazoei aurre egiteko proposamen berriak aztertzea.

e) Sailek beren gizarteratzeko programen bidez Gizarteratzeko Euskal Plana gauza dezaten oinarritzko ildoak proposatzea.

f) Bere antolaketa eta funtzionamenduko erregelamendua egitea.

g) Lege honetan edo lege hau garatzen duten xedapenetan, baita gainerako ordenamendu juridikoan ere, esleitzen zaizkion gainerakoak.

II. KAPITULUA

KONTSULTA ETA PARTE HARTZEA

97. artikulua.– Gizarteratzeko Euskal Kontseilua

Gizarteratzeko Euskal Kontseilua aholku emateko eta parte hartzeko organo gisa eratzen da, eta gizarteratzeko eta diru-sarrerak bermatzeko gaietan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari atxikita egongo da. Bertan ordezkaturik egongo dira Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak eta udalak; orobat sindikatuak, enpresaburuen elkarteak, erabiltzaileenak, gizarte-ekintzako hirugarren sektorekoak, baldin eta gizarteratze-gaietan esku hartzen badute, eta gizarteratze-arloan lan egiten duten profesionalenak.

Kontseiluaren osaera, haren kideen izendapena, haren araubidea eta funtzionamendua erregelamendu bidez zehaztuko dira.

98. artikulua.– Gizarteratzeko Euskal Kontseiluaren eginkizunak

Gizarteratzeko Euskal Kontseiluari honako eginkizun hauek betetzea dagokio:

1.– Nahitaezko aurretiko txostena egitea, honako gai hauetaz:

a) Gizarteratzeari eta diru-sarrerak bermatzeari buruzko lege-aurreproiektuak.

b) Gizarteratzeari eta diru-sarrerak bermatzeari buruzko dekretu-proiektuak.

c) Gizarteratzeari eta diru-sarrerak bermatzeari buruzko plan orokorrak edo sektorialak, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoa bada horien jarduera-eremua, eta bereziki Gizarteratzeko Euskal Plana.

2.– Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemari buruzko edozein gairen inguruan Jaurlaritzari aholku ematea eta proposamenak eta ekimenak aurkeztea.

3.– Baztertuta geratzeko arriskuan edo baztertuta dauden pertsonen oinarrizko premiak detektatzea eta aztertzea, premia horiei aurre egiteko garatu beharreko jarduera-ildoak Gizarteratzeko Erakunde arteko Batzordeari proposatzeko.

4.– Gizarteratze-gaietan esku hartzen duten eragileei iradokizunak, informazioa eta proposamenak helaraztea eta haienak jasotzea.

5.– Gizarteratzeko eta diru-sarrerak bermatzeko gaietan erantzukizuna duten euskal administrazio publiko guztiek informatua izatea plan orokorren eta sektorialen segimendu eta ebaluazioaren gainean.

6.– Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema hobetzeko gomendioak ematea; horretarako, Gizarteratzeko Euskal Planaren gaineko segimendu- eta ebaluazio-txostena egingo du urtero, eta, horrez gain, Eusko Jaurlaritzari nahiz eskudunak diren gainerako organo edo erakunde publikoei eta erakunde pribatuei proposamenak egingo dizkie baztertuta geratzeko arriskuan edo baztertuta dauden pertsonak gizarteratzeko aurrera eraman behar liratekeen jarduerari buruz.

7.– Bere antolaketa eta funtzionamenduko erregelamendua egitea.

8.– Lege hau garatzen duen erregelamenduan edo indarreko araudian esleitzen zaion beste edozein eginkizun.

VII. TITULUA

ARAU HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

99. artikulua.– Erantzuleak

Subjektu erantzuleak dira lege honetan tipifikatutako arau-haustek egiten dituztenak, egitez edo ez-egitez.

100. artikulua.– Arau-haustek

Arau-hauste dira lege honetan tipifikatu eta zehatzen diren hartzailearen egite edo ez-egiteak.

Ezin izango da arau-hausteengatik zehapenik ezarri, dagokion espedientea izapidetzen ez bada alde zuzenetik.

Arau-haustek, beren izaeraren arabera, arinak, larriak eta oso larriak izango dira.

101. artikulua.– Arau-hauste arinak

Hauek dira arau-hauste arinak:

a) Titularraren edo onuradunaren ohiko bizilekuaren gaineko edozein aldaketa jakinarazteko betebeharra ez betetzea, baldin eta aldaketa horren ondorioz ez badu lege honetan aurreikusitako prestazioren bat, ez bazegokion ere, jaso edo jasotzen jarraitu.

b) Ustezko arau-hausleak diru-sarrerak bermatzeko errenta –edozein izanik ere modalitatea–, etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarria edo gizarte-larrialdietarako laguntzak lortzeko edo jasotzen jarraitzeko egindako jarduerak, horretarako eskatzen diren baldintzak ez dituela betetzen jakinda egindakoak, baldin jarduera horien ondorioz ez badu lortu prestazioa jasotzea edo jasotzen jarraitzea, edo baldin jarduera horien ondorioz prestazioetakoren bat lortu badu, ez bazegokion ere, eta jaso duen prestazioaren zenbatekoa hau bada: berarena bezalako bizikidetzaren unitate bati urtean legokiokeen gizarteratzeko eta gizarte-babeserako oinarrizko errentaren gehienezko zenbatekoaren % 50 edo gutxiago.

c) Ustezko arau-hausleak diru-sarrerak bermatzeko errenta –edozein izanik ere modalitatea–, etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarria edo gizarte-larrialdietarako laguntzak lortzeko edo jasotzen jarraitzeko egindako jarduerak, horretarako eskatzen diren baldintzak ez dituela betetzen jakinda egindakoak, alde batera utzita helburu hori lortu duen ala ez, eta jarduera horiek egiten dituenean beraren bizikidetzaren unitatearen hileko diru-sarrerak honelakoak badira: berarena bezalako bizikidetzaren unitate bati hilean legokiokeen gizarteratzeko eta gizarte-babeserako oinarrizko errentaren gehienezko zenbatekoaren % 150 baino handiagoak eta % 200ekoak edo txikiagoak.

d) Titularraren ohiko bizilekuari dagokion aldaketa oro ez jakinaraztea, erregelamenduz ezarritako epean, lege honetan erregulatzen diren prestazioei dagokienez.

102. artikulua.– Arau-hauste larriak

Hauek dira arau-hauste larriak:

a) Ustezko arau-hausleak diru-sarrerak bermatzeko errenta –edozein izanik ere modalitatea–, etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarria edo gizarte-larrialdietarako laguntzak lortzeko edo jasotzen jarraitzeko egindako jarduerak, horretarako eskatzen diren baldintzak ez dituela betetzen jakinda egindakoak, baldin jarduera horien ondorioz prestazioetakoren bat lortu badu, ez bazegokion ere, eta jaso duen prestazioaren zenbatekoa hau bada: berarena bezalako bizikidetzaren unitate bati urtean legokiokeen gizarteratzeko eta gizarte-babeserako oinarrizko errentaren gehienezko zenbatekoaren % 50 baino gehiago eta % 100 edo gutxiago.

b) Ustezko arau-hausleak diru-sarrerak bermatzeko errenta –edozein izanik ere modalitatea–, etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarria edo gizarte-larrialdietarako laguntzak lortzeko edo jasotzen jarraitzeko egindako jarduerak, horretarako eskatzen diren baldintzak ez dituela betetzen jakinda egindakoak, alde batera utzita helburu hori lortu duen ala ez, baldin eta jarduera horiek egiten dituenean beraren bizikidetzaren unitatearen hileko diru-sarrerak honelakoak badira: berarena bezalako bizikidetzaren unitate bati hilean legokiokeen gizarteratzeko eta gizarte-babeserako oinarrizko errentaren gehienezko zenbatekoaren % 200 baino handiagoak eta % 300ekoak edo txikiagoak.

c) Bi arau-hauste arin edo gehiago batera gertatzea arau-hauste larritzat joko da.

d) Prestazio ekonomikoa ez aplikatzea bizikidetzaren unitateko kideen oinarrizko beharrianak estaltzeko eta, bere kasuan, kide horien gizarteratze- edota laneratze-prozesuak dakartzan gas-tuak estaltzeko.

e) Eskale ibiltzea, edo bizikidetzaren unitateko beste kide batzuk eskale ibiltzen uztea edo ibiltzera behartzea.

f) Modu bidegabean edo kopuru bidegabean jasotako prestazioen zenbatekoa ez itzultzea.

g) Jasotako prestazioak ez erabiltzea eman diren helbururako.

h) Ez jakinaraztea, erregelamenduz ezarriko den epean, gertaturiko egitate batzuk, lege honetan xedatutakoaren arabera bertan araututako prestazioetarako eskubidea aldatzea, etetea edo azkentzea ekar dezaketenak.

103. artikulua.– Arau-hauste oso larriak

Hauek dira arau-hauste oso larriak:

a) Ustezko arau-hausleak diru-sarrerak bermatzeko errenta –edozein izanik ere modalitatea–, etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarria edo gizarte-larrialdietarako laguntzak lortzeko edo jasotzen jarraitzeko egindako jarduerak, horretarako eskatzen diren baldintzak ez dituela betetzen jakinda egindakoak, baldin jarduera horien ondorioz prestazioetakoren bat lortu bada, ez bazegokion ere, eta jaso duen prestazioaren zenbatekoa hau bada: berarena bezalako bizikidetzaren unitate bati urtean legokiokeen gizarteratzeko eta gizarte-babeserako oinarritzko errentaren gehienezko zenbatekoaren % 100 baino gehiago.

b) Ustezko arau-hausleak diru-sarrerak bermatzeko Errenta –edozein izanik ere modalitatea–, etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarria edo gizarte-larrialdietarako laguntzak lortzeko edo jasotzen jarraitzeko egindako jarduerak, horretarako eskatzen diren baldintzak ez dituela betetzen jakinda egindakoak, alde batera utzita helburu hori lortu duen ala ez, baldin eta jarduera horiek egiten dituenen beraren bizikidetzaren unitatearen hileko diru-sarrerak honelakoak badira: berarena bezalako bizikidetzaren unitate bati hilean legokiokeen gizarteratzeko eta gizarte-babeserako oinarritzko errentaren gehienezko zenbatekoaren % 300 baino handiagoak.

104. artikulua.– Arau-hauste bat baino gehiago batera gertatzea

Lege honen 101.c, 102.b eta 103.b artikuluetan aipatzen diren jardueren ondorioz, gainera, jaso behar ez zatekeen prestazio bat jasotzen bada, dela diru-sarrerak bermatzeko errentarena –edozein izanik ere modalitatea–, dela etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarriarena, dela gizarte-larrialdietarako laguntzena, arau-hauste bat baino gehiago batera gertatuko dira, eta, kasu horretan, egindako arau-hausterik larriena soilik zehatuko da.

105. artikulua.– Zehapenak

1.– Arau-hauste arinak arau-hausleari ohartarazpena eginez zehatuko dira.

2.– Arau-hauste larriak isunekin zehatuko dira. Isun txikiak 120 euro eta 180 euro bitartekoak izango dira; ertainak, 181 euro eta 240 euro bitartekoak, eta handiak, 241 euro eta 300 euro bitartekoak.

3.– Arau-hauste oso larriak isunekin zehatuko dira. Isun txikiak 301 euro eta 1.202 euro bitartekoak izango dira; ertainak, 1.203 euro eta 2.103 euro bitartekoak, eta handiak, 2.104 euro eta 3.005 euro bitartekoak, eta, gainera, prestazioak ezin izango dira jaso epe batean –gutxienez, hiru hilabetean, eta gehienez, bederatzi hilabetean–.

4.– Aurreko artikuluan aurreikusi bezala arau-hauste bat baino gehiago gertatuz gero eta betiere gutxienez horietako bi oso larriak izanez gero, eten egingo da diru-sarrerak bermatzeko errenten gutzizko zenbatekoa jasotzeko eskubidea, edo, hala badagokio, gizarte-larrialdietarako laguntzen gutzizko zenbatekoa jasotzekoa. Gainera, urtebetez prestazio horiek eskuratzea eragotziko duen zehapena ezarriko da. Ildo horretan, prestazioa aurreneko aldiz eteten denean, jaso beharreko zenbatekoa % 20 gutxituko da, eta bigarren aldian, % 50 gehienez. Horrelakorik bi aldiz baino gehiagotan gertatuz gero, prestazioa azkendu egingo da, eta, gainera, arau-hausleak bost urtez ezin izango du horrelako prestaziorik jaso.

5.– Artikulu honetan aipatutako zehapenak gorabehera, jaso behar ez zirela jasotako zenbatekoak itzuli beharrak bere hartan dirau.

106. artikulua.– Zehapenak mailakatzea

Zehapenak graduatzerakoan honako hauek hartuko dira kontuan.

a) Arau-hausleak izandako intentzioa.

b) Arau-hausleak zentzuz jokatzeko benetan daukan gaitasuna.

c) Jaso behar ez zela jasotako prestazioaren zenbatekoa.

d) Euskal administrazio publikoek aurretik egindako errekerimenduak ez betetzea.

e) Arau-hauslearen familia-inguruabarrak, bereziki egoera ekonomikoari dagokionez.

f) Urtebetean, kalifikatutako arau-haustea egin zenetik kontaktzen hasita, izaera bereko edo desberdineko beste arau-hauste bat edo batzuk egitea, administrazio-ebazpenaren bidez irmotzat jo badira.

g) Damua, eta zehapen-prozedura hastea ekarri zuten kalteak erremediatzea, betiere prozedura hori amaitu aurretik gertatu bada.

107. artikulua.– Preskripzioen araubidea

1.– Lege honetan tipifikatutako arau-hauste oso larrien preskripzioa lau urtera izango da, larriena hiru urtera eta arinena urtebetera, arau-haustea egin den egunetik kontaktzen hasita.

2.– Arau-hauste oso larriengatik ezarritako zehapenen preskripzioa lau urtera izango da, larriena hiru urtera eta arinena urtebetera, zehapena ezartzen duen ebazpena irmoa izaten hasten den egunaren biharamunetik kontaktzen hasita.

108. artikulua.– Zehapen-prozedura

Zehapen-prozedura erregelamendu bidez finkatuko da, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen Zigorrezko Ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legean ezarritako printzipioen arabera.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengoa.– Indarrean den araudia aldi batean aplikatzea

Eusko Jaurlaritzak lege hau erregelamendu bidez garatu arte, egun indarrean dauden arauak aplikatuko dira, betiere ez badira lege honetan xedatutakoaren kontrakoak.

Bigarrena.– Gizarteratzeko Erakunde arteko Batzordea

Lege hau indarrean sartzean, lege honetan eratzten den Gizarteratzeko Erakunde arteko Batzordeak izen bereko aurreko erakundearen osaera eta funtzionamendua izango ditu, funtzionamenduko araudi espezifikoa onartu arte.

Hirugarrena.– Gizarteratzeko Euskal Kontseilua

Lege hau indarrean sartzean, Gizarteratzeko Batzorde Iraunkorra Gizarteratzeko Euskal Kontseilua izatera igaroko da. Kontseiluak batzordearen osaera eta funtzionamendu berak izango ditu, funtzionamenduko araudi espezifikoa onartu arte.

Laugarrena.– Finantza-berregokitzea

1.– Lege honetan egindako eskumen-banaketaren ondorioz, erakundeen artean dagokion finantza-berregokitzea egingo da.

2.– Eskumenen birbanaketa horrek eta finantza-berregokitze horrek ez dituzte, inola ere, legea indarrean sartzen denean egongo diren prestazioen eta zerbitzuen intentsitate- eta hedadura-mailak gutxituko.

Bosgarrena.– Zenbatekoen araubide iragankorra

Oinarrizko errentaren araudiaren esparruan emandako zenbatekoak osatzearen foru-aldundiek emandako prestazioen onuradun ziren pertsonak jarraitu ahalko dute prestazio horiek jasotzen, betiere lege hau indarrean sartu aurretiko onuradunak badira eta bete beharreko baldintzak betetzen badituzte, eta jasoko duten zenbatekoa prestazio horien eta diru-sarrerak bermatzeko errentaren gehieneko zenbatekoaren arteko diferentzia izango da.

Foru-osagarri horri eutsiko zaio harik eta bizikidetzaren unitatearen diru-sarreraren eta diru-sarrerak bermatzeko errentaren batura lege hau indarrean sartzen denean pertsona hori jasotzen ari den gutzitzekoaren parekoa den arte.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa.– Garapen-arauak

Lege honen II. tituluko I. kapituluko 1. atalean aurreikusitako prestazio ekonomiko guztiak arautzeko dekretuak Eusko Jaurlaritzak egin eta onartuko ditu urtebeteko epean, lege hau indarrean sartzen denetik kontatzen hasita.

Bigarrena.– Euskal gizataldeetako kideak

Lege honetan araututako prestazio ekonomikoentzat aurreikusten diren erroldatzeari eta benetako bizilekuari buruzko baldintzak ez zaizkie exijituko Euskal Autonomia Erkidegoaz kanpoko Euskal Gizatalde eta Etxeekiko Harremani buruzko maiatzaren 27ko 8/1994 Legearen 11.1 artikuluan aipatzen diren euskal gizataldeei, betiere artikulua horretan aurreikusitako gainerrako baldintzak betetzen badituzte.

Hirugarrena.– Tresna tekniko komunak arautzea

Eusko Jaurlaritzak bi urteko epean ezarriko du, gainerako euskal administrazio publikoekin koordinaturik, beharizanak baloratzeko eta diagnostikoa egiteko aplikatzeak jotzen diren tresna teknikoaren zerrenda, eta tresna horiek bermatu behar dute, batetik, informazioa elkarri arintasunez pasatzen zaiola, eta, bestetik, datuak konparagarriak direla gizarteratze-gaietan esku-duna den Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko sailaren «Diagnostikoa eta Esku-hartze Soziala» izeneko baliabide informatikoaren bitartez jasotako datuekin.

Laugarrena.– Zehapenen zenbatekoa eguneratzea

Eusko Jaurlaritzari baimena ematen zaio lege honetan aurreikusitako zehapenen zenbatekoa eguneratzeko.

Bosgarrena.– Osasun Sailaren fitxategiak irispidean izatea

Administrazioak azkarrago jardun dezan, Osasun eta Kontsumo Sailak hilero jarriko ditu Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren esku lege honetan araututako prestazio ekonomikoaren titularren eta onuradunen identifikazio-datuak, jaiotza-data eta heriotza-data.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

1.– Indargabetu egiten dira lege honetan xedatutakoaren aurkakoa dioten edo haren aurka dauden maila bereko nahiz beheragoko mailako arau guztiak.

2.– Berariaz, xedapen hauek indargabetzen dira:

a) 12/1998 Legea, maiatzaren 22koa, Gizarte Bazterkeriaren aurkakoa. Orobat, azaroaren 10eko 8/2000 Legea, azaroaren 10eko 9/2000 Legea eta ekainaren 25eko 4/2003 Legea, Gizarte Bazterkeriaren aurkako Legea aldatzekoak.

b) Gizarte Eskubideen Agiriaren abenduaren 27ko 10/2000 Legearen 6, 7 eta 8. artikulua.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Aurrekontuko egokitzapenak

Eusko Jaurlaritzari gaitasuna ematen zaio lege honetan araututako prestazio ekonomikoak finantzatzeko beharrezko diren egokitzapenak eta/edo moldaketak egiteko, aurrekontu-gaietan eskuduna den sailaren bitartez.

Bigarrena.– Arau-garapena

Eusko Jaurlaritzari ahalmena ematen zaio lege hau garatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak eman ditzan.

Laugarrena.– Ordezko araubidea

Lege honetan aurreikusten ez diren kontuetan honako hauek aplikatuko dira:

a) Administrazio-prozedurari dagokionez, 30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena.

b) Zehapen-araubideari dagokionez, gaiari buruz indarrean dauden lege orokorretan aurreikusitako arau substantiboak eta prozedura-arauak.

c) Diru-laguntzen araubideari dagokionez, gizarte-larrialdietarako laguntzei eragiten dieten kontuetan, diru-laguntzei eta laguntzei buruzko arau orokorrak.

Bosgarrena.– Legea indarrean sartzea

Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.